# PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAREN ARAUTEGIA

## Diputatuen Kontseiluaren 40/2014 Foru dekretua, abuztuaren 1ekoa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegia onartzen duena.

**(ALHAO, 89. zk., 14-8-8koa)**

Azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarenak, aldaketa handia jorratu du pertsona fisikoek zergak ordaintzeko eran, berdintasun, gehikortasun, neutraltasun, gardentasun eta erraztasun printzipioak sendotze aldera eta, horretarako, ahalegin handiagoa eskatzen die gaitasun ekonomiko handiagoa duten zergadunei.

Osatu egin behar da pertsona fisikoen zergak ordaintzeko era zenbait auzi arautzen dituen foru arauak bere artikuluetan garatzen duen araudiarekin. Hori dela eta, araudi honek bi gaikuntza iturri dauzka: batetik foru arauan bertan berariaz egindako aipamenak eta bestetik azken xedapenetatik bigarrena, foru aldundiari hura garatzeko eta betearazteko behar diren xedapen guztiak emateko baimena eman diona.

Errenta salbuetsiei gagozkiela, berraztertu egin dira lurraldeko herri administrazioek emandako laguntza eta sari salbuetsien zerrenda, eta arautu egin da administrazioek emandako sari, laguntza eta kalte-ordainen zerrendak direla-eta administrazio horiek aurkeztutako informazio adierazpenak etorkizunean izan beharreko gutxieneko edukia.

Zenbait jarduera ekonomikoren etekin garbia zehazteko zenbatespen objektiboko metodoa indargabetzeak behartu egin du berrantolatzera aurreko araudiaren gai horren gaineko artikuluak. Horren harira, osagarri bezala, arau bereziak jasotzen ditu araudiak, errepide bidezko salgaien garraio jarduerarako zuzeneko zenbatespen erraztuan etekin garbia zehazteko. Jardueraren gastu kengarriak jasotzen duten trataeran datza arau berezi horien bitxitasuna.

Bestalde, abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, mikroenpresa kontzeptua jaso zuen, eta hari zerga araubide berezia aplikatzen dio, bai eta amortizazio sistema bereziak onartu ere enpresa mikro, txiki eta ertainei. Sistema berezi horiek jarduera ekonomikoetan jardun eta horretarako eskatutako betekizun guztiak betetzen dituzten zergadunek aplikatu ditzakete. Alde horiek guztiak kontuan izan dira araudi honetan, sozietateen gaineko zergaren araudian jasotakoekin koherentea izate aldera.

Ondasun higiezinen, negozioen edo meategien alokatzearen edo berralokatzearen laguntza teknikoari darizkion higigarrien kapitalaren etekinak direla eta, berritasunak sartzen dira, eta mugatu egiten dira era horretako etekinen gastu kengarriak eta xedatu ezinezkoa dela gastu kengarrian batuketak etekin garbi negatiboa ematea araudian zehaztutako etekin unitate bakoitzerako. Horrez gain, aurreikuspen berezia jasotzen du etxebizitza berralokatzeko tratamendurako.

Likidazio oinarria dela eta, arauz garatu dira gizarte-aurreikuspen sistemetara egindako ekarpenak eta kontribuzioak, bai eta haren mugak ere. Azken horiek direla eta, foru arauak baztertu egin zuen erretiratu ondorengo ekitalditik aurrera zergadunak gizarte-

aurreikuspen sistemetara egindako ekarpenak eta kontribuzioak murrizteko ahala eta, horretarako, ezinbestekoa zen noiztik aurrera gertatzen zen egoera hori zehaztea.

Era berean, foru arau honek beste kenkari bat jasotzen du enpresa berri edo sortu berrietarako, enpresa sarea ekonomikoki sustatzeko eta berrindartzeko. Dena den, horrek berekin dakar betebehar berri bat: foru ogasunari, araudi hau garatzen duenari, informatzeko beharra.

Gai honen inguruan Zerga Araudiaren Zerbitzuak egindako txostena eta Aholku Batzordeak egindakoa aztertu dira.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

**XEDATZEN DUT**

## I. TITULUA
## LEKUALDATUTAKO LANGILEEN ARAUBIDE BEREZIA (16)

### 1. artikulua. (16) Lekualdatutako langileen araubide bereziaren edukia.

**1.** Zergari buruzko Foru Arauak 56.bis.1.a) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, bereziki kualifikatutako lantzat hartuko dira Gizarte Segurantzako Araubide Orokorreko 1. kotizazio-taldean dagoen kategoria profesionaleko langileek egindakoak, indarreko arautegiak horri buruz ezarritakoaren arabera. Lan kualifikatu horiek lotuta egon beharko dute, zuzenean eta nagusiki, hurrengo atalean zerrendatzen diren jarduerekin.

**2.** (29) Titulu honetan aipatzen den araubide berezia aplikatzeko, zergadunek beren lan denboraren ehuneko 85, gutxienez, honako jarduera hauetako batean edo batzuetan aritu beharko dute:

a) Ikerketa eta garapena.

b) Jarduera zientifikoak eta teknikoak.

c) Finantza arloko jarduerak.

d) Jarduera komertzialak.

**3.** (29) Zergari buruzko Foru Arauaren 56.bis artikuluan ezarritako araubide berezia aplikatzeko eskubidea emango dute ikerketa eta garapen jarduera, jarduera zientifiko, tekniko edo finantzario hauek:

a) Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 62.2 artikuluan xedatutakoarekin bat datozen ikerketa eta garapen jarduerak.

b) Jarraian zerrendatzen diren jarduera zientifiko eta teknikoak:

1.a Sozietateen gaineko zergaren 37/2013 Foru Arauaren 63.2 artikuluan xedatutakoarekin bat datozenak.

2.a Garapen jasangarriaren eta ingurumen babesaren eta hobekuntzaren alorrarekin zerikusia duten proiektuekin lotutakoak, baldin eta sozietateen gaineko zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 65.2.b) artikuluko a?) letratik e?) letrara adierazitako helburuetakoren bat badute.

3.a 2014ko ekainaren 17ko Batzordearen 651/2014 Erregelamenduaren (EB) 2.80.a) artikuluan zerrendatutako produktu, zerbitzu eta prozesuekin lotuta ezarritako betekizunak betetzearren enpresa berritzailetzatjotzendirenentzat egiten direnak.

4.a Sozietateen gaineko zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 53.2 artikuluko c) letran aipatzen den helburua, ekoizpen jarduera indartzea eta enpresak sustatzea, betetzen duten erakundeentzat egiten direnak.

Ulertuko da xede hori bereziki betetzen dutela enpresa-proiektu garrantzitsuak abian jartzen dituzten erakundeek, baldin eta jarduera, produktu edo merkatu berriak garatzen badituzte, jadanik badirenak hedatu edo sendotzen badituzte, edo lanpostu egonkorrak sortzen badituzte.

Horretarako, langileak zerbitzuak ematen dizkion enpresak justifikatu egin beharko du enpresa-sustapen helburua eta bere jardueraren ondoriozko ekoizpen-jarduera sendotzeko xedea betetzen dituela.

5.a Enpresa-proiektu baten hasierako garapen-fasean edo garapen-fasean dauden enpresentzat egiten direnak, betiere mikroenpresak edo hazteko potentzial handia duten enpresa txiki eta ertainak badira.

c) Finantza jarduerak. Finantzaerakundeentzat egindako lanak edo finantza arloan edozein eratako erakundeentzat egindako lanak, betiere erakunde horiek iraunkortasun ekonomikoari edo kudeaketa ez finantzarioaren egoerari buruzko txostena argitaratu badute eta aditu independente batek txostena egiaztatu badu.

Informazio hori ematen dutenean, erakundeek esparru nazionaletan, Europar Batasuneko esparruetan edo nazioarteko esparruetan oinarritu beharko dute, hala nola honako hauetan: Nazio Batuen Mundu Ituna; Nazio Batuen esparruak «babesteko, errespetatzeko eta zuzentzeko» praktikan jartzen dituen enpresa eta giza eskubideei buruzko printzipio gidariak; Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundearen (ELGA) zuzentarau-lerroak enpresa multinazionaletarako; Normalizazioaren Nazioarteko Erakundearen 26000 ISO araua; Lanaren Nazioarteko Erakundearen enpresa multinazionalei buruzko hiru alderdiko aitorpena eta gizarte politika; GRIren (GRI Sustainability Reporting Standards) Iraunkortasun Txostenak Aurkezteko Munduko Ekimena, edo ezagunak diren nazioarteko beste esparru batzuk.

(29) I. titulu honetan aipatzen den araubide berezia aplikatzeko, beharrezkoa da aipatutako jasangarritasun txostena edo kudeaketa ez-finantzarioaren egoera argitaratzea zergadunak araubide berezi hori aukeratzen duen zergaldi bakoitzean.

**4.** (29) Zergaren Foru Arauaren 56.bis.2.b) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, lekualdatzeak eragindako gastu kengarritzat joko dira jarraian zerrendatzen direnak:

a) Zergaduna Araban ezartzeko beharrezko bidaia eta mudantza gastuak, zergadunarenak eta bere familia unitateko kideenak. Letra honen barruan sartuko dira zergadunak bere jatorrizko herrialdera egindako bidaiak; gehienez ere 2 urtean. Horri

dagokionez, kenduko den zenbatekoa Arabatik jatorrizko herrialdera joateko erabilitako garraiobidearen prezioari dagokiona izango da.

b) Zergadunaren seme-alabak Araban eskolatzearen ondorioz sortutako gastuak, baldin eta zergaren Foru Arauaren 79. artikuluan ezarritako kenkaria aplikatzeko eskubidea sortzen badute.

c) Zergadunak edo bere familia unitateko kideren batek egindako euskara edo/eta gaztelania ikastaroen gastuak.

d) Zergadunaren Arabako ohiko egoitzaalokatzearen gastuak eta etxebizitza horretarako zerbitzuak edo hornidurak kontratatzeak eragindako gastuak.

**2. artikulua. (16) (29) Lekualdatutako langileei araubide berezia aplikatzeko eskubidea egiaztatzea.**

**1.** Titulu honetan aipatzen den araubide berezia aplikatzeaerabakitzen den autolikidazioarekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Pertsona edo erakunde enplegatzaile batekin lan harreman arrunt, berezi edo estatutu harremanak hasi badira Espainian, aurreko artikuluan xedatutakoak betez, hark emandako frogagiria, zergadunarekiko lan edo estatutu harremanak aitortzen dituena, lana Espainian egingo dela egiaztatzen duena eta datu hauek zehazten dituena: noiz ekin zaion jarduerari (Espainiako Gizarte Segurantzaren altan ezarritako data), zein den lan zentroa eta non dagoen, eta lan kontratuaren iraupena.

b) Lekualdatzea pertsona edo erakunde enplegatzaileak agindu badu Espainiako egoiliar den enpresa edo erakunde bati edo Espainian dagoen establezimendu iraunkor bati zerbitzuak egiteko, horrek zerbitzugintza aitortzeko emandako frogagiria, zerbitzu horiek eskaintzean, aurreko artikuluan xedatutakoak betez. Frogagiri horrekin batera pertsona edo erakunde enplegatzailearen lekualdatze gutunaren kopia aurkeztuko da, eta bertan, aurreko aitorpenaz batera jarduerari noiz ekin zaion (data hau Espainiako Gizarte Segurantzaren altan edo, bestela, jatorrizko gizarte segurantzaren legeriarekin jarraitzea ahalbidetzen duen dokumentazioan ageri da), lan zentroa zein den eta non dagoen eta lekualdatzeak zenbat iraungo duen zehaztuko da, eta lana Espainian egingo dela egiaztatu.

**2.** Aurreko b) letran jasoriko kasuan, jatorrizko gizarte segurantzaren legeriari eusten bazaio, egiaztatu beharko da langilearen lanbide kategoria Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorreko 1. kotizazio taldekoen baliokidea dela.

**3.** Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, zergaduna Espainiako lurraldean noiz sartu den adierazi beharko da beti.

**4.** Aurreko 1. apartatuan ezarritakoa gorabehera, zergadunak egiaztatu ahal izango du lekualdatutako langileei araubide berezi hau aplikatzeko eskubidea duela zuzenbidean onartutako beste edozein frogabideren bidez.

**3. artikulua. (16) (29) Araubide berezia hautatzea.**

Egoitza 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera Espainiako lurraldera aldatzen duten zergadunek aukera izango dute Zergaren Foru Arauaren 56 bis artikuluan aipatzen den lekualdatutako langileentzako araubide berezia aplikatzeko, 1. apartatuan aipatzen diren zergaldietako edozeinetan.

Hala ere, egoitza Espainiako lurraldera aldatzen duten urtean araubide berezia aplikatzea erabakitzen ez duten baina ondoren egiten duten zergadunek araubide berezia aplikatu ahal izango dute soilik Espainiako lurraldera egoitza aldatu zuten urtearen,hau da araubide berezia aplikatzeko gaitu zituen urtearen, ondorengo 10 zergaldien epea osatu arte geratzen diren zergaldietan.

Artikulu honen lehen paragrafoan eta Zergaren Foru Arauaren 105. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, zergaduna lekualdatutako araubide berezia aplikatzeko aukeraz baliatuko da hura aplikatu nahi duen zergaldi bakoitzeko autolikidazioa aurkeztean; edonola ere, arautegi honen 74. artikuluan ezarritakoa beteko da.

**4. artikulua. (16)**

**5. artikulua. (16)**

**6. artikulua. (16)**

## II. TITULUA
## SALBUETSITAKO ERRENTAK

**7. artikulua. Langilea kaleratzeagatik edo lana utzarazteagatik ematen diren kalte-ordainak.**

Zergaren Foru Arauko 9. artikuluko 5. zenbakian ezarritako salbuespena aplikatzeko ezinbestekoa da langileak inolako loturik ez edukitzea enpresarekin. Kontrakoa frogatu ezik, lotura horrek irauten duela ulertuko da iraizpena edo utzaraztea gertatu eta hiru urteren buruan langileak berriz ere ematen baditu zerbitzuak enpresa berean edo horrekin lotutako beste enpresa batean, Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauaren 42. artikuluko 3. zenbakian ezarritako terminoetan. (11)

Zergaren Foru Arauaren 9.5 artikuluan zehaztutako kalte-ordain salbuetsiaren zenbatekoa 180.000 euro da, eta ez du zerikusirik izango kalte-ordaina ordaintzeko erarekin.

**8. artikulua. Giza eskubideak aldeztearren eta sustatzearren egindako lanengatik emandako sarien eta literaturaren, artearen edo zientziaren arloetako sarien salbuespenak.**

**1.** Zergaren Foru Arauaren 9.8 artikuluan xedatutako salbuespenak direla eta, honakoak izango dira indarrean:

a) Giza eskubideak aldeztearren edo sustatzearren emandako saria da pertsona bati edo batzuei giza eskubideak sustatzeko eta eraikitzeko egin duten lana goraipatzeko ondasun edo eskubideren bat ematea.

b) Literaturaren, artearen edo zientziaren arloko saria da pertsona bati edo batzuei kontraprestaziorik eskatu gabe ondasun edo eskubideren bat ematea literatura, arte edo zientziaren arloko lanen edo, orokorrean, arlo horietako jarduna goraipatzeko edo saritzeko.

**2.** Saria ematen duenak ezin egin izango du saritutako lanaren edo lanen ustiapen ekonomikoa, eta ezin du eduki horretarako interesik.

Hain zuzen ere, sariak ez du eragingo sarituriko lanaren edo lanen gaineko jabetza eskubideen lagapenik edo mugaketarik (jabetza intelektualaren edo industrialaren eraginezkoak ere barne).

Betekizun hau ez da ez betetzat joko lana jendaurreratze hutsagatik, irabazteko asmorik ez badago eta sei hilabete baino gutxiago irauten badu.

**3.** Nolanahi ere, saria deialdia baino lehen egindako lanei edo garaturiko jarduerei eman behar zaie.

Ez dira sari salbuetsiak bekak, laguntzak eta, oro har, artikulu honen 1. paragrafoan aipatutako arloetako lanak finantzatzeko aldi berean edo amaitu ondoren erabiltzen diren kopuruak.

**4.** Deialdiak betekizun hauek beteko ditu:

a) Ezin da inolako mugarik ezarri parte hartzaileen kopuruan sariaren berezko izateaz aparteko arrazoiengatik.

b) Iragarkia Estatuaren Aldizkari Ofizialean, deialdia egiten duen autonomia erkidegoaren aldizkari ofizialean edo lurralde historikoetako bateko aldizkari ofizialean argitaratuko da.

Atzerrian deitzen diren sariei eta nazioarteko erakundeek deitzen dituztenei salbuespena aplikatu ahal izateko nahiko izango da paragrafo honen a) idatz zatian ezarritakoa betetzea, sariaren garrantzia eta publizitatea frogatzeaz gainera.

**5.** Zerga Administrazioak adieraziko du salbuespena. Adierazpena honek eskatu behar du (eskaerarekin batera aurreko paragrafoetan ezarritako betekizunak betetzen direla frogatzen duten agiriak aurkeztuta):

a) Oro har, sariaren deialdia egin duen pertsonak edo erakundeak.

b) Saria lurralde historikoaz kanpokoa bada, pertsona sarituak.

Eskaera saria eman aurretik aurkeztu behar da, edo, paragrafo honen b) idatz zatian aipatutako kasuan, saria lortu den ekitaldiko autolikidazioa aurkezteko arauz ezarritako epealdia hasi baino lehen.

Administrazioak espedientea ebazteko bidezko iruditzen zaizkion txosten guztiak eskatu ahal izango ditu.

Prozeduraren ebazpena sei hilabete igaro baino lehen jakinaraziko da. Epealdi horretan ebazpenik jakinarazten ez bada, eskaera ezetsitzat joko da.

Adierazpenak hurrengo deialdietarako ere balioko du, baldin eta deialdiren batean salbuespena emateko kontuan hartu beharreko inguruabarrak aldatzen ez badira.

Gerora egin daitezkeen deialdiek inguruabar horiek aldatzen badituzte edo, hura aplikatzeko, eskatutakoak betetzen ez badira, Zerga Administrazioak adieraziko du, aldaketa edo ez betetzea gertatzen denetik aurrera, aplikatzeko eskubidea galdu dela.

Beste zerga administrazio batzuek egindako salbuespen adierazpenek ondorioak izango dituzte lurralde historiko honetan.

**6.** Zerga Administrazioak salbuespena adieraziz gero, aurreko 5. paragrafoaren a) idatz zatian aipatutako pertsonek eta erakundeek sarien inguruko datu hauek jakinarazi behar dizkiote saria ematen denetik hilabete pasatu baino lehen: saria eman den eguna, nolakoa den saria eta onuradunaren identifikazio datuak.

Salbuetsitako sarien hurrengo deialdietan salbuespena aplikatu ahal izateko, nahikoa izango da aurreko paragrafoan aipatutako berriematea bidaltzea, eta harekin batera sariaren deialdiaren oinarrien ale bat eta, behar izanez gero, artikulu honen 4. paragrafoaren b) idatz zatian ezarritakoa betetzen dela frogatzen duen dokumentazioa.

**8 bis artikulua. (11) (29)**

**9. artikulua. Kirolarientzako laguntza ekonomikoen salbuespena.**

Zergaren Foru Arauaren 9.15. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, salbuetsita daude kirolariek trebakuntzako programen barruan jasotzen dituzten laguntza ekonomikoak (muga: 60.100 euro urtean), baldintza hauek betez gero:

a) Onuraduna goi mailako kirolaria izan behar da, aplikatu beharreko legeriarekin bat etorriz.

b) Laguntza kirolaren arloko eskumenak dituzten erakundeek finantzatu behar dute, zuzenean edo zeharbidez.

**10. artikulua. Nazioarteko bake misioetan edo misio humanitarioetan parte hartzeagatik jasotzen diren aparteko haborokinen eta prestazio publikoen salbuespena.**

Zergaren Foru Arauaren 9.16. artikuluan ezarritakoari dagokionez, salbuetsita daude nazioarteko bake misioetan edo misio humanitarioetan diharduten kideei ordaintzen zaizkien kopuru publiko hauek:

a) Mota guztietako aparteko haborokinak, nazioarteko bake misioetan edo misio humanitarioetan jarduteari dagozkionak.

b) Nazioarteko bake misioetan edo misio humanitarioetan jasandako gaitz fisiko edo psikikoen zioz ordaindutako kalte-ordainak edo prestazioak.

**11. artikulua. Atzerrian egindako lanen zioz hartutako lan etekinen salbuespena.**

**1.** Zergaren Foru Arauaren 9.17. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, salbuetsita daude atzerrian egindako lanengatik jasotzen diren lan etekinak, betekizun hauek betez gero:

1. Lanak egoitza Espainian ez duen enpresa edo erakunde batentzat edo atzerrian egoitza duen establezimendu iraunkor batentzat egitea. Hain zuzen ere, lanen hartzaile den erakundea langilearen erakunde enplegatzailearekin edo hura lanean ari denarekin lotuta badago, lanak egoitza Espainian ez daukan erakundearentzat egintzat joko dira, baldin eta, Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 44. artikuluaren 1. paragrafoan ezarritakoarekin bat etorriz, egoitza ez daukan erakundeari egindako zerbitzua, erakunde hartzaileari onuraren bat sortu diola edo sortu diezaiokeela eta, talde barrukotzat hartu ahal bada.

2. Lanak egiten diren lurraldean zerga honen antzeko izaerako edo izaera bereko zerga bat aplikatzea, eta arau bidez zerga paradisutzat jotzen diren herri eta lurraldeetakoa ez izatea. Baldintza hau betetzat joko da lanak egiten diren herrialdeak edo lurraldeak Espainiarekin hitzarmena sinatu badu nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko eta hitzarmen horretan informazioa trukatzeko klausula badago.

**2.** Salbuespenaren muga 60.100 euro izango da urtean. Atzerrian egindako lanei dagokien ordainsaria kalkulatzeko, langilea atzerrian egon den egunen kopurua eta atzerrian egiten diren zerbitzuei dagozkien berariazko ordainsariak hartu behar dira kontuan.

Atzerrian egindako lanek eguneko sortutako etekinen zenbatekoa kalkulatzeko, lan horiei dagozkien berariazko ordainsariak modu proportzionalean banatuko dira urteko egunen artean.

**3.** Atzerrian ari diren zergadunek ezin dute bateratu salbuespen hau zerga ordainketatik baztertutako gaindikinen araubidearekin (araudi honen 13. A.3.b) artikuluan ezarri da), zenbatekoa dena delakoa ere.

**4.** (29) Zergadunak bi hauen artean hautatuko du: salbuespen hori aplikatzearen eta aplikatu nahi den ekitaldiko autolikidazioa aurkeztean dauden soberakinen araubidea aplikatzearen artean. Zergaldi baterako hautatzen den modalitatea zergaren autolikidazioa nork bere borondatez aurkezteko epealdia amaitutakoan aldatu ahalko da, baldin eta Zerga Administrazioak errekerimendurik egiten ez badu.

**12. artikulua. Lurraldeetako herri administrazioek ematen dituzten laguntza publikoen salbuespena.**

**1.** (19) Zergaren Foru Arauaren 9.27 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, salbuetsita daude lurraldeetako herri administrazioek ondoren zehaztuko diren araudien, programen edo laguntza planen edo haien ordezkoen itzalpean ematen dituzten laguntza publikoak:

a) Eusko Legebiltzarraren 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, gizarteratzeko eta diru sarrerak bermatzekoa.

b) Eusko Legebiltzarraren 3/2002 Legea, martxoaren 27koa, ikastoletan juridikoki normalizatu aurretik irakasle jardun zutenen aitorpenari eta haientzako konpentsazioei buruzkoa.

c) Eusko Jaurlaritzaren 124/2005 Dekretua, maiatzaren 31koa, euskal kooperatzaileei garapenerako lankidetza eta laguntzarako funtsaren kargura emango zaizkien laguntzakarautzen dituena.

d) Eusko Jaurlaritzaren 30/2015 Dekretua, martxoaren 17koa, seme-alabak dituzten familientzako dirulaguntzak arautzen dituena.

e) (29) Eusko Jaurlaritzaren 164/2019 Dekretua, urriaren 22koa, familia bizitza eta lana bateratzeko laguntzei buruzkoa.

f) Eusko Jaurlaritzaren 4/2011 Dekretua, urtarrilaren 18koa, gizarte larrialdietarako laguntzena.

g) Etxebizitzarako prestazio ekonomikoa, etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legeak 9. artikuluaren 2. apartatuan jasotakoa.

Halaber, salbuetsita egongo dira etxebizitzaalokatzekolaguntza publikoak, hain zuzen Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko abenduaren 18ko Aginduan, etxebizitzaren alokairurako Gaztelagun programaren laguntzakarautzen dituenak eta deialdia egiten duenak, ezarritakoak.

h) Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren Agindua, 2010eko urriaren 6koa, etxebizitzak erosteko finantza neurriei buruzkoa.

i) (29) Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio sailburuaren Agindua, 2021eko uztailaren 21ekoa, etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeraren, irisgarritasunaren eta energia efizientziaren arloko jarduketa babestuetarako finantza neurriei buruzkoa.

j) Eusko Jaurlaritzaren 447/2013 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko Osasun Sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzakarautzekoa.

k) Nekazari gazteek enpresak sortzekolaguntzak, apirilaren 12ko 30/2016 Foru Dekretuan arautuak.

l) (29) 39/2021 Foru Dekretua, abuztuaren 3koa, onespena ematen diena AP-1 eta AP-68 autobideetan diruz laguntzekoak diren tarteak erabiltzeagatik bidesaria ordaintzen duten pertsona fisikoentzako dirulaguntzen oinarri arauei.

m) (29) Arabako Bideak sozietate publikoak eskainitako laguntzak, Arabako Lurralde Historikoan bizi diren AP-1 eta AP-68 autobideen erabiltzaileek Arabako tartean ordaindutako bidesaria diruz laguntzeko programarekin bat etorriz. Ekainaren 12ko 318/2018 Erabakiaren bidez eman zitzaion ardura hori sozietate publikoari.

n) (29) 39/2014 Foru Dekretua, abuztuaren 1ekoa, arautzen dituena autonomiaren aldeko eta mendekotasunari arreta eskaintzeko sistemako prestazio ekonomikoak

Araban: mendekoak familia barruan zaintzeko eta zaintzaile ez profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa,laguntza pertsonalaren prestazio ekonomikoa eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa.

ñ) Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren Agindua, 2017ko azaroaren 8koa, zeinaren bidez arautzen baita nazioartekotze beken BEINT programa; eta SPRI - Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusiaren Ebazpena, 2019ko apirilaren 8koa, zeinaren bidez onartzen eta argitaratzen baitira «Beint nazioartekotze bekak» laguntza programa arautzen duten oinarriak, eta beketarako deialdia egiten baita.

o) (29) 32/2021 Foru Dekretua, uztailaren 20koa. Onespena ematea desgaitasuna duten pertsonen eta garapen nahasmenduak dituzten 0 eta 6 urte bitarteko adingabeen autonomia bultzatzeko banakako laguntzak arautzeko oinarri orokorrei.

p) Eusko Jaurlaritzak emandako laguntzak Oxford, Cambridge eta Glasgoweko unibertsitateetan ikertzaile bisitari direnentzat.

q) Ibilgailuen parkea berritzeko 2000 E eta MOTO E laguntza plana, Euskadi 2000 plana eta helburu bererako gainerako autonomia erkidegoek ezartzen dituzten planak edo plan horiek ordezkatzen dituztenak.

r) + Euskadi 09' plana, han jasotako Renove planei dagokienez (leihoetarakoa, etxetresna elektrikoetarakoa, galdaretarakoa, aurrezpen energetiko handiko turismoetarakoa eta altzarietarakoa); eta Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzen eta eraikinen birgaitze eraginkorrerako Renove Plana, eta aurrerantzean plan horiek xede berarekin ordezten dituzten bestelako planak.

s) Lurraldeetako herri administrazioek eskainitako beste laguntza publiko batzuk, baldin eta haien helburua ondasunak edo instalazioak eraberritzea bada eta q) eta r) letretan adierazitako xedeetarako badira.

t) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak emandako laguntzak, Arabako Lurralde Historikoan askatasunik gabeko pertsonentzakolaguntza ekonomikoen programaren xedapen eta oinarri arautzaileez baliatuz.

u) 32/2012 Foru Dekretua, ekainaren 12koa, zeinaren bidez onesten baita Arabako Lurralde Historikoan, Gasteizko udalerrian izan ezik, gizarteratze ibilbideetan parte hartzen duten pertsonentzako prestazio ekonomikoari buruzko araudia.

v) Eusko Jaurlaritzaren 107/2012 Dekretua, ekainaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzekoa eta biktima horiei ordainak ematekoa.

x) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Araua aldatu zuen urtarrilaren 16ko 1/2019 Foru Arauaren ondorioz Arabako Foru Aldundiak ematen dituen zuzeneko laguntzak.

**2.** Halaber, salbuetsita daude beste lurralde historikoek salbuetsitzat jotzen dituzten antzeko laguntzak.

## III. TITULUA
## ERRENTA ZEHAZTEA

### I. KAPITULUA
### LAN ETEKINAK

**13. artikulua. Joan-etorrien gastuetarako eta ohiko mantenu eta egonaldi gastuetarako dietak eta diru kopuruak.**

**A. Arau orokorrak:**

**1.** Lanaren etekintzat hartuko dira bidaia gastuetarako dietak eta diru kopuruak, hauek izan ezik: joan-etorrien gastuetarako eta artikulu honetan adierazitako baldintza eta mugak betetzen dituzten ostalaritzako establezimenduetako mantenu eta egonaldi gastuetarako direnak.

**2.** Joan-etorri gastuetarako diru kopuruak.

Kargatik salbuetsita daude enpresek edo enplegatzaileek lantegitik, tailerretik, bulegotik edo lan zentrotik kanpora lan egitera joaten diren enplegatu edo langileen joan-etorrien gastuak konpentsatzeko erabiltzen dituzten kopuruak. Baldintza eta zenbateko hauek hartu behar dira kontuan:

a) Enplegatuak edo langileak garraiobide publikoak erabiltzen baditu, gastuaren zenbatekoa frogatu behar da fakturaren edo antzeko agiri baten bidez.

b) Bestela, kopuru hau izango da: 0,29 euro ibilitako kilometroko (joan-etorria egin dela frogatu behar da) eta, gainera, bidesari eta aparkaleku gastuak (hauek ere frogatu egin behar dira).

**3.** Mantenu eta egonaldi gastuetarako diru kopuruak.

Kargatik salbuetsiko dira enpresak edo enplegatzaileak erabiltzen dituen kopuruak, baldin eta horien helburua bada jatetxe, hotel eta ostalaritzako gainerako establezimenduetako mantenu eta egonaldiaren ziozko gastu arruntak konpentsatzea; izan ere, kopuru horiek sortu behar dira, hartzailearen ohiko lanlekutik eta haren egoitzatik kanpoko beste udalerri baten egindako gastuengatik.

Jarraiko b) idatz zatian ezarriko diren kasuetan izan ezik, bederatzi hilabete baino gehiagoko epealdi jarraituan zehar egindako lekualdaketa eta egonaldia denean, orduan esleipen horiek ez dira kargatik salbuetsiko. Ondore horietarako, ez da deskontatuko oporretan, gaixorik edo destinoa aldatzea ez dakarten bestelako abarretan emandako denbora.

a) Hotel, jatetxe eta ostalaritzako gainerako establezimenduetako mantenu eta egonaldiaren ziozko gastu arruntetarako diru kopurutzat hauek baino ez dira kontuan hartuko:

1. Gaua ematen denean ohiko lanlekua eta hartzailearen egoitzakoa ez den beste udalerri batean, orduan hauek izango dira:

    - Egonaldi gastuengatik, frogatzen diren kopuruak. Salgaien errepide bidezko garraioan dabiltzan gidariek ez dute egonaldiaren ziozko gasturik frogatu

beharrik izango, baldin eta Espainiako lurraldearen barruan egindako joan-etorrietan egun bakoitzeko egonaldia gehienez ere 15 eurokoa bada eta atzerriko joan-etorrietan egun bakoitzeko egonaldia gehienez ere 25 eurokoa bada.

- Mantenuaren ziozko gastuengatik 53,34 euro egunean, Espainiako lurraldearen barruan egindako joan-etorriak badira, edo 91,35 euro egunean, atzerriko joan-etorriak badira.

2. Gaua ematen ez denean ohiko lanlekua eta hartzailearen egoitzakoa ez den beste udalerri batean, orduan mantenu gastuetarako esleipenak izango dira, baldin eta 26,67 edo 48,08 eurotik gorakoak ez badira egunean, joan-etorriak Espainiako lurraldearen barrukoak edo atzerrikoak izatearen arabera, hurrenez hurren.
Hegazkin konpainietako hegazkin langileen kasuan, mantenu gastu arruntetarako diru kopurutzat hartuko dira 36,06 euro eguneko gehienez, joan-etorria Espainiako lurraldearen barruan bada, edo 66,11 euro eguneko gehienez, joan-etorria atzerrira egin bada. Egun berean inguruabar biak gertatzen badira, egindako hegaldi gehienen kopuruaren arabera dagokion zenbatekoa ezarriko da.

   Aurreko paragrafoetan adierazitakoari dagokionez, ordaintzaileak joan-etorriaren egun eta tokia egiaztatuko ditu, bai eta joan-etorri horren arrazoi edo zioa ere.

b) Kopuru hauek kargatik salbuetsitako sariak dira:

1. Lantokia atzerrian duten espainiar funtzionario publikoek Espainian egotekotan jasoko lituzketen guztirako ordainsarien aldean jasotzen duten soberakina, indarrean den legeria aplikatzearen eta zerbitzuagatiko kalte-ordainen gaineko maiatzaren 24ko 462/2002 Errege Dekretuaren 25. artikuluaren 1. eta 2. paragrafoetan xedatutako kalte-ordainen ondorioz.

2. Herri Administrazioaren zerbitzupeko langileek, destinoa atzerrian dutelarik, destinoa Espainian izanez gero soldata, hirurteko, osagarri edota pizgarrien zioz lortuko lituzketen ordainsari guztien gainean hartzen duten gaindikina. Honen ondorioetarako, ordainsarien arloan eskumena duen organoak erabakiko ditu langile horiek destinoa Espainian izanik jasoko lituzketen ordainsarien parekatzeak.

3. Herri administrazioen zerbitzupeko funtzionario eta langileek hartzen duten gaindikina, baldin eta beraren helburua destinoa atzerrian duten funtzionarioen ordainsarien araubidea arautzen duen urtarrilaren 13ko 6/1995 Errege Dekretuaren 4., 5. eta 6. artikuluetan arautزtakoa bada, edo ordainsarien parekatzea baino gehiago ez bada, hurrenez hurren.

Modu berean tratatuko dira Euskadiren atzerriko ordezkaritzetan ari diren euskal herri administrazioaren zerbitzupeko funtzionarioen eta lan kontratuko langileen gaindikinak.

4. Lantokia atzerrian duten enpresetako langileek Espainian lanean egotekotan soldatengatik, egunsariengatik, antzinatasunagatik, aparteko ordainsariengatik (mozkinak barne), familia laguntzagatik edo beste edozein kontzeptugatik jasoko lituzketen guztirako ordainsarien gainetik jasotzen duten soberakina.

Idatz zati honetan ezarritakoa ezin da bateratu lanaren etekinen salbuespenarekin, baldin eta etekin horiek atzerrian egindako lanen ziozkoak (araudi honen 11. artikuluan aipatzen dira).

**4.** Aurreko idatz zatietan zehaztutako araubidea aplikatuko zaie, halaber, lan zentro mugikor edo ibiltariak dituzten enpresetan aritzeko berariaz kontratatzen diren langileek joan-etorri, mantenu eta egonaldi gastuetarako jasotzen dituzten diru kopuruei, baldin eta langilea ohiko bizilekua duen udalerritik kanpo joaten bada.

**5.** Artikulu honetan kargatik salbuetsitako kopuruak Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetako foru diputatuak berrikusi ahal izango ditu.

**6.** Artikulu honetan aurreikusitako mugak gainditzen dituzten joan-etorri, mantenu eta egonaldi gastuetarako diru kopuruak kargapean daude lanaren etekin gisa.

**B. Arau bereziak:**

**1.** Enpresek berariaz ordaintzen ez badizkiete joan-etorri eta mantenu gastuak zerbitzuak egiten dizkietenei, menpeko lan harreman berezien ondorioz lanaren etekinak lortzen dituzten zergadunek sarrerak gutxitu ahal izango dituzte beren etekin garbiak zehaztean, joan-etorriak frogatzen badituzte. Hona kopuruak:

a) Joan-etorri gastuengatik:

- Garraiobide publikoak erabiltzen direnean, faktura baten bidez edo agiri baliokide baten bidez frogatzen den gastuaren zenbatekoa.

- Bestela, 0,29 euro ibilitako kilometroko, eta horrez gainera frogatzen diren bidesari eta aparkalekuaren ziozko gastuak.

b) Mantenu gastuengatik 26,67 edo 48,08 euro egunean, joan-etorria non den, Espainiako lurraldearen barruan edo atzerrira.

Ondorio hauetarako, egonaldi gastuak enpresak ordaindu behar ditu beti, eta artikulu honen A) idatz zatiaren 3. lerroaldearen a) letran xedatutakoak arautuko ditu.

**2.** Kargatik salbuetsita daude zergadunari lanpostua beste udalerri batera aldatzearen zioz ordaintzen zaizkion kopuruak, baldin eta, batetik, lekualdaketa horrek egoitza aldatzea badakar eta, bestetik, kopuruok zergadunak eta beraren senidek lekualdaketan egin beharreko joan-etorrietarako eta mantenu gastuetarako eta altzari eta tresnak lekutik aldatzeko badira.

**3.** Hautesmahaietako kideek jasotzen dituzten kopuruak kargatik salbuetsita daude, aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren arabera.

**4.** Zergaren Foru Arauaren 60.2.b) artikuluan xedatutakoetarako, zergadunek aukera izango du kontuan ez hartzeko langileei gauzatan emandako ordainsaria zehaztean laneko edo bere bidaietarako erabiltzen dituzten garraioek eragindako gastuen zenbatekoa, baldin eta horiek bat badatoz frogagiri bidez ordaintzaileak laneko jardunarekin zerikusia izan eta egiaztatu ditzakeenekin.

Aurreko paragrafoan xedatutako aukera baliatzen bada, ordaintzaileak ordaintzen dituen gainerako garraioek eragindako gastuak gauzazko lan etekin izango dira, bere osotasunean, garraio elementua norberaren beharrizanetarako erabili baita.

Dena den, Zergaren Foru Arauaren 60.2.b) idatz zatian xedatutako arau orokorren arabera egotziko dira garraio elementuek eragindako gastuak, baldin eta, haien izaera dela eta, laneko edo norberaren erabilerarako izan diren bereizterik ez badago.

**14. artikulua. Denboran zehar modu nabarmen irregularrean lortutako lanaren etekinak, zatika hartutako etekinak eta sorrera aldiaren zehaztapena.**

**1.** (29) Zergaren Foru Arauaren 19. artikuluko 2. apartatuaren a) letran ezarritako ehuneko 50eko integrazio ehunekoa aplikatzeko, denboran zehar modu nabarmen irregularrean lortutako lanaren etekintzat ondoren adieraziko direnak soilik hartuko dira, zergaldi bakarrean egotziz gero:

a) Enpresak enplegatuei beste lanpostu batera aldatzeagatik ordaindutako kopuruak, baldin eta araudi honetako 13. artikuluan ezarritako zenbatekoez gaindikoak badira.

b) Gizarte Segurantzaren edo Klase Pasiboen araubide publikoetatik datozen kalte-ordainak, eta zurtzen erakundeek eta antzeko beste erakunde batzuek elbarritasunik ez dakarten lesioengatik ordaintzen dituzten prestazioak.

c) Elbarritasunik edo ezintasun iraunkorrik, gradu guztietan, ez dakarten lesioen zioz enpresek eta herri izakiek ordaintzen dituzten prestazioak.

d) Langile edo funtzionarioen heriotzaren eta ehorzketa gastuen ziozko prestazioak, publikoak zein zurtzen erakundeek edo antzeko beste erakunde batzuek, enpresek eta herri izakiek ordaintzen dituztenak, Zergaren Foru Arauaren 9.22 artikuluan xedatutakoaren arabera salbuespenaren gehieneko muga gainditzen dutenak.

e) Muga gabeko iraupeneko edo lan baldintzak aldatzearen zioz ordainsari osagarrien, pentsioen edo urtekoen konpentsazio edo erreparazio gisa ordaintzen diren kopuruak.

f) Enpresak langileei lan harremanak elkarren adostasunez suntsiarazteagatik ordaintzen dizkien kopuruak. Ondorio horietarako, lan harremanak izango dira estatu harremanak, bai eta langile bazkideak eta laneko bazkideak beren kooperatibekin lotzen dituztenak ere.

g) Zerga honen kargatik salbuetsita ez dauden sari literario, artistiko edo zientifikoak. Ez dira saritzat hartuko, honi dagokionez, jabetza intelektual edo industrialeko eskubideak lagatzearen ondoriozko kontraprestazio ekonomikoak, ez eta haien ordezkoak ere.

Era berean, paragrafo honetan xedatutako ehunekoa aplikatuko da, beren inguruabar objektiboak direla eta, lan etekina integrazio hori eskatzen duten jardueren garapenaren ondorioz lortzen denean, zehazten diren era eta baldintzetan.

**2.** Lanaren etekinen sorrera aldia bi urte baino luzeagoa izan bada eta etekin horiek zatika jasotzen badira, Zergaren Foru Arauaren 19. artikuluaren 2. paragrafoaren a) idatz zatiaren lehenengo lerroaldean ageri diren ehuneko 60 edo ehuneko 50eko

integrazio portzentajeak bakarrik aplikatu ahal izango dira, baldin eta sorrera aldiko urteen kopurua, datatik datara zenbatuta, zergaldien kopuruaz zatitzearen emaitzako kopurua bi edo bost baino handiagoa bada, hurrenez hurren.

Jaso beharrekoa zatika jaso behar bada eta Zergaren Foru Arauaren 19.2.a) artikuluaren hirugarren eta laugarren lerroaldeetan aipatzen den 300.000 euroko muga aplikatzea zilegi bada, muga hori proportzionalki banatuko da zatikapen ekitaldi bakoitzean jaso beharreko zenbatekoen arabera.

**3.** Sorrera aldia bi urte baino luzeagoa izan dela egiaztatu arren, epealdia zenbatekoa izan den zehazterik ez dagoenean, hiru urtekoa izan dela pentsatuko da.

**4.** (29)

**5.** Halaber, ehuneko 50eko integrazio portzentajea, Zergaren Foru Arauaren 19.2.a) artikuluan ezarritakoa, aplikatuko zaie zergadunek egiten duten jardueraren inguruabar objektiboen eraginez aldi laburrean lortzen dituzten etekin handiei, ondoren jarduera horrek etekin gehiagorik sortzen ez badu.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa Ogasun zuzendariak ebazpen baten bidez ezartzen duenari eta finkatzen dituen baldintzei lotuta aplikatuko da.

**15. artikulua. Lanaren etekin jakin batzuei aplikatu beharreko integrazio portzentajeak.**

**1.** Lehenengo prestazioari baino ez zaio aplikatuko Zergaren Foru Arauaren 19.2.b) artikuluan xedatutako ehuneko 60ko integrazio portzentajea. Prestazio hori foru arau horren 18.a artikuluan jasotzen da. Artikulu horretatik 6. puntuan adierazitakoak baztertu behar dira. Aipatutako prestazioa kapital gisa jasoko da inguruabar bakoitzeko eta, betiere, lehenengo ekarpena egin zenetik, gutxienez, bi urte igarotakoan.

Elbarritasun edo ezintasunagatiko prestazioetan ez da eskatuko bi urteko epealdi hori.

Urte bakarrean jaso ezean, ehuneko 60ko integrazio portzentajea inguruabar bakoitzeko jasotako lehen prestazioari aplikatuko zaio, hartarako betebeharrekoak betetzen diren heinean. Ondorio hauetarako, lehenengo prestaziotzat hartuko da kontingentzia bategatik zergaldi batean kapital gisa jasotako kopuru guztien batura.

Aurreko guztia gorabehera, zergaduna ez dago behartuta kobratzeko lehen ekitaldian kapital eran jasotako zenbatekoen ehuneko 60 ezinbestez integratzera; hau da, ehuneko hori bigarren edo hurrengo ekitaldietan lortzen dituen zenbatekoei -horiek ere kapital eran lortuak- aplikatu ahal izango die, baldin eta ez badie aldez aurretik aplikatu.

Inguruabar bakoitza sortzen den bakoitzeko lortzen diren lehen zenbatekoek kapital bakarra eta aldizkako errenta bat lortzen dutenean, jasotako zenbatekoak integratzean honako portzentajeak aplikatuko dira:

a) Errenta gisako prestazioari dagokionez, ekitaldian jasotakoaren ehuneko 100.

   Ondorio horietarako, errenta erako prestazio da soldata bi edo gehiago jasotzea periodikotasun erregularrarekin, urte bakoitzean, gutxienez, haietako bat jasoz.

b) Kapital eran kobratzeari dagokionez, ehuneko 60, baldin eta lehen ekarpena egin zenetik, gutxienez, bi urte igaro badira. Elbarritasun edo ezintasunagatiko prestazioetan ez da eskatuko bi urteko epealdi hori.

**2.** Aurreko paragrafoan xedatutakoetarako, honako hauek izango dira inguruabar:

a) Erretiroa, lan araudian jasotako zernahi egoera dela ere.

b) Ezintasun iraunkorra edo baliaezintasuna.

c) Kausatzailearen heriotza.

d) Mendekotasuna.

e) Langabezian luzaroan egotea.

f) Gaixotasun larria.

g) Azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Pentsio plan eta funtsei buruzko Legearen Testu Bateratuaren 8.8 artikuluan ezarritako egoera edo kontingentzien ondorioz gertatukoez besteko zioengatik jasotako kopuruak.

**3.** Zergaren Foru Arauaren 18.a artikuluan zerrendatutako eta kapital erakoak eta errentak nahastean jasotzen dituen prestazioen kasuan, kapital eran kobratutakoei baino ez zaie aplikatuko 19. artikuluaren 2. paragrafoaren b) eta c) idatz zatietan xedatutako ehunekoak.

Bereziki, prestazioak errenta gisa kobratzen hasi ondoren errenta aurreraturik berreskuratzen bada, lortutako etekinari prima edo ekarpen bakoitzak errenta eratu denean izan duen antzinatasunaren araberako integrazio portzentajea aplikatuko zaio.

**4.** Prestazioak lotutako pertsonei egotzitako talde aseguruetarako ekarpenei dagokienez, Zergaren Foru Arauaren 19.2.c) artikuluaren a') eta b') azpi idatz zatietan ezarritako ehuneko 25eko portzentajea aplikatzeko, kontratuaren iraupenean zehar ordaindutako primak aldizkotasun eta erregularitate nahikoarekin ordaindutzat joko dira baldin eta lehenengoa ordaindu denetik zortzi urte baino gehiago igaro badira eta primen batez besteko iraunaldia lau urte baino luzeagoa izan bada.

Primen batez besteko iraunaldia kalkulatzeko hauxe egin behar da: primen batura eta beraien iraunaldiko urteen kopurua biderkatu eta horren emaitzako kopurua ordaindutako prima guztien baturaren artean zatitu.

**5.** Prestazioak lotutako pertsonei egotzitako talde aseguruetarako ekarpenei dagokienez, Zergaren Foru Arauaren 19.2.c) artikuluaren b') azpi idatz zatian ezarritako ehuneko 25eko integrazio portzentajea mota guztietarako lanetarako erabateko ezintasun iraunkorraren ziozko kalte-ordainei eta ezintasun handiaren ziozko kalte-ordainei aplikatu ahal zaie (bi kasuetan pentsio planei eta funtsei buruzko araudia bete behar da).

**6.** Zergaren Foru Arauaren 18.a).6. artikuluan ezarritako bizitza aseguruen kontratuen ondorioz kapital prestazioak kobratzen direnean, primak aldizkakoak edo apartekoak izan badira, lortu diren etekinetatik prima bakoitzari dagokion zatia zehazteko, zatiketa

honen emaitzako haztapen koefizientea aplikatu behar zaio etekinen guztirako kopuruari:

- Zenbakitzailea eragiketa hau eginda lortuko da: kasuan kasuko prima bider jaso beharrekoa jaso arte prima hori ordaindutako urte kopurua.
- Izendatzailea eragiketa hau eginda lortuko da: prima bakoitza bider jaso beharrekoa jaso arte prima hori ordaindutako urte kopurua. Biderketa eragiketa horretatik lortutako produktu guztien batura izango da izendatzailea

**7.** Zergaren Foru Arauaren 19.2. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, erakunde aseguratzaileak ordaindutako kopuruetatik prima bakoitzari dagokion zatia banakatu behar du.

**16. artikulua. Etekin irregularren muga.**

Ehuneko 100dik beherako integrazio portzentajea aplikagarri izango duen gehieneko zenbatekoa (300.000 euro), Zergaren Foru Arauaren 19. artikuluan adierazitakoa, era independentean aplikatuko zaio honako etekin hauetako bakoitzari:

a) Zergaren Foru Arauaren 19. artikuluaren 2. paragrafoaren a) idatz zatian aipatzen diren etekinei.

b) Zergaren Foru Arauaren 19. artikuluaren 2. paragrafoaren b) eta c) idatz zatietan aipatzen diren etekinei.

**17. artikulua. (29) Akzioen gaineko aukerak: integrazio ehunekoak aplikatzeko berariazko muga.**

(29) Zergaren Foru Arauaren 19. artikuluko 2. apartatuaren a) letraren hirugarren paragrafoan jasoriko mugaz gain, zergaren foru arauaren 20. artikuluko 1. apartatuan aipatutako akzioen gaineko aukera eskubidea baliatuz lanaren etekinak sortzen badira, ehuneko 60 edo 50eko integrazio ehunekoa ez zaie aplikatuko 20.000 euroren eta etekina sortu den epealdiko urteen kopuruaren biderketaren emaitza gainditzen duen etekin kopuruari.

Aurreko paragrafoan aipatutako kopurua gaindituz gero, gaindikina oso-osorik konputatuko da.

Ondore horietarako, lanaren etekinak bi edo bost urte baino aldi luzeagoan sortutzat joko dira, eta ez direla lortu ez aldian-aldian ez lantzean behin, baldin eta eskubidea eman eta bi edo bost urte igaro arte ezin baliatu bada eta urtero ematen ez bada.

## II. KAPITULUA
## JARDUERA EKONOMIKOEN ETEKINAK

### Lehen atala
### Arau orokorrak

**18. artikulua. Jarduera ekonomiko bati lotutako ondare elementuak.**

**1.** Ondoren zehaztuko diren ondasunak zergadunak egiten duen jarduera ekonomikoari lotutako ondare elementutzat joko dira, titulartasuna bi ezkontide edo izatezko bikoteko kideena den ala ez kontuan hartu gabe:

a) Zergadunaren jarduera egiteko erabiltzen diren ondasun higiezinak.

b) Jardueran ari diren langileen zerbitzu ekonomikoetarako eta gizarte eta kultur zerbitzuetarako diren ondasunak; ez dira jarduerari lotutzat joko aisialdiko eta jolaserako ondasunak, ez eta, oro har, jarduera ekonomikoaren titularraren bakarreko erabilerakoak ere.

c) Etekinak lortzeko beharrezkoak diren gainerako ondare elementu guztiak. Ez dira inoiz ere horrelakotzat joko erakunde baten funts propioetako partaidetzaren eta hirugarrenei egindako kapital lagapenen ordezkari diren aktiboak.

**2.** Jarduera ekonomiko bati lotutako ondare elementutzat subjektu pasiboak haren xedeetarako erabiltzen dituenak bakarrik hartuko dira.

Ez dira lotutzat hartuko:

1. Aldi berean jarduera ekonomikoetarako eta beharrizan pribatuetarako erabiltzen direnak, paragrafo honen 4. puntuan ezarritakoaren arabera beharrizanetarako osagarri gisa eta garrantzirik gabe erabiltzen direnean izan ezik.

2. Zergadunaren titulartasunekoak direla, berak eraman behar dituen jarduera ekonomikoaren kontabilitate edo erregistro ofizialetan agertzen ez direnak, aurkako frogarik egon ezean.

3. Ondare elementuak zati batez bakarrik erabiltzen badira jardueraren xederako, lotura jardueran benetan erabiltzen den zatira mugatzen dela esan nahiko du. Hori dela eta, aprobetxamendu bereizia eta lokabea izan dezaketen ondare elementuen zatiak bakarrik hartuko dira lotutzat. Ondare elementu zatiezinak ezin dira zati batez lotu.

4. Beharrizan pribatuetarako osagarri gisa eta garrantzirik gabe erabilitzat hartuko dira jarduera ekonomikoa egiteko eskuratuak eta erabiltzen diren ibilgetuko ondasunak, baldin eta zergadunaren beraren xedeetarako erabiltzen badira jaiegunetan eta lanik gabeko orduetan, jarduera gelditu gabe.

(29) Apartatu honen 1., 3. eta 4. puntuetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko autoei eta haien atoiei, ziklomotorrei eta motozikletei, zeinak Zergaren Foru Arauaren 27. artikuluaren 5. Erregelak xedatuko baititu. Era berean, puntu horiek ez zaizkie aplikatuko ez aisialdiko ez ur kiroletako ontzi eta itsasontziei zein aireontziei, zeinak zergaren foru arauaren 27. artikuluko 6. erregelak arautuko baititu.

**19. artikulua. Amortizazio askatasuna, amortizazio bizkortua eta baterako amortizazioa.**

**1.** Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauaren 21. artikuluan araututako amortizazio askatasuna eta amortizazio bizkortua aplikatzen zaienean foru arau hori indarrean jarri ondoren eskuratutako ibilgetu materialeko elementuei, kopuru hau amortiza daiteke: eskuraketa prezioaren eta gutxieneko amortizazio kuoten (edo benetan aplikatutako amortizazioen) arteko diferentzia.

Baldin eta zergaldi batean edo batzuetan etekin garbia amortizazio kuotak kentzea berariaz onartzen ez duen metodo edo modalitate baten bitartez zehazten bada, zergaldietako gutxieneko amortizazioak hartuko dira benetan aplikatutako kuotatzat.

Ondorio horietarako, gutxieneko amortizazio kuotak kalkulatzeko hauxe egin behar da: ondare elementuari aipatutako gehieneko amortizazio aldiaren ondoriozko koefizientea aplikatzea, sozietateen gaineko zergaren araudiaren arabera.

**2.** Foru arau horren 21. artikuluaren 3. paragrafoan araututako baterako amortizazioa aplikatu ahal izango dute mikroenpresa izateko Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauaren 13. artikuluan xedatutako betekizunak betetzen dituzten zergadunek. Horren ondorioetarako, metodo hau aplikatzen den lehen ekitaldian kontuan izan beharreko baterako amortizazioko ondare elementuen zerga balio garbia izango da eroste prezioaren eta gutxieneko amortizazio kuoten arteko aldea edo, bestela, benetan egindakoak, aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera kalkulatuak.

Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauaren 21.3 artikuluaren bigarren lerroaldean eta hamaseigarren xedapen iragankorrean xedatutako mugak aplikatu ahal izango dira, baterako amortizazioa aplikatzeko.

**20. artikulua. Eragiketen bolumena.**

Araudi honetan ezarritako ondorioetarako, eragiketen bolumena zergadunak bere jardueran ondasunak emanez eta zerbitzuak eginez lortutako kontraprestazioen guztirako zenbatekoa da, Balio erantsiaren gaineko zerga eta baliokidetzaren errekargua kenduta.

**21. artikulua. Jarduera ekonomikoei lotutako ondare elementuak eskualdatuta sortzen diren ondare irabazien kalkulua.**

Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauaren 40. artikuluaren 9. paragrafoan xedatutakoa aplikatu behar zaienean pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek egiten dituzten jarduera ekonomikoei lotutako ondare elementuak eskualdatuta sortzen diren ondare irabaziei, erregela hauek hartuko dira kontuan:

a) Ondare elementu bat jarduera ekonomiko bati lotu bazaio eskuratu ondoren, eskuraketa lotura ezarri denean gertatutzat joko da Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauaren 40. artikuluaren 9. paragrafoaren a) idatz zatian xedatutakoa aplikatzeko.

b) Zergadun batek zergaldi batean jarduerak sortu duen etekin garbia amortizazioen berariazko kenketa onartzen ez duen metodo edo modalitate baten bitartez zehazten badu, Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauaren 40. artikuluaren 9. paragrafoaren a) idatz zatian xedatutakoa aplikatzeko kontuan hartuko den etekin

garbia kalkulatzeko ondoren adieraziko den eragiketa egin behar da: ondare elementuari Sozietateen gaineko zergaren Araudian aipatutako koefizienteen gehieneko amortizazio aldiaren ondoriozko koefizientea aplikatu.

**22. artikulua. Aparteko etekinen berrinbertsioa.**

**1.** Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauaren 36. artikuluan ezarritako aparteko etekinen berrinbertsioa aplikatu ahal den kasuetan, etekin garbia amortizazioen berariazko kenketa onartzen ez duen metodo edo modalitate baten bitartez zehazten duten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek egindako jarduera ekonomikoei lotutako ondare elementuak, berrinbertsioa jasotzen dutenak, bost urte egon behar dute atxikita berrinbertsioa gauzatzen denetik, edo hiru, ondasun higiezinak izanez gero, baldin eta Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, haren balio bizitza laburragoa ez bada.

**2.** Baldin eta Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauaren 22. artikuluan ezarritako berrinbertsio epealdian zergadunak eskualdatutako zenbatekoa bera ez berrinbertitzea erabakitzen badu, integratu gabeko errenta zatia lortu den zergaldira egotzi behar du eta haren zenbatekoari ehuneko 15 gehituko dio.

Aurreko paragrafoan ezarritakoarekin bat etorriz, zerga oinarrian integratu beharreko errentari dagokion kuota osoaren zatia, haren zenbatekoari gehitutako ehuneko 15 hori eta erabakia hartzen den zergaldiko kuota batera sartuko dira.

**3.** Berrinbertsioa egiten ez bada Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauaren 36. artikuluan ezarritako epealdiaren barruan, zergadunak integratu gabeko errenta zatia lortu den zergaldira egotzi behar du.

Aurreko paragrafoan ezarritakoarekin bat etorriz, zerga oinarrian integratu beharreko errentari dagokion kuota osoaren zatia eta aipatutako ehuneko 15a berrinbertsioa egiteko epealdia amaitzen den zergaldiko kuotarekin batera sartuko dira.

**23. artikulua. Errenta egozketaren araubideko erakundeak enpresa txiki eta ertaintzat hartzea.**

**1.** Errenta egozketaren araubideko erakunde batek jarduera ekonomiko bat egiten badu, jardueraren etekinak etekin ekonomiko izango dira erakundeko bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideentzat, baldin eta jarduerari lotutako ekoizbideen eta giza baliabideen norbere konturako antolamenduan zuzenean esku hartzen badute.

Dena dela, egotzitako etekinak kapitalaren etekin kalifikatuko dira aipatutako esku hartzean parte ez duten erakundeko bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideentzat, partaidetza ekarritako kapitalera mugatzen bada. Hala denean, egotzi beharreko etekina gehienez ere kapital ekarpenaren ehuneko 15 izango da.

**2.** Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauan mikroenpresa, enpresa txiki eta ertainen araubide bereziaz xedatutakoa aplikatzeko eta foru arau horren 13. artikuluan ezarritako betekizunak betetzeko, etekin garbia zehazteko erregela bereziekin bat etorriz, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Foru Arauaren modalitateetako bat aplikatu behar bada, halako erakundeek egindako jarduera ekonomikoak baizik ez dira kontuan hartuko.

**24. artikulua. Denboran zehar modu nabarmen irregularrean lortutako jarduera ekonomikoen etekinak eta zatika jasotako etekinak.**

**1.** Zergaren Foru Arauaren 25.4 artikuluan ezarritako ehuneko 50eko integrazio portzentajea aplikatzeko, denboran zehar modu nabarmen irregularrean lortutako jarduera ekonomikoen etekintzat ondoren adieraziko direnak soilik hartuko dira, zergaldi bakarrean egotziz gero:

a) Ibilgetuaren elementu amortizaezinak eskuratzeko kapitaleko diru laguntzak.

b) Jarduera ekonomikoei uzteagatiko kalte-ordainak eta laguntzak.

c) Zerga honetan salbuespenik ez duten sari literario, artistiko edo zientifikoak. Ez dira saritzat hartuko, honi dagokionez, jabetza intelektual edo industrialeko eskubideak lagatzearen ondoriozko kontraprestazio ekonomikoak, ez eta haien ordezkoak ere.

d) Mugagabeko iraupeneko eskubide ekonomikoen ordez jasotako kalte-ordainak.

**2.** Bi urtetik gorako sortze aldia duten ekonomia jardueren etekinak zatika jasotzen direnean, Zergaren Foru Arauaren 25. artikuluaren 4. paragrafoan aurreikusitako ehuneko 60 edo 50eko integrazio portzentajeak honako kasuan bakarrik izango dira aplikagarriak: sortze aldiaren urte kopurua, datatik datara konputatuta, zatikatze zergaldien kopuruaz zatitzearen emaitza bi urte edo bost urte baino luzeagoa denean, hurrenez hurren.

**3.** Sorrera aldia bi urte baino luzeagoa izan dela egiaztatu arren, epealdia zehazterik ez badago, hiru urtekoa izan dela pentsatuko da.

**4.** Etekin garbiaren zenbatekoak, hala dagokionean integrazio portzentajeak aplikagarri izango dituenak, ezin izango du urtean 300.000 euro baino gehiago egin. Zenbateko horretatik gorakoa ehuneko 100ean integratuko da.

Ehuneko 100 baino gutxiagoko integrazio portzentaje desberdinak aplikagarri dituzten etekinak jaso direnean, aurreko lerroaldean xedatutako 300.000 euroen muga konputatzeko, kontuan hartuko dira integrazio portzentaje txikiagoa aplikagarri dutenak.

Jaso beharrekoa zatika jaso behar bada eta artikulu honen 2. paragrafoan aipatzen den 300.000 euroko muga aplikatzea zilegi bada, muga hori proportzionalki banatuko da zatikapen ekitaldi bakoitzean jaso beharreko zenbatekoen arabera.

**25. artikulua. Ibilgailuei dagozkien finantza gastuen kengarritasuna.**

**1.** Zergaren Foru Arauaren 27.5. artikuluan xedatutakoetarako, zergadunak egiaztatzen badu jardueraren izaera dela-eta erabiltzen duen ibilgailua ezinbestekoa eta ohiko tresna dela diru sarrerak lortzeko, ibilgailua erosteak eragindako finantza gastuen ehuneko 50 kendu ahal izango du. Horrako hori ibilgailu bakarrarekin eta eroste prezioa 25.000 euro edo gutxiago duen ibilgailuarekin egin ahal izango da.

Eroste prezioa 25.000 euro baino gehiago bada, 25.000 euro eta eroste prezioaren artean dagoen ehunekoari dagozkion finantza gastuen ehuneko 50 kendu ahal izango da.

**2.** Zergadunak egiaztatzen badu ibilgailua jarduera ekonomikoa garatzen baino ez dela erabiltzen, aurreko paragrafoan zehaztutako portzentajea ehuneko 100 bihurtuko da eroste prezioa 25.000 euro edo gutxiago bada eta, bestela, 25.000 euro eta haren eroste prezioaren arteko ehuneko.

(29) Aurreko paragrafoan jasotako kasuan, eta bateriadun ibilgailu elektrikoak (BEV) edo bateria hedatuko ibilgailu elektrikoak (E-REV) badira, aurreko apartatuko ehunekoak ehuneko 100era igoko dira, eta osorik aplikatuko dira baldin eta eskuratze prezioa 35.000 eurokoa edo txikiagoa bada; bestela, 35.000 euroren edo eskuratze prezioaren proportzioan.

**26. artikulua. Kengarriak ez diren gastuak.**

Zergaren Foru Arauaren 27.7 artikuluan xedatutakoetarako, artikulu horretan aipatzen diren gastuen zati bat baino ez bada ordaindu eskudirutan, ez da zenbateko kengarri izango esku dirutan ordaindutako zatia.

**27. artikulua. Jarduera ekonomikoen etekinak zehazteko metodoak.**

**1.** Zergaren Foru Arauaren 25. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, jarduera ekonomikoen etekin garbiak zuzeneko zenbatespen bidez zehaztuko dira. Zuzeneko zenbatespen hori bi eratakoa izan daiteke:

- Arrunta.

- Erraztua.

**2.** Zergadunek aurreko metodoak aplikatzean kontuan eduki behar dituzte aplikatu beharreko mugak, bateraezintasunaren eta uko egiteko erregelak, eta hurrengo artikuluetan azalduko diren xedapenak.

## Bigarren atala
## Zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztua aplikatzea

**28. artikulua. Zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztuaren arau orokorrak.**

**1.** Jarduera ekonomikoren bat egiten duten zergadunek zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztua aplika dezakete beren jardueren etekin garbia zehazteko, betekizun hauek betez gero:

a) Zergadunak egindako jarduera ekonomietan urteko eragiketen guztirako kopurua 600.000 euro izatea gehienez.

b) Zergadunak berak berariaz hautatzea modalitate hau bere jarduera guztien etekin garbia zehazteko.

**2.** Zuzeneko zenbatespeneko modalitate erraztua aplikatu ahal izateko eragiketen bolumenari ezarritako muga dela eta, modalitatea aplikatu nahi den urtearen aurreko urteko eragiketak hartuko dira kontuan.

Aurre-aurreko urtean jarduerarik egin ez bada, etekin garbia modalitate honen bidez zehaztuko da, baldin eta zergadunak modalitate hau erabiltzea hautatzen badu, hurrengo artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Aurre-aurreko urtean zehar jarduera bati ekin bazaio, eragiketen bolumena urte osorako hartuko da.

**29. artikulua. Zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztua hautatzea.**

**1.** Zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztua aplikatu nahi izanez gero, ondorioak izan behar dituen egutegiko urteko martxoaren 1a baino lehen egin behar da aukera hori. Jarduera bati ekiten bazaio, erroldan alta emateko aitorpenean adierazi behar da modalitatea hautatu dela.

**2.** Artikulu honen 1. paragrafoan aipatutako hautapenak ondorioak sortuko ditu modalitatea aplika daitekeen hurrengo urteetan, zergadunak berariaz ezeztatzen ez badu 1. paragrafoan adierazitako epealdian.

**3.** Errolda aitorpenaren 037 eredu bidez hautatuko edo ezeztatuko da zuzeneko zenbatespeneko metodoko modalitate erraztua, aurreko paragrafoetan adierazia.

**4.** Zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztua hautatu duten zergadunek araudi honen 32., 33. eta 34. artikuluetan ezarritako jarduеretako bat egiten badute, Zergaren Foru Arauaren 28.2 artikuluan aipatutako gastu kengarriak zenbatzeko erregela bereziak aplika ditzakete. Horretarako, zergadunek erregela berezi hauek aplikatzea hautatu behar dute zerga honen zergaldi jakin bateko autolikidazioa aurkeztean, eta horretarako aski dute jardueraren etekin garbia jarduerarako ezarritako erregela bereziak aplikatuz zehaztea. Geroago hautapena aldatu ahal izango da, hain zuzen ere Zerga Administrazioak jarduketaren bat egin arte.

Zergadun batek araudian jarduera baterako ezarritako erregela bereziak aplikatzea hautatzen badu, epigrafe horretan egiten dituen jarduera guztien etekin garbia zehaztuko du, erregela berezietan ezarritakoarekin bat etorriz.

Zergadun batek hainbat jarduera egiten baditu eta bakoitzaren gastuak zehazteko erregela bereziak ezarri badira araudiaren 32., 33. eta 34. artikuluetan, jarduera horietako baten, batzuen edo guztien erregela bereziak aplikatzea hauta dezake.

Aurreko guztiak ez du eragozten gastu kengarriak zenbatzeko erregela berezirik ez daukaten jardueren etekina zehazteko zuzeneko zenbatespeneko erregela orokorrak aplikatzea.

Paragrafo honetako hautapenak ez du ondoriorik izango hurrengo zergaldietan.

**30. artikulua. Errenten egozketaren araubideko erakundeak.**

**1.** Zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztua aplika dakieke Zergaren Foru Arauaren 11. artikuluan aipatzen diren erakundeek egiten dituzten jarduera ekonomikoen etekin garbia zehazteko, baldin eta:

1. Bazkide, jaraunsle, erkide edo partaide guztiak zerga honen kargapeko pertsonak fisikoak badira.

2. Erakundeak araudi honen 28. artikuluan ezarritako eskakizunak betetzen baditu.

**2.** Erakunde batek modalitate erraztua aplikatu nahi badu, edo haren aplikazioa ezeztatu, bertako bazkide, jaraunsle, erkide edo partaide guztiek hautatu edo ezeztatuko dute, araudi honen 29. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, bazkide, jaraunsle, erkide edo partaide guztiek aplikatu behar dituzte erregela berak (denek orokorrak edo denek bereziak), zuzeneko zenbatespen erraztuaren bidez etekin garbia zehazteko.

Baldin eta bazkide, jaraunsle, erkide edo partaide guztiek zuzeneko zenbatespeneko modalitate erraztuan etekin garbia zehazteko erregela berak erabiltzen ez badituzte, zuzeneko zenbatespeneko modalitate erraztuaren erregela orokorren bitartez zehaztuko da.

**3.** Modalitate erraztuaren aplikazioan ez dute inolako eraginik izango bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideen inguruabarrek.

**4.** Etekin garbia kasu bakoitzean aplikatu beharreko arauen edo itunen arabera egotziko zaizkie bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideei. Administrazioak horien berri ez badu modu sinesgarrian, hainbana egotziko zaie.

**31. artikulua. Zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztuaren eta arruntaren bateraezintasuna.**

**1.** Gainerako jarduera guztien etekin garbia modalitate arruntaren bidez zehaztuko dute jardueraren baten etekin garbia zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate arruntaren bidez zehazten duten zergadunek.

Hala ere, urtean jarduera ekonomiko bati ekin bazaio, aurreko paragrafoan ezarritako erregelak ez du eraginik izango jarduera horretan.

**2.** Zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztua aplikatzeko ezarritako betekizunak betetzen dituen zergadun batek bere jarduera baten etekin garbia modalitate horren bitartez zehaztu nahi badu, jarduera guztietan aplikatuko du.

**32. artikulua. Basogintzako jardueren etekin garbia zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztuan zehazteko erregela bereziak.**

**1.** Zergaren Foru Arauaren 28.2 artikuluan xedatutakoa garatzeko, basogintzako jardueren etekin garbia zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztuan zehazteko honako erregela hauek aplikatuko dira:

a) Sarrerak kalifikatu eta kuantifikatu egingo dira, salbu eta jarduerari lotutako ondare elementuei darizkien irabaziak eta galerak, Zergaren Foru Arauan izaera orokorrez xedatutako erregelak aplikatuz.

b) Gastu kengarriak justifikatzen eta balioesten zailak direnez gero, aurreko a) idatz zatian aipatutako sarreren ehuneko 58,50 konputatuko da.

Zergadunak ustiatzen dituen lurrak oihaneztatzen baditu, aurreko paragrafoan ezarritako gastu kengarrien ehunekoa a) idatz zatian aipatutako sarreren ehuneko 70 izango da. Ez da lerroalde horretan xedatutako ehunekoa aplikatuko hazkunde arineko hostozabalen basoetan egiten diren basogintza lanei.

Aurreko lerroaldean aipatu den oihaneztatzea artikulu honetako hurrengo idatz zatian ezarritako baldintzei eta epeei loturik egin behar da.

c) Aurreko idatz zatietan aipatutako sarreren eta gastuen arteko diferentzia kalkulatuko da. Alde horri, bidezkoa denean, Zergaren Foru Arauan bi edo bost urte baino aldi luzeagoan sortu eta ez aldian-aldian ez behin eta berriz lortzen ez diren jarduera ekonomikoen etekin garbietarako ezarritako tratamendua emango zaio.

d) Azkenik, jarduerari atxikitako ondare elementuen ondoriozko irabaziak edo galerak gehitu edo kendu behar zaizkio, kasuan kasukoa, Zergaren Foru Arauaren 25. artikuluaren 3. paragrafoan ezarritakoarekin bat etorriz, eta emaitza jardueraren etekin garbia izango da.

Idatz zati honetan xedatutakoa aplikatzeko ezinbestekoa da zergadunak aurreko zergaldietan artikulu honetan xedatutakoa aplikatzen zaion basogintzako jardueraren gastuen ziozko kenkaririk ez aplikatu izana.

**2.** Ustiatzen diren lurrak mozteko baimena ematen denetik bi urte igaro baino lehen oihaneztatu behar dira, eta hori Arabako Foru Aldundiko sail egokiak emandako ziurtagiriaren bitartez egiaztatuko da.

Zergaren autolikidaziorako, egiaztagiri izango dira mozketa baimenei buruzko ebazpenak eta oihaneztatze dirulaguntzak ordaintzeko foru aginduak, baldin eta haietan titularra, finkaren identifikazioa eta oihandutako azalera agertzen badira. Halakorik aurkeztu ezean, onartu egingo da Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko Mendi Zerbitzuak egindako egiaztagiria.

Baldin eta, aurreko paragrafoan xedatutakoari lotuta, zergadunak ez baditu oihaneztatzen ustiatutako lurrak mozketa egiten den urte berean, mozketa egin den ekitaldiko zergaren autolikidazioan adierazi behar du oihaneztatzea finkatutako baldintzetan eta epearen barruan egiteko asmoa daukala.

**3.** Ustiatutako lurren oihaneztatzean ez baditu betetzen aurreko 2. paragrafoan ezarritako baldintzak, zergadunak autolikidazio osagarria aurkeztu behar du, hain zuzen ere artikulu honen 1. paragrafoaren b) idatz zatiaren bigarren lerroaldean ezarritako gastu kengarrien ehunekoa aplikatu den urteari dagokiona.

Ondorio horietarako, zergadunak aurreko paragrafoan aipatutako urtean basogintzako jarduerak sortutako etekin garbia birkalkulatu behar du aurreko 1. paragrafoaren b) idatz zatiaren lehen lerroaldean ezarritako gastu kengarrien ehunekoa aplikatuz, eta horren emaitzako kuota sartu behar du bidezko berandutze korrituekin batera.

Autolikidazio osagarri hau baldintzak betetzen ez direnetik ez-betetzea gertatzen den zergaldiko aitorpena aurkezteko arauzko epealdia amaitu arte aurkez daiteke.

**33. artikulua. Ardogintzaren eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren etekin garbia zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztuan zehazteko arauak.**

**1**. (11) Ardogintzaren eta nekazaritza, abeltzaintza edo arrantzaren etekin garbia zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztuan zehazteko honako erregela hauek aplikatuko dira:

a) Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauan eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauaren 27. artikuluan ezarritako arauetan xedatutakoarekin bat etorriz kalifikatu eta zenbatuko dira sarrerak eta gastuak, hauek izan ezik: narriaduraren ondoriozko galerak, amortizazioak, Zergaren Foru Arauaren 27. artikuluaren 5. arauaren bigarren paragrafoaren a) letran eta hirugarren paragrafoaren a) letran aipatzen diren errentamendu, lagapen eta balio galeren ondoriozko gastuak, ez eta jarduerari atxikitako ondare elementuen ondoriozko irabaziak eta galerak ere.

b) Aurreko idatz zatian aipatutako sarreren eta gastuen arteko aldea kalkulatuko da.

c) (21) (24) (27) (29) Aurreko b) letran xedatu denaren ondoriozko kopuruari ehuneko 35 kenduko zaio kontzeptu hauengatik: amortizazioa, narriadura galerak, errentamendu gastuak, zergaren foru arauaren 27. artikuluko 5. erregelako Bi apartatuaren a) letran eta Hiru apartatuaren a) letran aipatzen diren lagapena edo balio galera, eta justifikatzen zailak diren gastuak.

d) Aurreko c) idatz zatian xedatutakoaren arabera kalkulatzen den zenbatekoari jarduerari atxikitako ondare elementuen ondoriozko irabaziak edo galerak gehitu edo kendu behar zaizkio, kasuan kasukoa, Zergaren Foru Arauaren 25. artikuluaren 3. paragrafoan ezarritakoarekin bat etorriz.

**2.** Aurreko idatz zatian aipatutako jardueretarako, bilketa gastua kalkulatzeko eragiketa hau egingo da: bildutako kilogramo mahats bakoitza bider 0,07 euro. Horretarako ezinbestekoa da benetako gastuak justifikatu ezin izatea eta zenbat kilogramo mahats bildu den kontseilu arauemaileak emandako agirien bidez justifikatzea.

**3.** Artikulu honetan xedatutakoa aplikatzeko hauexek dira nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak: abeltzaintza lokabea; ganadua hazi, zaindu eta gizentzeko zerbitzuak; BEZaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezitik baztertuta dauden nekazariek eta abeltzainek egiten dituzten bestelako lanak eta zerbitzu osagarriak; BEZaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezian sartu daitezkeen nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak.

**34. artikulua. (24) (27) Salgaiak errepidez garraiatzeko jardueren etekin garbia zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztuan zehazteko erregela bereziak.**

Zergaren Foru Arauaren 28.2 artikuluan xedatutakoa garatuz, salgaiak errepidez garraiatzeko jardueraren etekin garbia zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztuan zehazteko, 28.1.b) idatz zatian aipatzen den ehunekoa hau izango da hurrengo urteetako bakoitzerako:

| Urtea | Ehunekoa |
|---|---|

| | |
|---|---|
| 2014 | 60 |
| 2015 | 55 |
| 2016 | 50 |
| 2017 eta hurrengoak | 45 |

Artikulu honetan xedatutakoetarako, salgaiak errepidez garraiatzeko jarduera izango dira Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifetako 722 epigrafean zerrendatutakoak, uztailaren 23ko 573/1991 Foru Dekretu Arauemaileak onartuak.

## III. KAPITULUA
## KAPITALAREN ETEKINAK

### Lehen atala
### Higiezinen kapitalaren etekinak

**35. artikulua. Etxebizitzen ondoriozko higiezinen kapitalaren etekinak: zer diren.**

Zerga honen ondorioetarako, Zergaren Foru Arauaren 32.1 artikuluan zerrendatzen diren etxebizitzen higiezinen kapitalaren etekin dira hauek: etxebizitzen edo haien gozamenaren eskubide errealen titularrek lortutako etekinak, hain zuzen ere etxebizitza hutsak salgai jartzea bultzatu eta sustatu duten Eusko Jaurlaritzaren dekretuetan xedatutakoari heltzen diotenak edo etxebizitzen errentamenduan ari diren erakundeentzat ezarritako araubide berezian dauden sozietateei lagatzen edo alokatzen dizkietenak. Erakunde horiek sozietateen gaineko zergaren araudiak arautûtako higiezinak alokatzeko kualifikatutako jarduerarako araubide bereziaren onuradun izango dira.

**36. artikulua. Higiezinen kapitalaren etekinetatik ken daitezkeen gastuak, Zergaren Foru Arauaren 32.2 artikuluan aipatzen direnak.**

Zergaren Foru Arauaren 32.2 artikuluan arautûtako kasuetan, etekin garbiaren zehaztapenean gastu kengarri izango dira etekina lortzeko egin behar izan diren gastu guztiak, bai eta erabilera edo denboraren joatea dela eta etekinen iturri diren ondasunek edo eskubideek jasandako narriaduraren zenbatekoa ere. Nolanahi ere, ondasun higiezin bakoitzean, gastu kengarrien baturak ezin du sortu etekin garbi negatiboa.

Hain zuzen ere, aurreko paragrafoan aipatutako gastuetakotzat hartuko dira:

a) Etekinen iturri diren ondasunak edo haiek erabiltzeko edo gozatzeko eskubideak edo ahalmenak eskuratzeko, birgaitzeko edo hobetzeko inbertitu diren besteren kapitalen korrituak eta finantzaketako gainerako gastuak.

b) Estatuarenak ez diren zergak eta errekarguak, eta Estatuaren tasak eta errekarguak, beraien deitura gorabehera, baldin eta konputatzen diren etekinak edo horiek sortu dituzten ondasunak edo eskubideak kargatzen badituzte eta ez badira zehapenak edo zergen arloko betebeharrak berandu betetzearen ondoriozkoak badira.

c) Hirugarrenek, zuzeneko edo zeharkako kontraprestazio gisa, edo zerbitzu pertsonalen ondorioz (administrazioa, jagotza, atezaintza edota antzekoak) ordaintzen dituzten kopuruak.

d) Errentamendua, azpierrentamendua edo eskubideen lagapena edo eraketa formalizatzeko egiten diren gastuak, eta ondasun, eskubide edo etekinen inguruko defentsa juridikoaren ziozkoak.

e) Artapen eta konponketako gastuak. Horri dagokionez, horrelakotzat hartuko dira:

- Aldian-aldian egiten direnak ondasun materialen erabilera arrunta zaintzeko, hala nola, instalazioak margotzea, entokatzea eta konpontzea.

- Elementu batzuk (berokuntzako instalazioak, igogailua, segurtasun ateak eta beste batzuk) ordezteko egiten direnak.

Kontzeptu horren zioz ez dira kenduko ondasunak zabaldu edota hobetzeko erabiltzen diren kopuruak.

f) Etekinen iturri diren ondasun edo eskubideen gaineko aseguru kontratuen primen zenbatekoa (asegurua erantzukizun zibilekoa, sute asegurua, lapurreta asegurua, beira apurketakoa zein antzeko besteren bat izan daiteke).

g) Zerbitzu edo horniduretarako kopuruak.

h) Amortizazioetarako erabiltzen diren kopuruak, hurrengo artikuluan ezarriko diren baldintzetan.

**37. artikulua. Ondasun higiezinen amortizazio gastuak.**

**1.** Zergaren Foru Arauaren 32.2 artikuluak araututako kasuetan, higiezinen kapitalaren etekin garbiaren zehaztapenean gastu kengarri izango dira higiezina eta berarekin batera lagatako gainerako ondasunak amortizatzeko erabilitako kopuruak, baldin eta ondasunaren berezko baliogalerari ez badagozkio.

**2.** Amortizazioek eragingarritasun betekizuna betetzen dute, baldin eta:

a) (11) Higiezinei dagokienez, urtean ordaindutako eskuraketa kostuaren ehuneko 3 baino gehiago ez badira, lurzoruaren kostua zenbatu gabe.

Lurzoruaren balioa zenbatekoa den jakin ezean, honela kalkulatu behar da: ordaindutako eskuraketa-prezioa lurzoruaren eta eraikuntzaren eskuraketa-urteko katastro-balioen artean laindu behar da.

b) Higiezinarekin batera lagatako ondasun higigarriei dagokienez (urtebete baino aldi luzeagoan erabili ahal badira): urteko kopurua ez bada ordaindutako eskuraketa kostuari Sozietateen gaineko Zergaren arautegian aipatutako gehieneko amortizazio aldiaren ondoriozko gutxieneko koefizienteak aplikatzearen emaitzako kopurua baino gutxiago.

**3.** Ondasunak erabiltzeko edo gozatzeko eskubideen edo ahalmenen titulartasunaren ondoriozko etekinen kasuan, ordaindutako eskuraketa kostua amortiza daiteke.

Honelakoetan, amortiza daitekeen kopurua kalkulatzeko erregela hauek aplikatu behar dira:

a) Eskubideak edo ahalmenak indarraldi jakina badauka, haren eskuraketa kostuaren eta indarraldiko urteen kopuruaren arteko zatiketa egin behar da.

b) Eskubidea edo ahalmena bizi artekoa bada, amortizazioaren zenbatekoa ordaindutako eskuraketa kostuaren ehuneko 3 izango da.

**4.** Egiten diren amortizazio guztien batura inolaz ere ezin da izan ondasun edo eskubideagatik ordaindutako eskuraketa balioa baino gehiago.

**38. artikulua. Denboran zehar modu nabarmen irregularrean lortutako higiezinen kapitalaren etekinak, Zergaren Foru Arauaren 32.2 artikuluan aipatzen direnak, zatika hartutako etekinak eta sorrera aldiaren zehaztapena.**

**1.** Zergaren Foru Arauaren 30.3 artikuluaren lehen lerroaldean ezarritako ehuneko 50eko integrazio portzentajea aplikatzeko, denboran zehar modu nabarmen irregularrean lortutako higiezinen kapitalaren etekintzat ondoren adieraziko direnak soilik hartuko dira, zergaldi bakarrean egotziz gero:

a) Negozio lokalen errentamendu kontratua eskualdatuta edo lagata lortutakoak.

b) Errentariak, azpierrentariak edo lagapen-hartzaileak higiezinean egindako gaitz-kalteengatik emandako kalte-ordainak.

**2.** Zergaren Foru Arauaren 32.2 artikuluan aipatutako higiezinen kapitalaren etekinen sorrera aldia bi urte baino luzeagoa izan bada eta etekinok zatika hartzen badira, Zergaren Foru Arauaren 30. artikuluaren 3. paragrafoaren lehenengo lerroaldean ezarritako integrazio portzentajea aplikatuko da: sorrera aldiko urteen (datatik datara) eta zatikapenak hartzen dituen zergaldien kopuruaren arteko zatiketaren emaitza bi baino gehiago bada, ehuneko 60; bost baino gehiago bada, ehuneko 50.

**3.** Sorrera aldi bi urte baino luzeagoa izan dela egiaztatu arren, epealdia zehazterik ez badago, hiru urtekoa izan dela pentsatuko da.

**4.** Etekin garbiaren zenbatekoak, hala dagokionean, ehuneko 100dik beherako integrazio portzentajeak aplikagarri izango dituenak, ezin izango du urtean 300.000 euro baino gehiago egin. Zenbateko horretatik gorakoa ehuneko 100ean integratuko da.

Ehuneko 100 baino gutxiagoko integrazio portzentaje desberdinak aplikagarri dituzten etekinak jaso direnean, aurreko lerroaldean xedatutako 300.000 euroen muga konputatzeko, kontuan hartuko dira integrazio portzentaje txikiagoa aplikagarri dutenak.

Jaso beharrekoa zatika jaso behar bada eta artikulu honen 2. paragrafoan aipatzen den 300.000 euroko muga aplikatzea zilegi bada, muga hori proportzionalki banatuko da zatikapen ekitaldi bakoitzean jaso beharreko zenbatekoen arabera.

## Bigarren atala
## Kapital higikorraren etekinak

**38 bis artikulua. (13) Besteren kapitalak, dohainik lortutakoak, hirugarrenei lagata lortutako kapital higigarriaren etekinak.**

**1.** Zergadun baten heriotza dela eta, Zergaren Foru Arauaren 35. artikuluan adierazten diren besteren kapitalaren erakarketa eta erabilera adierazten dituzten aktiboak kosturik gabe eskualdatzen direnean ez da sortzen kapital higigarriaren etekinik, eta ez da kapital higigarriaren etekin negatiborik konputatuko kostu gabeko "inter vivos" eskualdaketaren ondorioz.

**2.** Aurreko idatz zatian xedatutakoa aplikatuko da kostu gabeko eskualdaketa egiten denean komisarioak testamentu ahalordea, gozamen ahalduna edo eraginkortasuna unean bertan duen edozein oinordetza titulu erabiltzearen ondorioz. Hori dela eta, oinordetza tituluak zein diren Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 7. artikuluan ezarri da.

**3.** Aurreko apartatuan aipatu diren kostu gabeko eskualdaketetan, alegia, eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza tituluen bidezko kostu gabeko eskualdaketetan, besteren kapitalak erakarri eta erabiltzeaordezkatzen duten aktiboen eskuratzaileari dagokionez, eskuraketa balioa, hurrengo eskualdaketetarako, eskualdatzaileak aktibo horiek eskuratzaileari ematean duten balioa izango da, eskuratzaileak aktiboak eskualdatzailea hil aurretik eskualdatu ezean. Izan ere, hala gertatzen bada, eskuratzaileaeskualdatzailearen lekuan subrogatuko da aktibo horien eskuraketa balio eta datei dagokienez, eta azken horrek eraginkortasuna unean bertan duen oinordetza itunaren aurretik zituen balio eta datak atxikiko ditu.

Aktiboen amortizazioa edo mugaeguneratzea dela eta, beraiek eskualdatzailea hil aurretik eskualdatzen direnean ere, aurreko lerroaldean xedatutakoa aplikatu behar da.

**39. artikulua. Aseguru kontratuetako kopuruaren zati bat erabiltzea.**

Aseguru kontratu bateko kopuruaren zati bat erabiliz gero, higigarrien kapitalaren etekina kalkulatzeko, berreskuratutako kopurua ordaindutako lehenengo primei dagokiela pentsatuko da, errentagarritasuna barne dela.

**40. artikulua. Geroratutako errentak eratu arte lortutako errentagarritasunaren zerga-ordainketa.**

Zergaren Foru Arauaren 36.1.d) artikuluaren lehenengo lerroaldean ezarritakoaren ondorioetarako, geroratutako errentak eratu arte lortutako errentagarritasuna erregela hauen arabera kargatuko da:

1. Errentagarritasuna eratutako errentaren egungo finantza-aktuario balioaren eta ordaindutako primen arteko diferentzia da.

2. Errentagarritasuna bizi arteko errenta kobratzen den lehenbiziko 10 urteetan zehar banatuko da linealki. Eratutako errenta aldi baterako bada, aldi horretako urteen artean banatuko da linealki (10 urtetan gehienez).

**41. artikulua. Erretiro eta baliaezintasun prestazioak errenta gisa ematen dituzten aseguru kontratu batzuei eskatzen zaizkien betekizunak (Zergaren Foru Arauaren 36.1.d artikuluaren bigarren lerroaldea).**

Zergaren Foru Arauaren 36.1.d) artikuluaren bigarren lerroaldean ezarritakoa aplikatzeko betekizun hauek bete behar dira:

1. Azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Pentsio plan eta funtsei buruzko Legearen Testu Bateratuaren 8.6 artikuluan ezarritako kontingentziak estali behar dira, prestazio hauetarako ezarritakoarekin bat etorriz.

2. Aseguru kontratu baten horniduretan mobilizazioren bat gertatu dela pentsatuko da azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Pentsio plan eta funtsei buruzko Legearen Testu Bateratuaren lehenengo xedapen gehigarrian ekonomiaren arloko eskubideez ezarritako mugak betetzen ez badira eta hura garatu duen araudian enpresen pentsio konpromisoak gauzatzen dituzten taldeko aseguruez ezarritakoak betetzen ez badira.

**42. artikulua. Higigarrien kapitalaren etekin batzuetatik ken daitezkeen gastuak.**

**1.** Laguntza teknikoa emanez eta ondasun higigarriak, negozioak edo meategiak (Zergaren Foru Arauaren 39.2 artikulua) errentan edo azpierrentan emanez lortzen diren etekin garbien zehaztapenean gastu kengarri izango dira araudi honetako 36. eta 37. artikuluetan ezarritakoak, bai eta zalantzazko kobrantzako saldoak ere, baldin eta inguruabar hori behar bezala frogatzen bada.

Nolanahi ere, aurreko lerroaldean aipatutako negozio juridiko bakoitzerako, gastu kengarrien baturak ezingo du sortu etekin garbi negatiboa.

Zalantzazko kobrantzako saldoak behar bezala arrazoituta egongo dira:

- Zorduna konkurtsoan egonez gero.

- Kobrantza egiteko zergadunak egin duen lehenengo kudeaketatik eta zergaldia amaitu arte sei hilabete baino gehiago igaro badira eta kreditua berriztatzen ez bada.

Zalantzazko saldoa kenkaria egin eta gero kobratzen bada, sarrera gisa zenbatuko da kobrantza egiten den ekitaldian.

**2.** (11) Hala ere, hiri errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legeko 2. artikuluak aipatutako etxebizitzen gaineko azpierrentatik eratorritako errentamenduak direnean, errentamendu garbia lortzeko kengarriak izango dira azpierrentatzaileak errentamendu kontzeptuan ordaindutako zenbatekoak, azpialokatutako elementuaren zati proportzionalean eta, horrez gain, azpialokatutako higiezin bakoitzeko lortutako etekin guztien eta gastu kengarri gisa zenba daitekeen zenbatekoaren arteko aldeari ehuneko 20ko hobaria aplikatuko zaio.

**43. artikulua. Denboran zehar modu nabarmen irregularrean lortutako higigarrien kapitalaren etekinak, Zergaren Foru Arauaren 39. artikuluan aipatzen direnak, zatika hartutako etekinak eta sorrera aldiaren zehaztapena.**

**1.** Zergaren Foru Arauaren 39.3 artikuluaren lehen lerroaldean ezarritako ehuneko 50eko integrazio portzentajea aplikatzeko, denboran zehar modu nabarmen irregularrean lortutako higigarrien kapitalaren etekintzat ondoren adieraziko direnak soilik hartuko dira, zergaldi bakarrean egotziz gero:

- Errentamendu kontratua eskualdatuta edo lagata lortutako zenbatekoak.

- Errentamenduetan, gaitz edo kalteengatik errentariaren edo azpierrentariaren eskutik jasotzen diren kalte-ordainak.

**2.** Higigarrien kapitalaren etekinen sorrera aldia bi urte baino luzeagoa izan bada eta etekinok zatika hartzen badira, Zergaren Foru Arauaren 39. artikuluaren 3. paragrafoaren lehenengo lerroaldean ezarritako integrazio portzentajea aplikatuko da: sorrera aldiko urteen (datatik datara) eta zatikapenak hartzen dituen zergaldien kopuruaren arteko zatiketaren emaitza bi baino gehiago bada, ehuneko 60; bost baino gehiago bada, ehuneko 50.

**3.** Sorrera aldia bi urte baino luzeagoa izan dela egiaztatu arren, epealdia zenbatekoa izan den zehazterik ez dagoenean, hiru urtekoa izan dela pentsatuko da.

**4.** Etekin garbiaren zenbatekoak, hala dagokionean, ehuneko 100dik beherako integrazio portzentajeak aplikagarri izango dituenak, ezin izango du urtean 300.000 euro baino gehiago egin. Zenbateko horretatik gorakoa ehuneko 100ean integratuko da.

Ehuneko 100 baino gutxiagoko integrazio portzentaje desberdinak aplikagarri dituzten etekinak jaso direnean, aurreko lerroaldean xedatutako 300.000 euroen muga konputatzeko, kontuan hartuko dira integrazio portzentaje txikiagoa aplikagarri dutenak.

Jaso beharrekoa zatika jaso behar bada eta artikulu honen 2. paragrafoan aipatzen den 300.000 euroko muga aplikatzea zilegi bada, muga hori proportzionalki banatuko da zatikapen ekitaldi bakoitzean jaso beharreko zenbatekoen arabera.

## IV. KAPITULUA
## ONDARE IRABAZIAK ETA GALERAK

**44. artikulua. Eskuraketa balioaren zehaztapena.**

**1.** Ondare elementuak eskualdatzen direnean, beraien eskuraketa baliotik zerga-ordainketan ken daitezkeen amortizazioen zenbatekoa kenduko da, bidezkoa izanez gero. Horrelako kasuetan gutxieneko amortizazioa konputatuko da beti, gastutzat jotzen denen ala ez kontuan hartu gabe.

Horren ondorioetarako, gutxieneko amortizazioa kopuru hau izango da: ondare elementuari sozietateen gaineko zergari buruzko araudian aipatutako gehieneko

epealdiari dagokion ehunekoa (edo ehuneko finkoa, kasuan kasukoa) aplikatzearen emaitzako kopurua.

**2.** Ondare elementu bat Zergaren Foru Arauaren 26. artikuluan aipatzen den jaregitea gertatu eta gero eskualdatzen bada, haren eskuraketa balioa jaregitea gertatu den egunari dagokion koefizientea aplikatuz eguneratuko da.

**3.** Ondare galerak edo irabaziak Zergaren Foru Arauaren 47. artikuluan ezarritako arau bereziak aplikatuz zehazten badira, eskuraketa balioa kalkulatzeko kontuan hartu behar diren zenbateko positibo eta negatiboak gertatzen diren urteei dagozkien eguneratze koefizienteak aplikatuko dira, foru arau horren 45. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

**(11) 45. artikulua. Negoziatzeko onartutako baloreek sortutako ondare-irabaziak zergapetzeko aukerako araubidea.**

Zergaren Foru Arauaren hogeigarren xedapen gehigarriak aipatzen duen karga berezia aplikatzeko, eskualdaketa balio izango da foru arau horren 47.1.a) artikuluan xedatutakoa aplikatzearen ondorio den emaitza.

Zerga berezia aplikatzea hautatzen bada, zergadunak zergaldi batean egin dituen 47.1.a) artikuluko balioen kostu bidezko eskualdaketa guztiei aplikatuko zaie.

**46. artikulua. Ohiko etxebizitzan berrinbertitzeagatiko salbuespena.**

**1.** Zergadunaren ohiko etxebizitza eskualdatuta lortutako ondare irabaziak kargatik salbu utz daitezke eskualdaketaren bidez lortutako zenbateko osoa beste ohiko etxebizitza bat erosteko berrinbertituz gero, artikulu honetan ezarritakoa beteta. Eskualdatutako etxebizitza eskuratzeko zergadunak besteren kapitala erabili badu, ondorio hauetarako bakarrik, lortutako guztirako zenbatekotzat joko da eskualdatzean amortizatzeke dagoen maileguaren tronkoari eskualdaketa balioa kentzearen emaitza.

Horri dagokionez, etxebizitzaren eskuraketarekin berdinesten da haren birgaikuntza, Zergaren Foru Arauaren 87.6 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Etxebizitza ohikotzat hartzeko, Zergaren Foru Arauaren 87.8 artikuluan eta araudi honen 61. artikuluan xedatutakoa hartuko da aintzat.

**2.** Etxebizitza besterenduta lortutako zenbateko osoa dena batera berrinbertitu behar da, edo segidan eskualdaketatik bi urte igaro baino lehen.

Berrinbertsioa epe barruan egintzat joko da, baldin eta salmenta epeka edo prezio atzeratuarekin egin bada eta epeetako zenbatekoak jasotzen diren zergaldietan adierazitako helbururako erabiltzen badira.

Baldin eta, aurreko paragrafoetan xedatutakoaren arabera, berrinbertsioa besterentzea gertatu den urte berean egiten ez bada, zergadunak ondare irabazia lortzen duen ekitaldiko autolikidazioan adierazi behar du ezarritako baldintzekin eta epean berrinbertitzeko asmoa daukala.

Halaber, berrinbertsioagatiko salbuespena aplika dakieke etxebizitza besterenduta lortutako kopuruei aurreko bi urteetan erositako ohiko etxebizitza ordaintzeko erabiltzen badira.

**3.** Berrinbertsioaren zenbatekoa besterentzean lortutakoa baino txikiagoa bada, kargatik ondarearen irabaziaren zati bat bakarrik salbuetsiko da, hain zuzen ere artikulu honetako baldintzetan benetan inbertitutako kopuruari dagokiona.

**4.** Artikulu honetan ezarritako baldintzetako bat betetzen ez bada, lortutako ondare irabazia kargapean jarriko da.

Hori gertatzen bada, zergadunak ondare irabazia lortu duen urtean salbuetsita ez dagoen zatia egotziko du eta autolikidazio osagarria egingo du, bidezko berandutze korrituak sartuta. Autolikidazio osagarri hau baldintzak betetzen ez direnetik ez-betetzea gertatzen den zergaldiko autolikidazioa aurkezteko arauzko epealdia amaitu arte aurkez daiteke.

**(11) 46 bis artikulua. Salbuespena 65 urtetik gorako zergadunek euren alde ziurtatutako biziarteko errenta diren ondare elementuen eskualdaketan.**

1. Zergaren Foru Arauaren 42. artikuluko f) letran xedatutakoaren ondorioetarako, salbuetsita geratuko dira 65 urtetik gorako zergadunek ondare elementuak eskualdatzean agertzen diren ondare irabaziak, eskualdaketaren bidez eskuratutako zenbateko osoa haien alde ziurtatutako biziarteko errenta bat eratzeko erabiltzen bada, artikulu honetan ezarritako baldintzetan.

2. Biziarteko errenta sei hilabeteko epean eratu beharko da, ondare elementuaren transmisio datatik.

Hala ere, ondare irabazia atxikipenaren mende badago eta atxikipeneko zenbatekoan murriztutako transmisio balio osoa aipatutako sei hileko epean biziarteko errenta eratzera bideratzen bada, atxikipeneko zenbatekoa biziarteko errenta eratzera bideratzeko epea luzatu egiten da, harik eta transmisioa egin den ekitaldiaren hurrengoa amaitu arte.

3. Salbuespena aplikatzeko baldintza hauek ere bete beharko dira:

a) Biziarteko errentaren kontratua zergadunak (onuraduna izango da) eta entitate aseguratzaile batek sinatu beharko dute.

Bizi arteko errenta kontratuetan errenta eratu ondoren kontratatzailea hilez gero zer egin behar den ezar daiteke: errenta berreskuratzeko mekanismoak, prestazioaldiak edo kontraseguru formulak.

b) Biziarteko errentak urtebeteko edo gutxiagoko periodikotasuna izan beharko du, eratzen denetik urtebeteko epean hasi beharko da jasotzen, eta errenten urteko zenbatekoa ezingo da ehuneko 5 baino gehiago murriztu aurreko urtearekin alderatuta.

c) Zergadunak entitate aseguratzaileari jakinarazi beharko dio kontratatzen den biziarteko errentak ondare elementuen transmisioan lortutako zenbatekoaren

berrinbertsioa eratzen duela, artikulu honetan aurreikusitako salbuespena aplikatze aldera.

4. Biziarteko errentak eratzeko berrinbertitzean salbuespena aplikatzeko eskubidea emango duen gehienezko zenbatekoa guztira 240.000 eurokoa izango da.

Berrinbertitutako zenbatekoa txikiagoa bada besterentzean jasotako zenbateko osoa baino, lortutako ondare-irabazian berrinbertitutako zenbatekoari dagokion zati proportzionala baino ez da utziko zergapetu gabe.

Transmisioaren zenbatekoa biziarteko errenta batean berrinbertitzearen ondorioz 240.000 euroko kopurua gainditzen bada, aurreko berrinbertsioak aintzat hartuta, soilik 240.000 eta aurreko berrinbertsioen zenbatekoaren arteko aldea hartuko da berrinbertsio gisa.

Artikulu honetan xedatutakoaren arabera, berrinbertsioa ez bada egiten besterentzea egiten den urte berean, zergadunak ondare-irabazia lortzen duen ekitaldiko autolikidazioan adierazi beharko du berrinbertsioa aurretik adierazitako baldintza eta epeetan egiteko asmoa daukala.

5. Artikulu honetan ezarritako edozein baldintza ez bada betetzen, edo eratutako biziarteko errentatik eratorritako eskubide ekonomikoak erabat edo partzialki aurreratuz gero, kasuan kasuko ondare irabazien tasaren mende egotea eragingo du.

Hori gertatzen bada, zergadunak salbuetsita ez dagoen ondare-irabazia irabazi hori lortu duen urteari egotziko eta autolikidazio osagarria egingo du; autolikidazio osagarri horretan bidezko berandutza-korrituak sartuko ditu.

Autolikidazio osagarri hau baldintzak betetzen ez direnetik ez-betetzea gertatzen den zergaldiko autolikidazioa aurkezteko arauzko epealdia amaitu arte aurkez daiteke.

**47. artikulua. Talde inbertsioko erakundeen bazkideen kopurua, ondarea eta gehieneko partaidetza portzentajea.**

**1.** Zergaren Foru Arauaren 48. artikuluaren arabera sozietate gisa eratutako talde inbertsioko erakundeek eduki behar duten gutxieneko akziodunen kopurua honela zehaztuko da:

a) Azaroaren 4ko 35/2003 Legeak, talde inbertsioko erakundeei buruzkoak, araupetutako talde inbertsioko erakundeetan (Zergaren Foru Arauaren 48.1. artikulua), eskualdaketa edo itzulketaren aurretik erakundeak, 1082/2012 Errege Dekretuak onartutako Azaroaren 4ko 35/2003 Legearen, talde inbertsioko erakundeei buruzkoaren, 27. artikuluan xedatutakoa betetzeko, Balore Merkatuko Komisio Nazionalari bidalitako azken hiruhilekoko txostenean ageri diren akziodunen kopurua.

b) Zergaren Foru Arauaren 48.2. artikuluan aipatutako talde inbertsioko erakundeetan, eskualdaketa edo itzulketaren aurretik talde inbertsioko erakundeak edo haren gestorak izendatutako merkaturatze erakunde bakarrak, Espainian egoitza duenak, atal edo azpifunts bakoitzari buruz Balore Merkatuko Komisio Nazionalari bidalitako azken urteko berriematean ageri diren akziodunen kopurua.

Aurrekoaren ondorioetarako eta hurrengo paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, berriemate horretan atal edo azpifunts bakoitzeko akziodun guztien kopurua agertuko da, bai eta erakundearen guztirako ondarea, atala edo azpifuntsa ere, eta datuok zein egunetakoak diren argitu. Gehienez ere urtebete egongo da indarrean egun horretatik aurrera.

Balore Merkatuko Komisio Nazionalak jendaurrean edukiko du informazioa eta idatz zati honetan adierazitako betekizun teknikoak eta prozedurak eskatuko ditu.

**2.** Sozietate gisako talde inbertsioko erakundeek esku hartzen duten eragiketetarako Zergaren Foru Arauaren 48. artikuluan ezarritako gerorapenaren araubideari heldu nahi dioten zergadunek, eragiketa agintzen duten unean, agiri bidez adierazi behar diete eskualdaketa, itzulketa, eskuraketa edo harpidetza eragiketetan bitartekari lanak egiten dituzten erakundeei aurreko hamabi hiletan ez dutela izan talde inbertsioko erakundearen kapitalaren ehuneko 5etik gora partaidetzarik. Erakunde horiek zergadunek emandako agiriak Zerga Administrazioaren eskueran eduki behar dituzte preskribatu arte.

## V. KAPITULUA
## BALORE EDO PARTAIDETZA HOMOGENEOAK

### 48. artikulua. Balore edo partaidetza homogeneoak: zer diren.

Zerga honen ondorioetarako ez beste ezertarako, balore edo partaidetza homogeneoak dira jaulkitzaile batek finantza eragiketa berean edo helburu berarekin ematen dituenak, are finantzaketa lortze sistematikoa ere, baldin eta izaera eta eskualdaketa araubide berekoak badira eta titularrei funtsean eskubide eta betebehar berak ematen badizkiete.

Hala ere, balore multzo baten homogeneotasunean ez dauka inolako eraginik baloreen artean diferentziak egoteak aleko zenbatekoetan, zirkulazioan jarri, emate materiala gertatu edo prezioa finkatu den egunean, kolokatzeko prozeduretan (inbertsio kategoria jakinetarako tarteak edo blokeak barne) zein gainerako zeinahi alderditan. Bereziki, jaulkipena zenbait epealditan zatikatzeak ez du baloreen homogeneotasuna aldatzen, ez eta zabalkuntzak ere.

## VI. KAPITULUA
## ALDI BATERAKO EGOZKETA

### 49. artikulua. Etekinen aldi baterako egoztea.

**1.** Jarduera ekonomikoren bat egiten duten zergadunek jarduera horiek sortutako errenten aldi baterako egozketarako Sozietateen gaineko zergari buruzko Foru Arauan eta hura garatu duten arauetan horretaz ezarritako irizpideak soilik aplikatu behar dizkiete, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Arauan ezarritako espezialitateak eta hurrengo paragrafoan ezarritakoa gorabehera. Halaber, egotzi gabeko errentei Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Arauaren 57. artikuluaren 3. eta 4. paragrafoetan ezarritakoa aplikatuko zaie, haietan azaldutako kasuetan.

**2.** 1. Jarduera ekonomikoren bat egiten duen zergadun batek bere etekin garbia zehazteko zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztua erabiltzen badu, jarduera horren sarrera eta gastuen aldi baterako egozketarako kobrantza eta ordainketen irizpidea aplikatzea hauta dezake, Zergaren Foru Arauaren 59.2.d) artikuluan aipatutako betekizunak betez gero.

Irizpide hori Zerga Administrazioak onartutzat joko da autolikidazioan hautatu dela adieraziz gero, besterik gabe. Ondoren, hurrengo hiru urteetan aplikatuko da, gutxienez.

2. Idatz zati honetan azaldutako hautapena bertan behera geratuko da zergadunak noizbait bere etekin garbia zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate arruntaren bitartez zehaztu behar badu.

**3.** Egile eskubideen ustiapenaren lagapenaren ondoriozko etekinak hainbat urtetan sortzen badira, zergadunak eskubideak sortu ahala egotzi ahal izango du etekinen konturako aurrerapena.

**4.** Aldi baterako egozketarako irizpidea edo etekin garbia zehazteko metodoa aldatzeak ez du inolaz ere ekarriko gastu edo sarreraren bat konputatu gabe geratzea, ez beste ekitaldi batean berriz egoztea. Egozketarako irizpidea aldatu aurretik bidezko erregularizazioa egingo da.

**5.** (29) Zergadun batek zergadun izateari uzten badio egoitza atzerrira aldatzeagatik, zergaren foru arauaren 57. artikuluko 3. apartatuan jasotakoarekin bat etorriz, egotzi gabeko errenta guztiak aitortu beharreko azken zergaldiari dagokion zerga oinarrian integratu behar dira eta, bidezkoa izanez gero, autolikidazio osagarria egin behar da egoitza aldatzeagatik zergadun izateari uzten dionetik hiru hilabete igaro baino lehen, zehapenik, berandutze korriturik eta errekargurik gabe.

Hori guztia zergaren foru arauaren 57. artikuluko 3. apartatuaren bigarren paragrafoan xedatutako kasuetan ezarritako aukeraz baliatzearen kaltetan izan gabe.

## VII. KAPITULUA
## GAUZAZKO ERRENTAK

### 50. artikulua. Enpresa jantokien gastuak, gauzazko ordainsari ez direnak.

**1.** Zergaren Foru Arauaren 17.2.a) artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, enplegatuei enpresa jantokietan prezio beheratuetan egindako ematetzat hartuko dira halako zerbitzuak zuzenean edo zeharka egiteko erabiltzen diren formulak, lan legeriarekin bat datozenak, hauek betez gero:

1. Zerbitzua langileen egun baliodunetan egingo da.

2. Zerbitzua ez da egin behar langileek araudi honen 13. artikuluan ezarritakoaren arabera salbuetsitako mantenu sariak jasotzen dituzten egunetan.

**2.** Zerbitzua zeharkako formulen bitartez egiten bada, aurreko paragrafoko betekizunak ez ezik hauek ere beteko dira:

1. (29) Zeharkako formularen zenbatekoa ezin da izan 11 euro egunean baino gehiago. Eguneko zenbatekoa hori baino gehiago bada, soberakina gauzazko ordainsari izango da. foru aldundiak zenbatekoa alda dezake.

2. Zerbitzua janari baleen edo antzeko agirien, txartelen edo ordaintzeko bitarteko elektronikoren baten bitartez egiten bada, hauek beteko dira:

   a) Bitartekoak zenbakidunak izango dira, izenarekin emango dira eta zein enpresak ematen dituen azalduko da. Paperezkoetan, zenbateko izendatua ere agertuko da.

   b) Ezin dira eskualdatu, eta erabiltzen ez diren zenbatekoak ezin dira metatu.

   c) Ez enpresak, ez hirugarren batek ez du emango zenbatekoa.

   d) Ostalaritzako establezimenduetan bakarrik erabiltzeko izango dira.

   e) Enpresak langileei emandako guztien zerrenda prestatu eta gordeko du, datu hauekin:

   - Janari baleen eta antzeko agirien kasuan, agiriaren zenbakia, eman den eguna eta zenbateko izendatua.

   - Txartelen eta ordaintzeko bitarteko elektronikoen kasuan, agiriaren zenbakia eta eguneko zenbatekoa (egunak zehaztu behar dira).

**51. artikulua. Langileen seme-alaben haur hezkuntzako lehen ziklorako diru kopuruak.**

Zergaren Foru Arauaren 17.2.b) artikuluan langileen gizarte eta kulturaren arloko zerbitzuetarako erabilitako ondasunei buruz ezarritako zeharkako formulak aplikatzeko, urteko 1.000 eurotik beherako kopuruak ez dira gauzazko ordainsaritzat hartuko.

**52. artikulua. (29) Langileak eguneratzeko, gaitzeko eta birziklatzeko kopuruak.**

Zergaren foru arauaren 17. artikuluko 2. apartatuaren c) letran ezarritakoari dagokionez, ikasketak ez dira gauzazko ordainsaritzat hartuko, baldin eta ikasketok xedatzen badituzte pertsona edo erakunde enplegatzaileek, eta haiek zuzenean edo zeharka finantzatzen badituzte, langileak eguneratu, gaitu edota birziklatzeko. Horrezaz gain, ikasketok nahitaezkoak izango dira jarduerak egiteko edo lanpostuen ezaugarriengatik, eta hori hala izango da lana benetan beste pertsona edo erakunde espezializatu batzuek egiten badute ere. Kasu horietan, joan-etorri, mantenu eta egonaldi gastuetarako kopuruei dagokienez arautegi honen 13. artikuluan xedatutakoa izango da aginduzkoa.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, ulertuko da ikasketak pertsona edo erakunde enplegatzaileak xedatu eta zeharka finantzatu dituela, baldin eta beste pertsona edo erakunde batzuekfinantzatzen badituzte eta haiek produktu jakin batzukmerkaturatzen badituzte, eta hartarako beharrezkoa bada langileak prestakuntza egokia izatea, eta, betiere pertsona edo erakunde enplegatzaileakpartaidetza hori baimentzen badu.

**53. artikulua. Sozietate fundatzaileen edo sustatzaileen eskubideak.**

Sozietateen fundatzaileek edo sustatzaileek beren zerbitzuen ordainsari gisa beren buruarentzat gordetzen dituzten eskubide ekonomiko bereziak, beraien funtsa erakundearen mozkinen gaineko ehuneko jakin bat atxikitzea denean, haien balioa hauxe izango da gutxienez: eskubideek ematen duten sozietatearen kapitalaren partaidetza bera edukitzeko behar den kopuruaren ehuneko 35.

**54. artikulua. Langileak teknologia berrietara ohitzeko kopuruak.**

Zergaren Foru Arauaren 17.2.d) artikuluan ezarritakoari dagokionez, ez dira gauzazko ordainsaritzat hartuko enplegatzaileek langileak teknologia berrietara ohitzeko erabiltzen dituzten kopuruak. Kopuru horien artean hauek aipa daitezke: langileei Interneteko konexioa emateko edo finantzatzeko erabiltzen direnak; Internetera konektatzeko behar diren ekipoak eta terminalak (beharreko softwarearekin eta periferikoekin) doan edo prezio beheratuetan emateko erabiltzen direnak; haiek erosteko maileguak eta laguntza ekonomikoak. Ez da kontuan edukiko enplegatuek tresna hauek guztiak lantokitik eta lan ordutegitik kanpo erabiltzea.

**55. artikulua. Heriotza eta elbarritasuneko arrisku garbiko talde aseguruen primak.**

Zergaren Foru Arauaren 17.2.f) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, hitzarmen, talde akordio edo antzeko xedapen baten bitartez kontratatzen diren heriotza eta elbarritasuneko arrisku garbiko talde aseguruen primak ez dira gauzazko ordainsaritzat hartuko.

## VIII. KAPITULUA
## ERRENTAK ERATXIKITZEA (13)

**55. bis artikulua. Errentak eratxikitzeko araubidean ez dauden erakundeak.**

**1.** Testamentu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahalduna baliatzearen zain dauden jaraunspenei inolaz ere ezin zaie aplikatu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 11. artikuluan ezarritako etekinen eratxikipenaren araubidea.

**2.** Errenten eratxikipenaren araubidea ezin zaie aplikatu testamentu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahalduna baliatzearen zain dauden jaraunspenen etekinei, ondareko irabazi eta galerei eta errenta egozketei; horiek Zergaren Foru Arauaren 12. artikuluko 6. idatz zatian eta Foru Dekretu honetan ezarritakoaren arabera zergapetuko dira.

**55ter. artikulua. Testamentu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahalduna baliatzearen zain dauden jaraunspenen etekinak, ondareko irabazi eta galerak eta errenta egozketak.**

**1.** Testamentu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahalduna baliatzearen zain dauden jaraunspenen etekinak, ondare irabaziak eta galerak eta errenta egozketak jaraunspeneko ondasunen gozamendunei eratxikiko zaizkie, beraien jatorriaren edo iturburuaren arabera, baldin eta, kausatzaileak berak aginduta edo Euskal Zuzenbide

Zibileko legeria aplikatuta, ondasunen eta eskubideen gainean pertsona jakin batentzako edo batzuentzako gozamen eskubidea ezarri bada.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, Zergaren Foru Arauaren 35. artikuluan aipatzen diren kapital higigarriaren etekinak eta ondasunak edo eskubideak eskualdatzearen ondorioz eskuratutako ondare irabaziak eta ondare galerak, baldin eta testamentu ahalordea edo gozamen ahalduna baliatzearen zain dauden jaraunspenen baitako besteren kapitalen erakarpena eta erabilera ordezten dituzten aktiboak eskualdatuz lortzen badira, eta eskualdaketa horrek ez badakar Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren sortzapenik, jaraunspenari berari eratxikiko zaizkio, eta Zergaren Foru Arauaren hogeita hamargarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera zergapetuko dira.

Zergaren Foru Arauaren 12. artikuluko 3. idatz zatian xedatutakoa eragotzi gabe, jarduera ekonomikoen etekinak izaera horrekin egotziko zaizkio gozamendunari, jarduerari atxikitako ekoizbideen eta giza baliabideen norberaren konturako antolamenduan zuzenean, pertsonalki eta maiztasunarekin parte hartu zein ez.

**2.** Gozamen eskubiderik ezarrita ez duten ondasun edo eskubideen ondoriozko errenten egozketak eta ondare irabazi eta galerak eta etekinak jaraunspenean bertan eratxikiko dira, eta Zergaren Foru Arauaren hogeita hamargarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera zergapetuko dira.

**3.** Ekainaren 25eko 5/2015 Legeak, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoak, 140. artikuluan ezarritako ezkontza ondoko erkidegoaren errentak, testamentu ahalordea baliatzeko zain daudenak, erdi bana eratxikiko zaizkie ezkontide alargunari eta testamentu ahalordea baliatzearen zain dagoen jaraunspenari, artikulu honen aurreko idatz zatietan ezarritako arauekin bat etorriz.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratutako izatezko bikoteei ere aplikatuko zaie, baldin eta bikoteak hautatutako ondare araubide ekonomikoari Euskal Zuzenbide Zibilaren Legearen manu hori aplikagarri bazaio.

## IV. TITULUA
## LIKIDAZIO OINARRI OROKORRA

### 56. artikulua. Erretiro egoera.

**1.** Zergaren Foru Arauaren 70.5 artikuluan eta 71.3 artikuluan xedatutakoetarako, pertsona bat erretiratuta egongo da bazkide, partaidetzadun, mutualista edo aseguratua erretiratu egiten denean, benetan, Gizarte Segurantzaren edo hura ordezkatzen edo haren alternatiba den araubidean. Horren ondorioetarako, erretiro izaera izango dute onartzen diren erretiro aurreratuak, malguak, partzialak eta beste erretiro baliokide batzuek.

Dena den, bazkideari, partaidetzadunari, mutualistari edo aseguratuari erretiro partziala onartzen bazaie, murriztu egin ahal izango dira zerga oinarritik erretirorako egiten diren ekarpen guztiak.

**2.** Aurreko paragrafoan aipatutako erretirorik bereganatu ezin denean, esan nahiko du Gizarte Aurreikuspeneko Planaren estatutuetan zehaztutako adina betetakoan erretiratu dela, adin hori, gutxienez, 60 urte izango da. Estatutuetan adinik zehazten ez bada, Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean zehaztutako erretirorako ohiko adina betetakoan gertatu dela esan nahiko du.

**3.** Artikulu honetan xedatutakoetarako, zergadun ezinduek erretiratuak izango dira Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean xedatutako erretirorako ohiko adinetik aurrera.

**57. artikulua. Bermatutako aurreikuspen planak.**

**1.** Zergaren Foru Arauaren 70. artikuluaren 1. paragrafoaren b) idatz zatian xedatutakoaren ondorioetarako, aseguru kontratu baten estaldura nagusia erretiroa izango da urte bakoitzean erretirorako eta menpekotasunerako jarritako hornidura matematikoen balioa gutxienez planari ekin zaionetik heriotza edo elbarritasunerako kapitala eratzeko ordaindutako primen batura halako hiru izanez gero.

**2.** Bermatutako aurreikuspen planetako kopuruak pentsio planei buruzko arauetan ezarritako kasuetan soilik baliatu ahal izango dira aldez aurretik.

Aldez aurretik baliatzeko eskubidearen balioa hornidura matematikoaren zenbatekoa izango da; kopuru horri ezin aplikatu izango zaio ez zehapenik, ez gasturik, ez deskonturik.

Hala ere, erakundeak lotutako inbertsiorik badauka, aldez aurretik baliatzeko eskubidearen balioa aktiboen merkatuko balioa izango da.

**3.** Bermatutako aurreikuspen plan baten hartzaileek beren hornidura matematiko osoa edo haren zati bat eraman dezakete hartzaile diren bermatutako beste aurreikuspen plan batera, edo partaide diren banako edo taldeko sistemako pentsio plan batera edo batzuetara. Behin kontingentziara helduz gero, planak bide ematen duenean soilik mugitu ahal izango dituzte kopuruak.

Horretarako, hartzaileak edo onuradunak mugimenduaren xede izango den aseguru edo kudeaketa erakundera jo behar du eta eskaerarekin batera jatorrizko bermatutako aurreikuspen planaren eta jatorrizko aseguru erakundearen identifikazioak aurkeztu, eta, behar izanez gero, mugitu nahi den kopurua zehaztu. Eskaerari jatorrizko aseguru erakundeari transferentzia agintzeko bidalitako berriematea erantsi behar zaio, eta horrez gainera hartzaileak edo onuradunak transferentzia jasoko duen aseguru edo kudeaketa erakundeari baimena eman behar dio jatorrizko erakundeari eska diezaion haren hornidura matematikoa mugitzeko, eta horretarako behar den finantzen eta zergen arloetako informazioa emateko ere bai.

Hornidurak mugitzeko eskaerak bitartekoen bidez edo beste erakunde batzuen merkataritzako sareen bitartez kudeatzea ahalbideratzen duen hitzarmena edo kontratua egonez gero, eskaera hauetako bati aurkeztea aseguru edo kudeaketa erakundeari aurkeztea bezala izango da.

Beharrezko dokumentazio guztia jasotzen duenetik bi egun baliodun igaro baino lehen mugimenduaren xede den aseguru edo kudeaketa erakundeak arauz ezarritako betekizunak betetzen direnez egiaztatu behar du, eta gero mugimenduaren berri eman behar dio jatorrizko aseguru erakundeari, hauek azalduta, gutxienez: mugimenduaren

xede diren bermatutako aurreikuspen plana eta aseguru erakundea, eta transferentzia jasoko duen kontuaren zenbakia, edo, bestela, mugimenduaren xede den pentsio plana, hau atxikita dagoen pentsio funtsa, funts honen kudeaketaz eta gordailutzeaz arduratzen den erakundea, eta transferentzia egin behar den kontuaren datuak.

Eskaera, behar den dokumentazioarekin, jasotzen duenetik bost egun baliodun igaro baino lehen jatorrizko aseguru erakundeak banku transferentzia aginduko du eta hura jasoko duen aseguru edo kudeaketa erakundeari behar den finantzen eta zergen arloetako informazio guztia bidali behar dio.

Transferentzia aseguru erakunde bereko bermatutako aurreikuspen plana edo pentsio plan batera egiten bada, hartzaileak mugitu nahi duen zenbatekoa adierazi behar du eskaeran, beharrezkoa izanez gero, eta transferentzia jasoko duen bermatutako aurreikuspen plana edo pentsio plana (eta hau atxikita dagoen pentsio funtsa) zehaztu behar du. Jatorrizko aseguru erakundeak eskaera aurkezten duenetik hiru egun baliodun igaro baino lehen eman behar du transferentzia agindua.

Hornidura matematikoa balioesteko, transferentzia egiten den eguna hartuko da erreferentziatzat. Hala ere, aseguru kontratuan ezar daiteke balioespenerako transferentziaren aurreko eguna hartu behar dela erreferentziatzat.

Erakundeak lotutako inbertsioak badauzka, mugitu beharreko hornidura matematikoaren balioa aktiboen merkatuko balioa izango da.

Mugitu beharreko kopuruari ezin aplikatu izango zaio ez zehapenik, ez gasturik, ez deskonturik.

Idatz zati honetan aipatutako mugimenduak martxoaren 30eko 439/2007 Errege Dekretuaren 49.3. artikuluaren azken paragrafoan baimendutako sistemaren bitartez egin daitezke. Dekretu horren bidez pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruko araudia onartu da eta otsailaren 20ko 304/2004 Errege Dekretuak onartutako Pentsio Plan eta Funtsen Araudia aldatu da.

Artikulu honen 1. paragrafoan ezarritako betekizuna betetzeko, bermatutako aurreikuspen plan bat bermatutako beste aurreikuspen plan batera edo pentsio plan batera mugituz gero, edo pentsio plan bat bermatutako aurreikuspen plan batera, aseguru kontratu berriaren primak eta hornidura baizik ez dira zenbatuko. Honen ondorioetarako, jatorrizko bermatutako aurreikuspen planean artikulu honen 1. paragrafoan ezarritako betekizuna bete behar da mugimendua egiten den unean.

**58. artikulua. Gizarte aurreikuspeneko sistemen eskubide sendotuak baliatzen direnean autolikidazio osagarria aurkezteko epea.**

Zergaren Foru Arauaren 72.4 eta 72.4 artikuluetan eta bederatzigarren xedapen gehigarriaren 3. paragrafoaren c) idatz zatian eta 4. paragrafoaren azken lerroaldean ezarritakoaren ondorioetarako, eskubideak baliatzen direnetik zergaldiko autolikidazioz aurkezteko arauz ezarritako epea amaitu bitarteko epealdian aurkeztuko dira gizarte aurreikuspeneko sistemetan sendotutako eskubideak aldez aurretik baliatzeagatik zerga oinarrian oker aplikatutako murrizketak berrezartzeko egin beharreko autolikidazio osagarriak.

**59. artikulua. Murrizketarik izan ez eta gizarte aurreikuspeneko sistemetara gehiegiz egindako ekarpenen zerga tratamendua.**

**1.** Borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeetako partaide, mutualista, aseguratu eta bazkideek eskatu ahal izango dute Zergaren Foru Arauaren 71.3 artikuluan, 72.2 artikuluan eta bederatzigarren xedapen gehigarriaren 3. paragrafoaren b) idatz zatiaren arabera zerga oinarritik kendu ez diren ekarpenen zenbatekoa hurrengo bost ekitaldietan kentzea.

**2.** Eskaera pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autolikidazioan egin behar da, hain zuzen ere ekarritako kopuruak zerga oinarritik, mugak gainditzeagatik edo zerga oinarria aski ez izateagatik, ezin kendu izan diren ekitaldikoan.

**3.** Hurrengo bost ekitaldietan, zerga oinarri orokorretik konpentsazio pentsioen eta mantenurako urtekoen zenbatekoa kentzearen emaitzako kopurua positiboa gertatzen den lehen ekitaldian egotziko dira. Egozketa Zergaren Foru Arauaren 71.3 eta 72.2 artikuluetan eta bederatzigarren xedapen gehigarrian ezarritako baldintzei eta mugei lotuta egingo da.

**4.** Gaindikina gertatu den zergaldian, zergadunaren ekarpenak eta sustatzailearen edo bazkide babeslearenak pilatu badira Zergaren Foru Arauan ezarritako mugak gaindituz, murrizketak aplikatuko dira, hurrenkera honi jarraituz:

1) Aurreko ekitaldiko ekarpenak.

2) Aurreko ekitaldiko kontribuzioak.

3) Ekitaldiko kontribuzioak.

4) Ekitaldiko ekarpenak.

## V. TITULUA
## KUOTAKO KENKARIAK

### I. KAPITULUA
### EZINTASUNAREN EDO MENDEKOTASUNAREN KENKARIA

**60. artikulua. Ezintasun edo mendetasun gradua egiaztatzea.**

**1.** (29) Zergaren foru arauaren 23. eta 82. artikuluetan aipatutako desgaitasuna zuzenbidean onartutako frogabideetako baten bitartez egiazta daiteke.

Hala ere, legezko ezintasuna egiaztatutzat hartzeko ezinbestekoa da:

a) Foru Aldundiko organo eskudunak, Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak edo dena delako autonomia erkidegoan horren pareko den organo eskudunak ziurtatzea.

   Honi dagokionez, ziurtagiria ez da izan behar horrexetarako berariaz emana. Beraz, aipatu organoek emandako zeinahi agiri izango da baliozkoa, baldin eta

bertan ezintasunaren gradua argi eta garbi adierazten bada eta Zergaren Foru Arauaren 23. eta 82. artikuluetan aipatutako baremoekin erlazionatzen bada.

b) Gizarte Segurantzak edo Klase Pasiboen Araubide Bereziak aitortutako prestazioa jasotzea ezintasun iraunkorragatik, baldin eta hura aitortzeko Zergaren Foru Arauaren 23. eta 82. artikuluetan ezarritako ezintasun gradua eskatzen bada.

Hain zuzen ere, ehuneko 33ko ezintasuna edo handiagoa frogatutzat emango zaie erabateko ezintasun iraunkorra edo ezintasun handia aitortuta daukaten Gizarte Segurantzako pentsiodunei eta zerbitzurako ezintasun iraunkorragatiko erretiro pentsioa aitortuta daukaten klase pasiboetako pentsiodunei.

Nolanahi ere, epaile batek pertsona baten ezintasuna adierazten badu Kode Zibilean ezarritako arrazoietako batengatik, zerga honi buruzko araudian ehuneko 65eko ezintasuna edo handiagoa daukaten pertsonez ezarritako xedapen bereziak aplikatuko dira.

**2.** (29) Zergaren foru arauren 82. artikuluan aipatzen den mendekotasun egoeran egongo dira otsailaren 11ko 174/2011 Errege Dekretuan onartutako mendetasun egoeran daudenak, zeinaren bidez onesten baita autonomia pertsonalasustatzeko eta mendekotasun egoeran bizi diren pertsonei laguntzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak ezarritako mendekotasun egoeraren balorazio baremoa. (11)

Foru Aldundiko organo eskudunak, Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak edo dena delako autonomia erkidegoan horren pareko den organo eskudunak ziurtatuko ditu mendetasun egoera eta mendetasun gradua.

Honi dagokionez, ziurtagiria ez da izan behar horrexetarako berariaz emana. Beraz, aipatu organoek emandako zeinahi agiri izango da baliozkoa, baldin eta bertan mendetasun gradua argi eta garbi adierazten bada eta artikulu honen 1. paragrafoan aipatutako baremoekin erlazionatzen bada.

**3.** Zergaren Foru Arauaren 23.3 eta 82. artikuluetan aipatutako hobariak edo kenkariak gozatzeko, frogatuko da ezintasuna eragiten duten inguruabarrak zergaren sortzapenean gertatu direla.

Hala ere, berariaz adierazita badago ezintasuna iraunkorra dela edo Zergaren sortzapena ezintasunaren kalifikazioaren baliozkotasun aldian gertatu bada, ez da beharrezkoa izango ezintasunaren frogagiria sortzapen egunari buruzkoa izatea.

## II. KAPITULUA
## OHIKO ETXEBIZITZA ESKURATZEAGATIKO KENKARIA

### 61. artikulua. Ohiko etxebizitza zer den.

**1.** (29) Oro har, ohiko etxebizitza da zergadunak hiru urtean segidan, gutxienez, bizilekutzat daukan eraikina.

Hala ere, etxebizitza ohikoa izan dela joko da epealdi hori igaro ez arren, zergaduna hiltzen denean, edo ezinbestez etxebizitzaz aldatzera behartzen duten beste

inguruabar batzukgertatzen direnean, hala nola: etxebizitza ez egokitzea zergadunaren edo harekin bizi den ondorengo edo aurreko ahaidearen, ezkontidearen edo izatezko bikote lagunaren desgaitasun mailara edo zergaren kuota osoan kenkaria egiteko eskubidea ematen duen pertsonarenera;ezkontzea,senar-emazteak banantzea edo izatezko bikotea desegitea; lantokia aldatzea; lehen enplegua edo beste bat lortzea; etxebizitza aipatutako epean ordaintzea eragozten duten inguruabar ekonomikoak, edo antzeko beste inguruabar justifikaturen bat.

4. apartatuan xedatutakoa alde batera utzi gabe, ohiko etxebizitzaren izaera izan duen etxebizitzak izaera hori galduko du zergadunak bertan bizitzeari uzten dion unetik aurrera.

Ez dira sartuko ohiko etxebizitzarenkontzeptuan ez lorategiak, ez parkeak, ez igerilekuak, ez kirol instalazioak, ez garajeak, ez eta, oro har, berez etxebizitza ez diren eranskinak ez beste edozein elementu ere, salbu eta elementu horiek erregistroko finka bakarra osatzen badute etxebizitzarekin.

Baldin eta familia unitateko kideak hiri ondasun higiezin bat baino gehiagoren titularrak badira, ondasunetako bat bakarrik izango da ohiko etxebizitza. Horri dagokionez, ohiko etxebizitzatzat joko da familia unitatearen bizi interesen, eta giza, gizarte eta ekonomiaren aldetiko harremanen berebiziko gunea dena.

**2.** Etxebizitza bat zergadunaren ohiko egoitza izan dadin, zergaduna benetan eta segidan bizi behar da bertan hamabi hilabetean, eskuraketa gertatu edo obrak amaitzen direnetik zenbatuta.

Hala ere, etxebizitzak ez du ohikoa izatea galtzen inguruabar hauek gertatzen direnean:

a) Zergaduna hiltzen denean, edo etxebizitza atzematen nahitaez eragozten duten bestelako inguruabarrak gertatzen direnean, artikulu honen 1. paragrafoan ezarritakoaren arabera.

b) Zergadunak ohiko etxebizitza duenean kargu edo enpleguaren zioz, eta eskuratutako etxebizitza erabiltzen ez duenean; horrelakoetan, hamabi hilabeteko epea, lehen aipatutakoa, zenbatu behar da, kargua edo enplegua uzten denetik.

Lokal bat ohiko etxebizitza gisa gaituz gero, idatz zati honetako lehen lerroaldean aipatutako hamabi hilabeteko epealdia lehen okupazio edo erabilpenerako lizentzia jasoz gero hasiko da zenbatzen.

**3.** Aurreko paragrafoetan ezarritako salbuespenak aplikatu behar badira, ohiko etxebizitza eskuratzearen ziozko kenkaria etxebizitza aldatzea nahitaez dakarten edo etxebizitza atzematen eragozten duten inguruabarrak gertatu arte aplikatuko da, salbu eta zergadunak ohiko etxebizitza erabiltzen duenean kargu edo enpleguaren zioz: horrelakoetan kontzeptu honen ziozko kenkariak egin ahal izango ditu, egoera horrek dirauen bitartean, eta etxebizitza erabiltzen ez bada.

Honen ondorioetarako, berdinetsi egingo dira etxebizitza beharrizana konpentsatzeko zergadunak kopuruak jasotzen dituen egoerak, baldin eta eskuratutako etxebizitza familia unitatetik kanpoko pertsonek erabiltzen ez badute.

**4.** Zergaren Foru Arauaren 42. artikuluaren b) eta c) idatz zatietan eta 49. artikuluan ezarritako salbuespenak aplikatzeko ez beste ezertarako, zergadunak bere ohiko etxebizitza eskualdatu duela pentsatuko da baldin eta eraikina artikulu honetan ezarritakoarekin bat etorriz beraren ohiko etxebizitza izan bada eskualdaketa gertatu denean edo aurreko bi urteetan.

**62. artikulua. Ohiko etxebizitza eskuratzea.**

**1.** (29) Ohiko etxebizitzaren eskuraketarekin berdinetsiko dira kasu hauek:

a) Etxebizitza zabaltzea, baldin eta eremu irekia itxiz edo beste edozein bideren bitartez era etengabean eta urtaro guztietan zehar azalera bizigaia handitzen bada.

b) Eraikuntza lanak, zergadunak zuzenean ordaintzen baditu obrak egitearen ondoriozko gastuak, edo obren sustatzaileari konturako kopuruak ematen badizkio, betiere obra horiek, gehienez, lau urteko epean amaitzen direnean, inbertsioa hasten denetik zenbatuta.

c) Higiezinaren azalerako eskubidea eskuratzea, baldin eta ohiko etxebizitza izango bada eta hura titulartasun publikoko lurzoru baten gainean eratu bada.

**2.** Epai bidez adierazitako konkurtsoaren ondorioz sustatzaileak ez baditu amaitzen eraikuntzako obrak lau urteko epealdian, hau da, artikulu honen 1. paragrafoaren b) idatz zatian aipatutako epealdia amaitu aurretik, edo epealdi horretan ezin baditu etxebizitzak eman, epealdia lau urte luzatuko da.

Hori gertatuz gero, aurreko artikuluaren 2. paragrafoaren lehen lerroaldean adierazitako hamabi hilabeteko epealdia etxebizitza eman eta gero hasiko da zenbatzen.

Paragrafo honetan ezarritako luzapenak ondorioak edukitzeko, zergadunak hasierako epealdia bete ez den zergaldiko autolikidazioari honakoak gehitu behar dizkio: etxebizitzan egindako inbertsioen frogagiriak eta aipatutako egoeraren bat gertatu dela frogatzen duen agiri bat.

Paragrafo honetako kasuetan, zergadunak ez dauka sarrerarik egin beharrik eraikuntzako obrak amaitzeko lau urteko epealdi orokorra ez betetzeagatik.

**3.** Zergadunari ezin egotzi zaizkion aparteko inguruabarrak direla eta obrak gelditu behar badira eta ezin badira amaitu artikulu honen 1. paragrafoaren b) idatz zatian aipatutako lau urteko epealdian, zergadunak, ez betetzea gertatzen denetik hilabete pasatu baino lehen, Zerga Administrazioari eskatu ahal izango dio epealdia luzatzeko.

Eskabidean epealdia zergatik ez den bete azaldu behar da eta eraikuntzako obrak amaitzeko zenbat denbora beharko den adierazi behar da (ezin da izan lau urte baino gehiago).

Aurreko paragrafoan adierazitakoaren ondorioetarako, zergadunak frogagiri egokia aurkeztuko du.

Aurkeztutako agiriak aztertuta, Zerga Administrazioak ebazpena emango du eskatu den luzapenaz eta epealdi berriaren iraupenaz; luzapena ez da izango nahitaez zergadunak eskatua.

Epealdiak luzatzeko eskabideak berariaz ebazten ez badira hiru hilabeteko epealdian, ezetsitzat joko dira.

Luzapena ematen bada, ez-betetzea gertatzen den egunaren biharamunetik hasiko da zenbatzen.

**4.** Hurrengoak ez dira etxebizitza eskuraketatzat hartuko:

a) Artapen edo konponketa gastuak, araudi honen 36. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

b) Hobekuntzak.

c) Garaje plazak, lorategiak, parkeak, igerilekuak, instalazioak eta, oro har, eranskinak eta ohiko etxebizitzako osagai ez diren gainerako elementu guztiak eskuratzea, araudi honen 61. artikuluaren 1. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorriz.

**5.** Birgaitze-lan izango da jabeak bere ohiko etxebizitzan egindakoa. Dena den, aldez aurretik Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoaren, ildotik jarduera hori jarduera babestu izendatuta beharko du izan ebazpen bidez edo, bestela, jarduera babesgarria abenduaren 12ko 2066/2008 Errege Dekretuaren ildotik edo dekretu hori ordezkatzen duten arau antzekoen ildotik.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, jabeak bere ohiko etxebizitzan egindako obratzat hartuko dira zergadunak, bere lokal bat ohiko etxebizitza bihurtzeko, gaitzen egiten dituenak, araudi honen 61. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

**6.** (29) Zergaren foru arauaren 87. artikuluko 5. apartatuaren c) letran xedatutakoaren ondorioetarako, egokitzapen obrak eta instalazioak beharrezkoak direla ziurtatu beharko du arautegi honen 60. artikuluko 1. apartatuaren a) letran aipatzen diren organoetako batek, desgaitasunen bat duten edo mendekotasun egoeran dauden pertsonen moldaera duina eta egokia erraztuko duen irisgarritasunerako eta komunikazio sentsorialerako.

**63. artikulua. Etxebizitza kontuak.**

**1.** Ohiko etxebizitza erostearen parekotzat joko da kreditu erakundeetan kopuruak gordailutzea, beste ezarpen mota guztietatik bereizitako kontuetan, baldin eta kenkarirako eskubidea sortzen duten kopuruak ohiko etxebizitza erosteko erabiltzen badira sei urte igaro aurretik.

Azken baldintza hori ez da betetzat joko gordailututa eduki diren kopuruak beste etxebizitza kontu batean sartzen badira besterik gabe.

**2.** Kenkarirako eskubidea galduko da:

a) Zergadunak etxebizitza kontuan gordailuturiko kopuruak, kenkarirako eskubidea sortu diotenak, ohiko etxebizitza erosteko ez beste xede baterako erabiltzen baditu eta zergaren sortzapenaren aurretik kontu horretara itzultzen ez baditu edo oso-osorik jartzen ez baditu beste kontu batean, kreditu erakunde bereko kontua izan nahiz beste erakunde batekoa izan. Kopuru horiek partez erabiltzen badira, lehenengoz gordailututako kopuruak joko dira erabilitzat.

b) Kontua ireki zenetik bost urte igarotzen badira kenkarirako eskubidea sortu duten kopuruak ohiko etxebizitza erosteko erabili gabe.

c) Ohiko etxebizitzaren erosketak ez baditu betetzen arrazoi horrengatik kenkarirako eskubidea izateko baldintzak.

**3.** Zergadun bakoitzak etxebizitza kontu bat bakarrik izan dezake.

**4.** Etxebizitza kontuak bereiz identifikatuko dira Zergaren autolikidazioan, eta gutxienez honako datu hauek jarriko dira:

- Kontua zein erakundetan ireki den.

- Kontuaren zenbakia.

- Kontua ireki den eguna.

- Ekitaldian zenbat gehitu den kontuaren saldoa.

**5.** Kenkariak aplikatu eta gero horiek aplikatzeko eskubidea galtzen badu, zergadunak, baldintzak bete ez dituen ekitaldiko zergaren kuotan, aurretik kendu dituen kopuru horiek ere sartuko ditu, Zergen Foru Arau Orokorraren 26. artikuluan aipatzen diren berandutze korrituak gehituta.

**64. artikulua. Ohiko etxebizitza erostearen ziozko kenkaria eta berrinbertsioaren ziozko salbuespena.**

Ohiko etxebizitzan berrinbertitzearen ziozko salbuespena aukeratzen badu, Zergaren Foru Arauaren 87.3 artikuluan ezarritako 36.000 euroko kopurua txikitzeko, zergadunak, etxea besterentzen duen ekitaldian, salbuetsitako ondare irabaziaren ehuneko 18 egotziko du lehenengo eta behin.

**65. artikulua. Epailearen aginduz familiaren etxebizitzarako kopuruak ordaindu beharra.**

**1.** Epaileak hala erabakita, zergadunak, familiaren etxebizitzarako, Zergaren Foru Arauaren 87.1 artikuluan aipatzen diren kopuruetariko baten bat ordaindu behar badu bere kontura oso-osorik, artikulu horretan aipatzen den kenkaria aplikatu ahal izango du bere autolikidazioan.

(29) Zergadunak kentzen dituen kopuru horiek zergaren foru arauaren 87. artikuluan aipatzen den 36.000 euroko kopurutik kenduko dira. Halaber, zergaren foru arauan eta arautegi honetan ezarritako gainerako baldintzak eta mugak ere aplikatuko dira.

**2.** Betebehar hori zergadun biei badagokie, kenkaria hainbanatuko dute eta bakoitzak dagokion kopurua kenduko du bere autolikidazioan, Zergaren Foru Arauaren 87. artikuluaren 1. eta 2. paragrafoetan ezarritako portzentaje eta mugekin.

Zergaren Foru Arauan eta araudi honetan ezarritako gainerako baldintzak eta mugak ere aplikatuko ditu zergadunak.

## III. KAPITULUA
## BESTE KENKARI BATZUK

### 66. artikulua. Kenkaria inbertsioengatik eta beste jarduera batzuengatik.

Zerga honetako zergadunek aktibo finko material berrietan inbertsioak pizteko eta zenbait jardueraren burutzea pizteko Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauaren V. tituluaren III. kapituluan eta hamabosgarren xedapen iragankorrean zehazten diren kenkariak aplikatu ahal izango dituzte, kenkari portzentaje eta muga berekin.

### 66 bis artikulua. (29) Zilarrezko ekonomiari lotutako mikroenpresa edo enpresa txiki edo ertainetan inbertitzearen kenkaria

**1.** Zergaren foru arauaren 90. artikuluko 2. apartatuaren b) letran xedatutakoaren ondorioetarako, ulertuko da erakunde baten helburu soziala zuzenean lotuta dagoela zilarrezko ekonomiaren sektorearekin, baldin eta zuzenean bideratuta badago adinekoen berariazko premietara egokitutako ondasunak eta zerbitzuakdiseinatzera, ekoiztera eta/edo hornitzera, eta, bereziki, arlo horien barruan, honako gai hauetara: osasuna eta zaintzak, komunikazioa, ekonomia eta finantzaaholkularitza, talentua prestatzea eta aprobetxatzea, aisia eta entretenimendua, segurtasuna, garraioa eta etxebizitza.

Aurreko paragrafoan aipatutako zuzeneko lotura egon dadin, adinekoen berariazko premietara egokitutako ondasunen eta zerbitzuen diseinutik, ekoizpenetik eta/edo horniduratik datorren diru sarreren bolumena erakundearen guztizko diru sarreren bolumenaren ehuneko 50 izan beharko da gutxienez.

Aurreko paragrafoan aipatzen den baldintza Zergaren Foru Arauaren 90. artikuluan jasoriko kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen duten akzioak edo partaidetzakeskuratzen diren zergaldian bete beharko da, eta, gutxienez, hurrengo 5 zergaldietan.

**2.** Bat etorriz Zergaren Foru Arauaren 90. artikuluko 6. apartatuan jasotakoarekin, erakundeak eman behar duen ziurtagirian, zeinaren akzioak edo partaidetzak eskatutako baldintzak beteta eskuratu direla adierazi behar baita, zehaztu beharko da aurreko apartatuan ezartzen diren arloetatik zeinetara zuzenduta dagoen erakundearen helburu soziala.

## VI. TITULUA
## ZERGAREN KUDEAKETA

## I. KAPITULUA
## AUTOLIKIDAZIOAK

### 67. artikulua. Autolikidazioa egin beharra.

**1.** Zergadunek pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autolikidazioa aurkeztu eta sinatu behar dute, Zergaren Foru Arauaren 102. artikuluan eta araudi honetan ezarritako moduan.

**2.** Autolikidazioaren ereduak eta autolikidazioaren modalitate erraztu edo berezien erabilera Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak onartuko ditu. Berak ezarriko ditu autolikidazioa aurkezteko modua, lekuak eta epeak, bai eta autolikidazioak bide telematikoetatik aurkezteko kasuak eta baldintzak ere.

Zergadunek, autolikidazioetan, eragiten dieten datu guztiak jarriko dituzte. Horrez gain, ezarrita dauden eta aurrerantzean ezartzen diren dokumentu edo egiaztagiriak ere aurkeztuko dituzte.

**3.** Baterako zerga ordainketa aukeratzen bada, autolikidazioa familia unitateko adin nagusiko kideek sinatu eta aurkeztuko dute, eta hauek familia unitateko seme-alaben ordezkari gisa jardungo dute, Zergaren Foru Arau Orokorraren 45. artikuluan xedatzen denaren arabera.

**4.** Autolikidazioak egiteko baliabide eta prozesu informatikoak erabili ahalko dira, bai eta Foru Aldundiak ezarritako zerbitzuak ere, ezartzen den moduan.

### 68. artikulua. Autolikidazioa egin beharretik salbuestea.

**1.** Ez dute aurkeztu beharko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autolikidaziorik errentak honako iturri hauetatik soilik lortzen dituzten zergadunek:

a) Lanaren etekin gordinak, urtean 12.000 euroko mugarekin banakako zerga ordainketan, hurrengo artikuluaren 1. paragrafoaren g) idatz zatian ezarritako kasuetako batean egon ezean. Baterako zerga ordainketan muga hori aipatutako etekin mota lortu duen zergadun bakoitzari aplikatuko zaio.

b) Lanaren etekin gordinak urtean 12.000 euro baino gehiago 20.000 euroko mugarekin banakako zerga ordainketan, araudi honetako hurrengo artikuluaren kasuetako batean egon ezean. Baterako zerga ordainketan muga hori aipatutako etekin mota lortu duen zergadun bakoitzari aplikatuko zaio.

c) Kapitalaren etekin gordinak eta ondare gehikuntzak, salbuetsitakoak barne, urteko guztiak bat eginda 1.600 euro baino gehiago izan ez badira. Idatz zati honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko talde inbertsioko erakundeen akzio edo partaidetzen eskualdaketetan edo itzulketetan sortutako ondare irabaziei, baldin eta araudi honen 94.2 paragrafoan xedatutakoaren arabera egindako atxikipena ezin bada zehaztu zerga oinarrian sartu beharreko zenbatekoarengatik.

**2.** Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, kontura ordaindutako diru kopuruen itzulketa lortzeko autolikidazioa aurkeztuko da.

**69. artikulua. Egoera bereziak, autolikidazioa egitea beharrezkoa dutenak.**

**1.** Aurreko artikuluaren 1. paragrafoaren b) idatz zatian azaltzen diren egoeretan, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autolikidazioa aurkeztu behar dute egoera hauetako edozeinetan daudenek:

a) Zergaldian zehar lanaren etekinak ordaintzaile batek baino gehiagok emanik jaso, edo ordaintzaile berak kontzeptu bategatik edo batzuengatik emanik, eta atxikipen egokia egiteko ez metatzea, edo zergaldian zehar lan kontratu edo laneko, administrazioko edo bestelako erlazioren bat baino gehiago sinatzea.

b) Kontratu edo harreman batzuen hasieran hitzartutako epealdia amaitutakoan enplegatzaile berari zerbitzuak egiten jarraitzen duten zergadunek, edo zergaldi berean berriro egiten dizkiotenek, bai eta lan kontratua edo lan, administrazio edo bestelako harremanak luzatu dituztenek ere.

c) Ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen konpentsazio pentsioak edo mantenurako urtekoak jasotzen dituzten zergadunek, gurasoek epailearen erabaki bidez mantenurako urtekoak jasotzen dituztenean izan ezik.

d) Euskadiko foru erakundeek onartutakoa ez beste araudi baten arabera kalkulaturiko atxikipenak edo lanaren konturako sarrerak, edo EAEko foru aldundi batean sartu ez direnak, jasan dituzten zergadunek.

e) Ordainsariak giza lanetan edo eguneko lansaritan jasotzen dituzten zergadunek.

f) Emaitzen edo antzeko beste parametro batzuen arabera aldatzen diren ordainsariak jasotzen dituzten zergadunek, baldin eta ordainsari horiek Zergaren Foru Arauaren 108. artikuluan ezarritako moduan atxikipen edo sarrera ehunekoa kalkulatzeko kontuan hartutakoak baino handiagoak badira.

g) Zerga ordainketan salbuespen, hobari, murrizketa, kenkari edo onuraren bati heltzeko eskubidea edukitzeko ezarritako baldintza, epe edo gainerako inguruabarretako bat, Zerga Administrazioari jakinarazi beharra edo erregularizazio edo sarreraren bat egin beharra dakarrena, betetzen ez duten zergadunek.

**2.** Aurreko paragrafoaren a) eta f) bitarteko idatz zatietan azaldutako egoeretan egoteagatik pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autolikidazioa aurkeztu behar duten zergadunek bi aukera izango dituzte:

- Zergari buruzko xedapen orokorren arabera ordaintzea.

- Zerga lanaren etekinak soilik kontuan izanik ordaintzea, arau hauei lotuta:

  a) Lanaren etekinetarako ezarritako atxikipen ehunekoen taulak aplikatuko zaizkio mota horretako etekinen guztizko zenbatekoari, kontuan hartu gabe Zergaren Foru Arauaren 9. artikuluan xedatutakoaren arabera salbuetsita dauden etekinak. Horretarako, kontuan hartuko dira atxikipena egin behar zaien etekinen zenbatekoa zehazteko arauak eta zergaren sortzapen egunean indarra duten atxikipen taulak finkatu eta aplikatzeko arauak.

  b) Aurreko a) idatz zatian ezarritakoa aplikatzearen emaitzako kopuruari lanaren etekinen gainean egindako atxikipenen eta kontura egindako sarreren

zenbatekoa kenduko zaio. Horrela ateratzen den zenbatekoa ordainduko zaio Foru Aldundiari, eta zatikatu ahal izango da, araudi honen 71. artikuluaren 2. paragrafoan ezarritakoaren arabera. Inola ere ez da diru kopururik itzuliko zerga ordaintzeko prozedura hori erabiltzearen ondorioz.

c) Inola ere ez da aplikatuko ez gastu kengarririk, ez hobaririk, ez murrizketarik, ez baterako zerga ordainketako erregelarik, ez pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arauetan ezarritako bestelako pizgarririk.

**70. artikulua. Autolikidazioaren proposamena.**

**1.** Foru Aldundiak autolikidazioaren proposamena bidali ahalko die autolikidazioa egin behar duten zergadunei.

Proposamenik jasotzen ez badu ere, zergadunak autolikidazioa aurkeztuko du.

**2.** Bidali zaion autolikidazio proposamenak zerga honi dagokionez bere zerga egoera islatzen duela uste izanez gero, zergadunak hura sinatu, berretsi edo aldatu ahal izango du, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak horretarako ezartzen duen prozedurari jarraituz.

Artikulu honetan adierazitako moduan sinatu edo berresten diren proposamenak aurkeztutako autolikidaziotzat joko dira ondorio guztietarako.

**3.** Zergadunak ez badu onartzen bidali zaion autolikidazio proposamena, administrazio jarduketa ez egintzat joko da eta zergadunak autolikidazioa aurkeztuko du, betebehar hori edukiz gero.

**4.** Foru Aldundiak bidalitako autolikidazio proposamena sinatu edo berresten duen zergadunari ezin izango zaio zehapenik ezarri proposamenean jasotako datuen zioz.

**71. artikulua. Autolikidazioa eta zerga zorrari dagokion diru sarrera.**

**1.** Autolikidazioa aurkeztearekin batera, zergadunek zerga zorra zehaztuko dute, eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak erabakitako tokian, moduan eta epean ordainduko dute.

**2**. (10) Autolikidazioaren zenbatekoa bi zatitan ordaindu ahal izango da inolako korritu edo errekargurik ordaindu behar izan gabe:

a) Lehenengoa, zenbatekoaren ehuneko 60, autolikidazioa aurkezten denean.

b) Bigarrena, gainerako ehuneko 40a, autolikidazioa aurkeztu behar den urteko azaroaren 10a baino lehen.

Ordaintzeko prozedura hori erabili ahal izateko, autolikidazioa ezarritako epean aurkeztu behar da. Autolikidazio osagarrien sarrera ezin izango da zatitu aurreko paragrafoan ezarritako prozeduraren arabera.

Lehen zatia ez bada ordaintzen ezarritako egunean, zor den kopuru osoa bilduko da betearazpen bidean, Arabako Zergen Foru Arau Orokorreko 165.1 b) eta 165.3 artikuluetan ezartzen denarekin bat etorriz.

**3.** Autolikidaziorako zerbitzu edo modalitate bereziak erabiltzen badira, autolikidazioaren zenbatekoa autolikidazioa aurkeztu eta gero ordain dadila xedatu ahal izango da.

**4.** Salbuespeneko kasuetan, Foru Aldundiak, berak egokiesten dituen txostenak egin eta gero, zerga-zorra eta, halakorik egonez gero, zehapenak zeinahi ondasun edo eskubide emanez ordaintzea onartu ahal izango du.

**72. artikulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kuota diferentziala zatikatzea.**

**1.** Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kargapeko zergadunek, behar bezala frogatzen badute beren ekonomia eta finantza egoerak zerga zorra ordaintzea eragozten diela aldi baterako, zerga zorraren ordainketa geroratu edo zatikatzeko eskatu ahal izango dute, horretarako eskabidea, autolikidazioa eta beren egoeraren egiaztagiriak bakarrik aurkeztuta, eta berandutza korriturik ordaindu behar izan gabe, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Geroratu edo zatikatu nahi den zerga zorra zerga ikuskatzaileen akta baten ondorio ez izatea.

b) Geroratu edo zatikatu nahi den zerga zorra 15.100 eurotik beherako likidazio oinarri bati lotuta egotea. Lanaren etekinek, higigarrien eta higiezinen kapitalaren etekinek eta ondare irabazien etekinek bakarrik osatzea likidazio oinarri hori, eta lanaren etekin garbiak gutxienez oinarri horren ehuneko 80 izatea.

   Batek baino gehiagok batera ordaintzen badute pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, aurreko lerroaldean aipatutako zenbatekoa 24.100 euro izango da.

**2.** Artikulu honetan xedatutakoari jarraituz zorra geroratu edo zatikatzea onartzen denean, ez da aplikatuko araudi honen 74. artikuluan araututako zatikatze mota.

**3.** Gehieneko epe hauek ezarriko dira:

a) Ordainketa geroratzeko: 5 hilabete.

b) Ordainketa zatikatzeko: 6 hilabete.

**4.** Artikulu honetan aipatutako eskaerei buruz ebazteko eskumena duen organoak zenbateko desberdinetako zatikatze epeak ezarri ahal izango ditu.

**5.** Zergadunekiko Harremanetarako Zerbitzuak izapidetuko ditu zorra geroratu edo zatikatzeko eskaerak, eta, horiek artikulu honetan adierazitako baldintzak betetzen badituzte, Zergadunekiko Harremanetarako Zerbitzuko buruak baiezko ebazpena emango du.

**6.** Artikulu honetan xedatutakoari, ordezko gisa, ordainketak geroratu eta zatikatzeko araudia aplikatu ahal izango zaio.

**73. artikulua. Ofiziozko itzulketak.**

Zergaren Foru Arauaren 112. artikuluan aipatzen diren itzulketak Foru Aldundiak egokiesten dituen prozeduren bidez egingo dira.

**74. artikulua. Aukeren baliatzea zuzentzea.**

**1.** (5) (16) (29) Zergaren foru arauaren 105. artikuluan xedatutakorako, zergadunek arau horretan xedatutako aukerez baliatuko dira eragina izan behar duten zergaldiko autolikidazioa aurkeztean, eta aldatu egin ahal izango dira, behin zergaren aitorpena egiteko borondatezko epea amaitu ondoren, eta Zerga Administrazioak lehenago ez badu eskakizun bat egin.

**2.** Zerga honen zergadun izan eta jarduera ekonomikoak garatzen dituztenei ere aplikatuko zaie Sozietateen gaineko zergaren Araudiaren 48. artikuluan xedatutakoa, halako etekinei dagokienean.

## VII. TITULUA
## KONTURAKO ORDAINKETAK

### I. KAPITULUA
### ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK. ARAU OROKORRAK

**75. artikulua. Aplikazio eremua.**

**1.** Atxikipenak edo konturako sarrerak egin behar dituzten pertsona eta erakundeek titulu honetan xedatutakoa aplikatuko dute baldin eta, 2. paragrafoan xedatutakoaren arabera, atxikipen horiek Arabako Foru Aldundian ordaindu behar badira.

Hala ere, erakunde ordaintzaileari sozietateen gaineko zerga arautzen duen Arabako araudia aplikagarria bazaio, titulu honetan jasotakoa aplikatuko zaie honako atxikipen eta konturako sarrera hauei:

- Administrazio kontseiluetako, horien ordezko batzordeetako eta beste ordezkaritza organo batzuetako administratzaileen eta kideen etekinei buruzko atxikipen eta konturako sarrerei.

- Edozein erakunderen funtsetan parte hartzeagatik lortutako etekinei buruzko atxikipen eta konturako sarrerei, bai eta obligazio edo antzeko tituluen interes zein bestelako kontraprestazioei buruzkoei ere.

Aurreko paragrafoan zehaztutakoa gorabehera, zerga ordainarazteko eskumena daukan administrazioak ezarriko ditu autolikidazioa aurkezteko lekuari, erari eta epeari buruzko arauak.

**2.** Honako etekin hauek direla eta egiten diren atxikipenak edo konturako sarrerak Arabako Foru Aldundian sartu behar dira:

a) (16) Araban egindako lan edo zerbitzuetatik datozen etekinak.

Lanak edota zerbitzuak lurralde erkidean eta Araban edo Araban eta beste lurralde historikoetakoren batean egiten badira, edo zerbitzuak non egiten diren zehaztu ezin denean, zerbitzuak Araban ematen direla iritziko da, baldin eta langilearen adskripzio lan-zentroa lurralde horretan badago.

Halaber, langilea telelanean arituz gero edo lanak nahiz zerbitzuakatzerrian eginez gero, edo itsasontzietan, ontzietan, itsas gailuetan edo itsasoan finkatutako plataforma finkoetan, Araban eman direla iritziko da, baldin eta langilearen adskripzio lan-zentroa lurralde horretan badago.

b) Gizarte Segurantzaren eta klase pasiboen araubide publikoetatik hartzen diren pentsioen, hartzeko pasiboen eta prestazioen etekinak, Enpleguaren Nazio Erakundetik, montepio eta mutualitateetatik, enplegua sustatzeko funtsetatik, pentsio planetatik eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeetatik datozenak, eta enpresen eta beste erakunde batzuen prestazio pasiboak, baldin eta hartzailearen ohiko bizilekua Araban badago.

c) Administrazio kontseiluetako, horien ordezko batzordeetako eta beste ordezkaritza organo batzuetako administratzaileen eta kideen etekinak, erakunde ordaintzailearen zerga egoitza Araban baldin badago.

Arabako Foru Aldundiak eska dezakeen sozietateen gaineko zergaren subjektu pasibo diren erakundeen kasuan, Arabari dagokio atxikipenak egitea, bere lurraldean burututako eragiketen guztizkoaren proportzioan. Horretarako, sozietateen gaineko zergarako azken autolikidazioan adierazitako proportzio bera aplikatuko da.

d) Jarduera ekonomikoetatik datozen etekinen ziozko atxikipenak eta konturako sarrerak, atxikipena egitera edo konturako sarrera egitera behartuta dagoenak ohiko bizilekua edo zerga egoitza Araban badu. Nolanahi ere, Arabako Foru Aldundiak berak ordaindutakoen etekinenak eskatuko ditu.

e) Edozein erakunderen funts propioetan parte hartzeagatik lortutako etekinak, bai eta obligazio eta antzeko tituluetako korrituak zein bestelako kontraprestazioak ere, erakunde horiek sozietateen gaineko zerga Araban bakarrik ordaintzen dutenean.

Arabako Foru Aldundiak eska dezakeen sozietateen gaineko zergaren subjektu pasibo diren erakundeen kasuan, Arabari dagokio atxikipenak egitea, bere lurraldean burututako eragiketen guztizkoaren proportzioan. Horretarako, sozietateen gaineko zergarako azken autolikidazioan adierazitako proportzio bera aplikatuko da.

f) Arabako Foru Aldundiak, Arabako Lurralde Historikoko udalek eta gainerako lurralde administrazioko eta erakunde administrazioko erakundeek jaulkitako zor eta jesapenetako korritu eta bestelako kontraprestazioak, edozein tokitan ordainduta ere.

g) Banku, aurrezki kutxa, kreditu kooperatiba eta balio bereko erakundeetako eragiketa pasiboetako korrituak eta gainerako kontraprestazioak, bai eta beste edozein kreditu etxetan edo finantza etxetan egindakoetatik lortutakoak ere, baldin eta etekinaren hartzaileak Araban badu ohiko bizilekua edo zerga egoitza.

h) Kapitalizazio eragiketetatik eta bizitza edo elbarritasun aseguruen kontratuetatik lortutako etekinak, baldin eta horien onuradunak, edo aseguru hartzaileak, erreskatearen kasuan, Araban badu ohiko bizilekua edo zerga egoitza.

i) Kapital ezarpenetik datozen bizi arteko errentak eta aldi baterako beste batzuk ere bai, onuradunak ohiko bizilekua edo zerga egoitza Araban baldin badauka.

j) Jabetza intelektualetik lortutako etekinak, hartzailea egilea ez bada; eta industria jabetzatik eta laguntza teknikoa emateti lortutakoak, ordaintzen dituen pertsona edo erakundeak zerga egoitza Araban baldin badauka.

k) Ondasunak, eskubideak, negozioak, meatzeak eta antzekoak alokatzetik datozenak, Araban kokatuta baldin badaude.

l) Higiezinak hipotekatuz bermatutako maileguen interesen kasuan, bermearen xede diren ondasunak Araban badaude.

Hipotekatutako ondasunak Araban eta lurralde erkidean edo beste edozein lurralde historikotan baldin badaude, Arabako Foru Aldundiak eskatuko du atxikipena, korrituak hipotekatutako ondasunen balioaren proportzioan hainbanatuz, berme asignazio berezirik ez badago behinik behin. Halakorik badago, kopuru hori erabiliko da hainbanatzeko oinarri modura.

m) Ondasun higigarrien hipoteka bidez edo eskualdatzerik gabeko bahitura bidez bermatutako maileguetako korrituen kasuan, bermea Araban inskribatzen bada.

n) Mailegu soilen korrituen kasuan, salerosketan ordaintzekotan utzitako prezioen kasuan eta kapitalak inon sartzeagatik lortutako beste etekin batzuen kasuan, establezimendua Araban badago, edo atxikipena egiteko betebeharra duen erakunde edo pertsonak ohiko bizilekua edo zerga egoitza Araban badu.

ñ) Talde inbertsioko erakundeen akzio eta partaidetzak eskualdatu edo itzultzen direnean lortzen diren ondare irabaziei dagozkien atxikipenak, akziodun edo partaidearen ohiko bizilekua edo zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan badago.

o) Joko, lehiaketa, zozketa edo ausazko konbinazioetan emandako sariak direla eta, egiten diren atxikipenak eta konturako sarrerak (sariok ondasun, ekoizkin edo zerbitzu jakinen eskaintza, sustapen edo salmentari lotuta egon zein ez), sariak ordaindu behar dituenak ohiko bizilekua edo zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan duenean. Nolanahi ere, Arabako Foru Aldundiak eskatuko ditu berak ordaindutako sariei dagozkien atxikipenak eta konturako sarrerak.

p) Ondasun higiezinen errentamendutik eta azpierrentamendutik lortutako etekinei dagozkien atxikipenak eta konturako sarrerak, atxikipena edo konturako sarrera egitera behartuta dagoenak ohiko bizilekua edo zerga egoitza Araban badu.

q) Erakundeei ordaindutako kopuruen ziozko atxikipenak eta konturako sarrerak, errenten egozketaren araubidearen indarrez, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga ordaindu beharra duten zergadunei egotzi behar zaizkienean, baldin eta atxikipena edo konturako sarrera egitera behartuta dagoenak Araban badu ohiko egoitza edo zerga egoitza.

r) (10) Harpidetza eskubideak eskualdatuta lortzen diren ondare irabaziei dagozkien atxikipenak, baldin eta akziodunaren edo partaidearen ohiko egoitza edo zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan badago.

**3.** **(16)** Arabako Foru Aldundiari ez zaizkio egokituko Estatuko Administrazioak bere funtzionarioei eta lan kontratuz eta administrazio kontratuz dituen enplegatuei emandako ordainsari aktibo eta pasiboekin lotutako atxikipenak; jasotzaileak barik

beste pertsona batek sortutako pentsioak ere ordainsari horien artean sartzen dira. Hala ere, ez zaie hori aplikatuko honako hauetako funtzionarioei eta langileei: erakunde autonomoak eta enpresa-erakunde publikoak, Estatuaren merkataritza-sozietateak, Estatuari atxikitako partzuergoak, Estatuaren fundazioak, transferitu gabeko unibertsitate publikoak eta Arabako Lurralde Historikoan dauden portuetako agintaritzak.

**4.** Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kontura zatika ordaintzen diren kopuruak titulu honetan ezarritakoari jarraituz eskatuko dira eta Arabako Foru Aldundian sartuko dira, zergadunak Araban badu ohiko egoitza.

**76. artikulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga dela eta, atxikipenak eta konturako sarrerak egin beharra.**

**1.** Araudi honen 79. artikuluan aipatzen diren pertsona edo erakundeek, hurrengo artikuluan aipatzen diren errentak ordaintzen badituzte, behar den kopurua atxiki eta Foru Aldundian sartu behar dute, hartzailearen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren konturako ordainketa gisa, araudi honetako arauekin bat.

(10) Halaber, behar den kopurua atxiki eta sartu behar da finantza aktiboak eskualdatzeko eragiketetan eta inbertsio kolektiboko entitateen akzioak edo partaidetzak eskualdatu edo ordaintzen direnean eta harpidetza eskubideak eskualdatzen direnean, arautegi honetan ezartzen den bezala.

**2.** Errenta horiek gauzaz ordaintzen direnean, araudi honen 79. artikuluan aipatutako pertsona edo erakundeek konturako sarrera egingo dute, hartzailearen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren konturako ordainketa gisa, araudi honetako arauekin bat etorriz.

**3.** Araudi honetan ezarritakoaren ondorioetarako, hartzaileari buruzko aipamenak konturako sarrerak egin behar dituenari ere egiten zaizkiola esan nahiko du, konturako bi ordainketak batera arautzen direnean.

**77. artikulua. Atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako errentak.**

**1.** Errenta hauek daude atxikipenei eta konturako sarrerei lotuta:

a) Lanaren etekinak.

b) Higigarrien kapitalaren etekinak.

c) Jarduera ekonomiko hauen etekinak:

- Lanbide jardueren etekinak.
- Nekazaritza eta abeltzaintza jardueren etekinak.
- Basogintzako jardueren etekinak.
- Araudi honen 92.6.2 artikuluan adierazitako enpresa jardueren etekinak, jarduera horien etekin garbia zenbatespen objektiboko metodoaren bitartez zehazten bada.

d) (10) Inbertsio kolektiboko entitateen kapitalaren edo ondarearen akzioak eta partaidetzak eskualdatuta edo ordainduta edo harpidetza eskubideak eskualdatuta lortzen diren ondare irabaziak.

**2.** Honako errentak ere atxikipenei eta konturako sarrerei lotuta daude, euren kalifikazioa gorabehera:

a) Hiri higiezinen errentamendutik edo azpierrentamendutik datozen etekinak.

Ondorio horietarako, errentamenduaren aipamenak azpierrentamenduari ere egindakotzat joko dira.

b) Jabetza intelektual edo industrialetik, laguntza teknikoa ematetik, ondasun higigarri, negozio edo meategien errentamendutik eta aurreko ondasunen azpierrentamendutik sortutako etekinak, bai eta irudi eskubidea ustiatzeko eskubidearen lagapenetik sortutakoak ere.

c) Jokoetan, lehiaketetan, zozketetan edo ausazko konbinazioetan parte hartzearen ondorioz ematen diren sariak. Berdin dio sariok ondasun, produktu edo zerbitzu batzuk eskaini, sustatu edo saltzearekin lotuta dauden.

**3.** (17) Konturako ordainketa bat egiteko betebeharra egongo da zergaren foru arauaren Hogeita Hamabigarren Xedapen Gehigarriaren 6. apartatuan aurreikusitako egoerak gertatzen direnean, baldin eta higigarrien kapitalaren etekin positiboak lortu badira, eta horiek aipatutako foru arauaren 9. artikuluko 37. zenbakian aurreikusitako salbuespena aplikatuta badute.

**78. artikulua. Atxikipenetatik edo konturako sarreretatik salbuetsita daudenak.**

Honako errenta hauek ez daude atxikipenak eta konturako sarrerak egin beharrari loturik:

a) Salbuetsitako errentak, Zergaren Foru Arauaren 9.24 artikuluan ezartzen dena kenduta, eta karga tasatik salbuetsitako lokomozio gastuetarako eta ohiko mantenu eta egonaldi gastuetarako dietak eta diru kopuruak.

b) Espainiako Bankuak diru merkatuan esku hartzeko erregulazio tresna gisa jaulkitako baloreen etekinak eta Altxorraren letren etekinak.

Hala eta guztiz ere, bezeroekin Altxorraren letren gaineko eragiketetan oinarrituriko kontuen kontratuak egiten dituzten finantza erakundeek atxikipena egin beharko dute, kontu horien titularrek lorturiko etekinei dagokienez.

c) Obligazioak akzio bihurtzeko primak.

d) Kanpoko kontuen etekinak, Espainiako lurraldeko egoiliarrak diren kreditu erakunde eta finantza establezimenduek atzerrian dituzten establezimendu iraunkorrek ordaindutakoak.

e) Erakundeek ondare sozietateen araubidean dauden zergaldietan ematen dituzten dibidenduak edo partaidetzak.

f) Etekin esplizituko finantza aktiboen eskualdatzearen edo itzulketaren eraginezko etekinak, baldintza hauek betetzen badituzte:

1. Kontuko idazpenen bidez ordezkatuta izatea.

2. Espainiako bigarren mailako balioen merkatu ofizialean negoziatzea.

Halako finantza aktiboen eskualdatzean, amortizazioan edo diru itzulketan parte hartzen duten finantza erakundeek kalkulatu egin beharko dute balioaren titularrari egozteko moduko etekina, eta gainera, horren berri emango diete titularrari eta zerga administrazioari; azken horri, halaber, lehen aipatu diren eragiketetan parte hartzen duten pertsonen datuak ere emango zaizkie.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak prozedura egokia ezarri ahal izango du, idatz zati honetan arauturiko atxikipenaren salbuespena gauzatzeko.

Idatz zati honetan esandakoa gorabehera, bezeroekin halako baloreen gaineko eragiketetan oinarrituriko kontuen kontratuak egiten dituzten finantza erakundeek atxikipena egin beharko dute, kontu horien titularrek lorturiko etekinei dagokienez.

Era berean, atxikipenaren menpean geratuko da kupoi korritua mugaeguneratu aurre-aurretiko 30 egunetan egindako finantza aktiboen eskualdatzeetan kupoi korrituaren baliokidea den prezioaren zatia, honako beharkizunok betez gero:

- Eskuratzailea egoitza Espainiako lurraldean ez duen pertsona edo erakundea izatea edo sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboa izatea.

- Eskualdaturiko baloreen eraginezko etekin esplizituak atxikipen betebeharretik salbuetsita egotea, eskuratzaileari dagokionez.

g) Azaroaren 8ko 4/1991 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko jokoa arautzen duenean, eta otsailaren 25eko 16/1977 Errege Lege Dekretuan, zorizko, eskaintzazko eta apustuzko jokoen zehapen, administrazio eta zerga alderdiak arautzen dituenean, ezarritakoaren babesean antolatutako jokoen ondorioz ematen diren sariak eta 300 euroko edo kopuru horretatik beherako atxikipen oinarria dutenak edo, Zergaren Foru Arauaren hemeretzigarren xedapen gehigarrian xedatzen duenari lotutako sariak izanez gero, xedapen gehigarri horretan adierazitako zenbatekoa baino txikiagoak direnak.

h) Hiri higiezinen errentamendutik edo azpierrentamendutik datozen etekinak, honelakorik gertatuz gero:

- Enpresek etxebizitzak alokatzen dituztenean beren enplegatuentzat.

- Errentariak errentatzaileari ordaindutako errentak urteko 900 euro baino gehiago ez izatea.

- Errentatzailearen jarduera uztailaren 23ko 573/1991 Araugintzako Foru Dekretuaren bidez onartu ziren jarduera ekonomikoen gaineko zergako tarifen lehen sekzioko 861. taldeko epigrafeetakoren batean sailkatuta egotea, edo bestela, hiri ondasun higiezinak errentan edo azpierrentan emateko jarduerarako baimena ematen duen beste epigraferen batean, eta, errentan edo

azpierrentan emateko diren higiezinen katastro balioari 861. talde horretako epigrafeetan ezarritako kuota zehazteko erregelak aplikatuta, zero kuota ez ateratzea.

Horri dagokionez, errentatzaileak baldintza hori betetzen duela frogatuko dio errentariari, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezartzen duen moduan.

i) Akzioen edo partaidetzen jaulkipen prima itzultzearen edo sozietatearen kapitala bazkideei ekarpenak itzuliz murriztearen emaitzako etekinak, banatu gabeko mozkinenak direnean izan ezik, Zergaren Foru Arauaren 41.2.a) artikuluaren bigarren lerroaldean ezarritakoaren arabera.

Dena den, Zergaren Foru Arauaren hamazazpigarren xedapen gehigarriaren 1. paragrafoaren a) idatz zatiaren lehen lerroaldean aipatutako kapital higigarrien etekinen gainean atxikipenak eta konturako diru sarrera egiteko beharra egongo da, bai eta Zergaren Foru Arauaren hamazazpigarren xedapen gehigarriaren 1. paragrafoaren b) idatz zatian xedatutako jaulkitze etekinaren zenbatekoaren gainean ere, baldin eta zenbateko horiek Talde inbertsioko erakundeen Legearen arabera eratutako kapital aldakorreko inbertsio sozietateetatik badatoz.

Etekin horiek Zergaren Foru Arauaren hamazazpigarren xedapen gehigarriaren 2. paragrafoan xedatutako talde inbertsioko erakundeetatik datozenean ere aplikatuko da aurreko lerroaldean xedatutakoa.

j) Enpresek borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakunde, pentsio plan, enpresen gizarte aurreikuspeneko plan edo gizarte aurreikuspeneko mutualitateetan egindako ekarpenak, titulu honetan jasotako baldintzetan.

k) Talde inbertsioko erakundeen partaidetzak edo akzioak itzuli edo eskualdatuta lortutako ondare irabaziak, baldin eta, Zergaren Foru Arauaren 48. artikuluan ezarritakoaren arabera, konputatu behar ez badira, eta azaroaren 4ko 35/2003 Legearen, talde inbertsioko erakundeei buruzkoaren, Araudiaren 79. artikuluan araututako funtsen partaidetzak itzulita edo eskualdatuta lortutakoak (araudi hori uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuak onartu zuen).

l) Abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren, sozietateen gaineko zergari buruzkoaren, 45.2 artikuluan xedatutakoa aplikatzeagatik azalarazten diren errentak.

**79. artikulua. Atxikipena edo konturako sarrera egin behar dutenak.**

**1.** Oro har, honakoak egongo dira atxikipena edo konturako sarrera egitera behartuta, betebehar horri loturiko errentarik ordaintzen badute:

a) Pertsona juridikoak eta gainerako erakundeak, bai eta jabe erkidegoak eta errenta egozketaren araubidean dauden erakundeak ere.

b) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarengatiko zergadunak, jarduera ekonomikorik egin eta beren jardueretan errentarik ordainduz gero.

c) Egoitza Espainiako lurraldean ez duten pertsona fisikoak, juridikoak eta gainerako erakundeak, bertan establezimendu iraunkorraren bidez jarduten dutenean.

d) Espainiako egoiliar ez diren pertsona fisikoak, juridikoak eta gainerako erakundeak, Espainiako lurraldean badihardute establezimendu iraunkorrik gabe, ordaintzen dituzten lan etekinei dagokienez, bai eta atxikipena edo konturako sarrera egin beharra dakarten bestelako etekinei dagokienez ere, horiek gastu kengarriak badira Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari buruzko Foru Arauaren 24.2 artikuluan aipatzen diren errentak lortzeko.

   Pertsona edo erakunde batek ordainketarako bitartekaritza soila besterik egiten ez duenean, ez dela errentak ordaintzen ari esan nahiko du.

   Ordainketarako bitartekaritza soiltzat hartuko da hirugarren baten kontura eta aginduz diru kopuru bat ordaintzea.

   Ondoren azaltzen diren eragiketak ez dira ordainketarako bitartekaritza soiltzat hartuko. Beraz, goian esandako pertsona eta erakundeek atxikipena eta sarrera egin beharko dituzte honako kasu hauetan:

   - Espainiako lurraldeko egoiliarrenak diren atzerriko baloreen gordailuzainak direnean, edo balore horietatik sortutako errenten kobrantza kudeatzen dutenean, baldin eta errenta horiei Espainian aldez aurretik atxikipenik egin ez bazaie.

   - Beren langileei Gizarte Segurantzaren konturako prestazioak ordaintzen dizkietenean.

   - Beren langileei hirugarrenek emandako eskupekoak, zerbitzuarengatiko ordainsariak edo antzekoak ordaintzen dizkietenean.

   - Nekazaritzako kooperatibek, beren kideen ustiategietako produktuak banatzen edo merkaturatzen dituztenean.

**2.** Zehatz-mehatz:

a) Zergadunek zerbitzuak eskaintzen dituzten establezimendu iraunkorrek edo erakunde egoiliarrek atxiki beharra dute, baldin zergadunei beste erakunde batek (egoiliarra nahiz ez-egoiliarra) lan etekinak ordaintzen badizkie (Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauaren 42. artikuluak zehaztutako baldintzetan lotuta egon beharko dute). Bestela, atzerrian den Euskal Autonomia Erkidegoko establezimendu iraunkorraren titularrak ordaintzen badizkie.

b) Finantza aktiboen gaineko eragiketetan atxiki beharra dute hauek:

   1. Finantza aktiboen amortizazioan edo itzulketan lortutako etekinetan, pertsona edo erakunde jaulkitzaileak. Hala ere, eragiketa horiek gauzatzea finantza erakunde baten esku uzten bada, eragiketaren ardura duen finantza erakundea izango da atxikitzera behartua.

   Jaulki ondoren finantza aktibo bihurtutako igorpen tresnak badira, epemugan, fede emaile publikoak edo kobrantzarako aurkezpenean parte hartzen duen finantza erakundeak egin behar du atxikipena.

   2. Finantza aktiboak eskualdatzean lortutako etekinetan, aurreko paragrafoan zehazten diren igorpen tresnak barne, finantza erakunderen baten nahiz batzuen

bidez bideratzen bada, eskualdatzailearen izenean ari den finantza erakundeak, aurrezki kutxak edota banketxeak.

Zenbaki honetan zehaztutakoaren ondorioetarako, banketxea, aurrezki kutxa edota finantza erakundea eskualdatzailearen izenean ari dela joko da baldin finantza aktiboak saltzeko agindua ematen badio.

3. Aurreko paragrafoetan jasotzen ez diren kasuetan, eragiketan nahitaez parte hartu behar duen fede-emaile publikoak.

c) Estatuaren Zorraren baloreen eskualdatzeetan, eskualdatzean parte hartzen duen Idazpenetako Zor Publikoaren Merkatuko erakunde kudeatzaileak egingo du atxikipena.

d) Talde inbertsioko erakundeen kapitalaren edo ondarearen ordezkagarri diren akzioak edo partaidetzak eskualdatzen edo itzultzen direnean, honako pertsona edo erakunde hauek egin behar dute atxikipena edo konturako sarrera:

1. Inbertsio funtsen partaidetzak itzuliz gero, sozietate kudeatzaileek, salbu eta partaideek erakunde komerzializatzaileen izenean erregistratutako partaidetzengatik. Egoera horretan erakunde komerzializatzaileek egongo dira behartuta atxikipena edo konturako diru sarrera egitera.

2. Ez burtsan, ez balioen beste negoziazio merkaturen batean kotizatzen ez duten partizipazioetan banaturiko kapital aldakorreko inbertsio elkarteren batek akzioak berriro erosiz gero, berdin dio zergapekoak berak erosi edo beste elkarteren batek, elkarteak berak, salbu eta elkarte kudeatzaileren batek parte hartzen duen; horrelakoetan elkarte kudeatzaileak berak egingo du.

3. Egoitza atzerrian duten inbertsio kolektiboko erakundeak badira, haietako akzio edo partaidetzak merkaturatzeko ardura duten erakundeek edota horretarako baimena duten bitartekariek; eta subsidiarioki, ordaintzean, balioak harpidedun potentzialen artean banatzeko ardura duten erakundeek.

4. Zerbitzuen eskaintza libreko erregimenpean aritzen diren erakunde kudeatzaileen kasuan, hainbat zerga xedapenen aldaketari buruzko maiatzaren 10eko 7/2004 Foru Arauak seigarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat etorriz aukeratzen den ordezkariak.

5. Aurreko idatz zatiei jarraikiz, atxikitzea egoki ez den kasuetan, eskualdaketa egin edota ordainketa jasotzen duen bazkide edo partaideak konturako ordainketa egin beharko du. Konturako ordainketa hori araudi honen 93., 94.1. eta 95. artikuluetan dauden arauekin bat etorriz egingo da.

e) (8) Zerbitzuak libreki emateko araubidearen arabera jarduten diren aseguru entitateek Espainian egiten dituzten eragiketetan, atxikipena edo konturako ordainketa egin beharko dute egoitza Europako Eremu Ekonomikoko beste estatu kide batean duten aseguru entitateek.

f) (11) (8) Europar Batasuneko beste estatu kide batean helbideratutako pentsio funtsek, espainiar legediaren peko enplegu pentsioko planak garatzen badituzte, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003ko ekainaren 3ko 2003/41/CE Zuzentarauan ezarritakoaren arabera (enpleguko pentsio funtsen jarduerei eta

haien ikuskapenari buruzkoa), atxikipena egin beharko dute Araban egiten dituzten eragiketetan.

g) Sozietatearen kapitala araudi honen 78. artikuluaren i) idatz zatiaren bigarren lerroaldean xedatutako ekarpenak itzultzeagatik eta akzioen jaulkitze saria banatzeagatik murrizten bada, honako hauek egingo dituzte atxikipena edo konturako diru sarrera:

   a) Talde inbertsioko erakundeen Legean araututako kapital aldakorreko inbertsioen sozietatea izanez gero, sozietatea bera.

   b) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/CE Zuzentarauak araupetutako talde inbertsioko erakundeek establezimendu iraunkorrik gabe lortutako dibidenduak eta mozkin partaidetzak (zuzentarau horren bidez higigarrien baloreetako talde inbertsioko erakunde batzuei buruzko lege, arau eta administrazio xedapenak koordinatu dira) izan eta Zergaren Foru Arauaren 52. artikuluan xedatzen ez diren talde inbertsioko erakundeetako bazkide edo partaideak direnean, baldin eta erakunde horiek beren eraketa-lekua eta egoitza Europako Batasuneko kide den Estatu batean badute eta Balio Merkatuaren Batzorde Nazionalaren erregistro berezian erroldaturik badaude, Espainian, erakunde merkaturatzaileek edo haien akzio nahiz partaidetzak merkaturatzeko ahalmena duten bitartekariek eta, subsidiarioki, harpidedunen artean baloreak jarri edo banatzeaz arduratzen diren eta errentak ordaintzen parte hartzen duten erakundeak edo erakundeek.

   c) Zergaren Foru Arauaren hamazazpigarren xedapen gehigarriaren 2. paragrafoan xedatutako talde inbertsioko erakundeak direnean, haiei darizkien errentak kobratzeko ardura duen edo balioen gordailutegi den erakundeak.

   d) Aurreko paragrafoetan ezarritakoaren arabera, atxikipenik edo konturako diru sarrerarik egin ezin direnetan, ekarpenen itzulketa edo jaulkitze sariaren banaketa jasotzen duen bazkideak edo partaideak egingo du konturako ordainketa. Konturako ordainketa hori araudi honen 87., 90.5 eta 91.1 artikuluetan dauden arauekin bat etorriz egingo da.

h) (10) Harpidetza eskubideak eskualdatzen direnean, entitate gordailuzaina eta, halakorik ezean, eskualdatzailearen kontura jarduten duen finantza bitartekaria edo eskualdaketan parte hartzen duen fede emaile publikoa.

i) (17) Zergaren foru arauaren Hogeita Hamabigarren Xedapen Gehigarriaren 6. apartatuan aurreikusitako egoerak gertatzen direnean, zergadunarekin epe luzerako aurrezki plana kontratatua duen kreditu edo aseguru erakundeak izango du betebeharra bidezkoa den konturako ordainketa egiteko. Konturako ordainketa hori arautegi honetako 87. artikuluan, 90. artikuluko 6. apartatuan eta 91. artikuluko 3. apartatuan jasotako arauekin bat etorriz egin behar da.

**3.** Atxikitzera behartuta dauden subjektuek sarrera Arabako Foru Aldundian egiteko betebeharra hartuko dute bere gain, eta lehen betebeharra ez betetzeak ez ditu betebehar honetaz salbuetsiko.

Etekina Arabako Foru Aldundiak ordaintzen badu, atxikipena eta hari dagokion sarrera zuzenean egingo dira.

**80. artikulua. Atxikipenaren edo konturako sarreraren zenbatekoa.**

**1.** Atxikipenaren zenbatekoa izango da, atxikipenaren oinarriari atxikipen tasa aplikatzearen emaitzako kopurua; izan ere, tasa hori ondorengo II. kapituluan ezarritakoaren araberakoa izango da. Atxikipenaren oinarria ordaindutako guztirako zenbatekoa izango da. Hala ere, kontuan hartuko da lanaren etekinei buruz araudi honen 83. artikuluan xedatutakoa, higigarrien kapitalaren etekinei buruz 90. artikuluan xedatutakoa eta talde inbertsioko erakundeen akzio edo partaidetzen eskualdaketetan edo itzulketetan sortutako ondare irabaziei buruz 94. artikuluan xedatutakoa.

**2.** Gauzazko ordainketengatik egin beharreko konturako sarreraren zenbatekoa zehazteko, ordainketa horien balioa kalkulatuko da, araudi honetan adierazitako moduan, eta hurrengo III. kapituluan ezarritakoaren arabera dagokion portzentajea aplikatuko zaio.

**81. artikulua. Atxikipena edo konturako sarrera egin beharra sortzea.**

**1.** Atxikipena edo konturako sarrera egin beharra, oro har, errentak ordaintzen diren unean sortuko da.

**2.** (10) Higigarrien kapitalaren etekinak direla eta, araudi honen 91. artikuluan xedatutakoa beteko da.

**3.** (10) Talde inbertsioko erakundeen akzio eta partaidetzen eskualdaketa edo itzulketetan izandako ondare irabaziak eta harpidetza eskubideak eskualdatzearen ondoriozko irabaziak direla eta, ei dagokienez, araudi honen 95. artikuluan xedatutakoa beteko da.

**82. artikulua. Atxikipen edo konturako sarreren denbora egozketa.**

Zergadunek, atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako errentak zein zergaldiri egozten dizkioten, hari egotziko dizkiote atxikipenak edo konturako sarrerak, noiz egin diren kontuan hartu gabe.

## II. KAPITULUA
## ATXIKIPENEN KALKULUA

### Lehen atala
### Lanaren etekinak

**83. artikulua. Lanaren etekinen gaineko atxikipenen zenbatekoa.**

**1.** Lanaren etekinen gainean egin beharreko atxikipena kalkulatzeko, lanaren etekinen zenbateko osoari jarraian azalduko diren portzentajeetatik egokia aplikatu behar zaio:

a) Oro har, etekinen zenbatekoa eta zergadunaren inguruabar pertsonalak kontuan harturik hurrengo artikuluaren taularen eta jarraibideen arabera aplikatu behar den portzentajea.

b) Administratzaileek, administrazio kontseiluetako eta horien ordezko batzordeetako kideek eta beste ordezkaritza organo batzuetako kideek jasotzen dituzten ordainsarien kasuan, atxikipen portzentajea ehuneko 35 izango da.

**2.** (29) Aurreko apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, lanaren errenta jakin batzuei zergaren foru arauaren 19. edo 20. artikuluetan edo hogeita batgarren xedapen gehigarrian aipatutako ehunekoak aplikatu behar bazaizkie, errenta horien zenbateko osoa kalkulatzeko aipatutako ehuneko horiek erabiliko dira.

**3.** Jasotzaile berari diruz eta gauza bidez ordaintzen zaizkionean lan errentak, ordaindutako kontraprestazio edo onura guztien gainean egingo da atxikipena.

**4.** Atxikipenaren portzentajea diruzko eta gauzako ordainsariak, hau da, aurretik ikusi ahal izan eta finko zein aldakorrak direnak, kontuan hartuz kalkulatuko da.

Hala eta guztiz ere, atxikipenaren portzentajea kalkulatzeko, ez dira kontuan hartuko borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeetako bazkide babesleek ordaindutako ekarpenak, ez eta enpresek pentsio planei, enpresen gizarte aurreikuspeneko planei eta gizarte aurreikuspeneko mutualitateei egindako ekarpenak ere, baldin eta horiek zerga oinarri orokorra txikitzen badute Zergaren Foru Arauaren 71.1 paragrafoan ezarritakoa aplikatuz gehienez ateratzen den mugaraino.

(29) Halaber, ez dira atxikipen oinarrian sartuko langile autonomoen araubide bereziko Gizarte Segurantzako kotizazioen kontzeptuan kooperatibek, arau xedapenak betez, bazkide langileen edo lan bazkideen gizarte eta laguntza estaldurarako ordaintzen dituzten zenbatekoak, ezta Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuek aldi baterako ezintasuneko egoeran dauden langile autonomoei dagokienez ordaintzen dituztenak ere.

Aurreko paragrafoetan aipatu den portzentajea ordaindutako kontraprestazio eta onura guztiei aplikatuz ateratzen den zenbatekoa ordaindutako diru etekinetatik kenduko da.

**5.** (29) Halaber, zergaren foru arauaren 56 bis artikuluan xedatutakoa aplikatzeaerabakitzen duten zergadunek atxikipena egin behar duen pertsonari edo erakundeari eskatu ahal izango diote arautegi honen 83. artikuluko 1. apartatuaren a) letran xedatutakoa aplikatzeko, kasuan kasuko atxikipen tasaren gainean ehuneko 30eko murrizketa aplikatuta.

**84. artikulua. Atxikipen portzentajeen taula eta hura aplikatzeko erregelak.**

**1.** (12) (20) (22) (23) (25) (26) (31) Atxikipenen ehunekoen taula orokorra.

| **Urteko etekinak, zenbatekoa (€)** | | **Ondorengo kopurua** | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Gutxienez** | **Gehienez** | **0** | **1** | **2** | **3** | **4** | **5** | **Gehiago** |
| **0,00** | **14.000,00** | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **14.000,01** | **15.410,00** | 5 | 3 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| **15.410,01** | **16.230,00** | 6 | 4 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| **16.230,01** | **17.370,00** | 7 | 5 | 3 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| **17.370,01** | **18.680,00** | 8 | 6 | 4 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| **18.680,01** | **19.970,00** | 9 | 7 | 5 | 2 | 0 | 0 | 0 |
| **19.970,01** | **21.520,00** | 10 | 8 | 6 | 3 | 0 | 0 | 0 |
| **21.520,01** | **23.350,00** | 11 | 10 | 8 | 5 | 1 | 0 | 0 |
| **23.350,01** | **24.970,00** | 12 | 11 | 9 | 6 | 3 | 0 | 0 |
| **24.970,01** | **26.930,00** | 13 | 12 | 10 | 7 | 4 | 0 | 0 |
| **26.930,01** | **29.260,00** | 14 | 13 | 11 | 9 | 6 | 2 | 0 |
| **29.260,01** | **32.010,00** | 15 | 14 | 13 | 10 | 8 | 4 | 0 |
| **32.010,01** | **35.330,00** | 16 | 15 | 14 | 12 | 9 | 6 | 0 |
| **35.330,01** | **39.900,00** | 17 | 16 | 15 | 13 | 11 | 8 | 0 |
| **39.900,01** | **43.590,00** | 18 | 17 | 16 | 15 | 13 | 10 | 2 |
| **43.590,01** | **46.980,00** | 19 | 18 | 17 | 16 | 14 | 12 | 4 |
| **46.980,01** | **50.950,00** | 20 | 19 | 18 | 17 | 15 | 13 | 7 |
| **50.950,01** | **55.350,00** | 21 | 20 | 20 | 18 | 17 | 15 | 9 |
| **55.350,01** | **59.890,00** | 22 | 21 | 21 | 19 | 18 | 16 | 11 |
| **59.890,01** | **63.800,00** | 23 | 22 | 22 | 21 | 19 | 18 | 12 |
| **63.800,01** | **68.040,00** | 24 | 23 | 23 | 22 | 21 | 19 | 14 |
| **68.040,01** | **72.840,00** | 25 | 25 | 24 | 23 | 22 | 20 | 16 |
| **72.840,01** | **78.390,00** | 26 | 26 | 25 | 24 | 23 | 22 | 17 |
| **78.390,01** | **84.410,00** | 27 | 27 | 26 | 25 | 24 | 23 | 19 |
| **84.410,01** | **89.690,00** | 28 | 28 | 27 | 26 | 25 | 24 | 20 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **89.690,01** | **95.680,00** | 29 | 29 | 28 | 27 | 27 | 25 | 22 |
| **95.680,01** | **102.280,00** | 30 | 30 | 29 | 29 | 28 | 27 | 23 |
| **102.280,01** | **110.120,00** | 31 | 31 | 30 | 30 | 29 | 28 | 25 |
| **110.120,01** | **118.780,00** | 32 | 32 | 31 | 31 | 30 | 29 | 26 |
| **118.780,01** | **128.700,00** | 33 | 33 | 32 | 32 | 31 | 30 | 28 |
| **128.700,01** | **139.880,00** | 34 | 34 | 33 | 33 | 32 | 32 | 29 |
| **139.880,01** | **153.200,00** | 35 | 35 | 34 | 34 | 33 | 33 | 31 |
| **153.200,01** | **167.790,00** | 36 | 36 | 36 | 35 | 35 | 34 | 32 |
| **167.790,01** | **185.460,00** | 37 | 37 | 37 | 36 | 36 | 35 | 33 |
| **185.460,01** | **207.280,00** | 38 | 38 | 38 | 37 | 37 | 36 | 35 |
| **207.280,01** | **230.150,00** | 39 | 39 | 39 | 38 | 38 | 37 | 36 |
| **230.150,01** | **Hortik gora** | 40 | 40 | 40 | 39 | 39 | 39 | 37 |

**2.** Taula aplikatzeko erregela orokorrak.

1. Taula aplikatzeko kontuan hartu behar diren ondorengoak Zergaren Foru Arauaren 79. artikuluan aipatutako kenkarirako eskubidea sortzen dutenak baino ez dira. Horri dagokionez, familiaren egoera izango da egutegiko urteko lehenengo egunean dagoena, edo harremanen hasierako egunekoa, baldin eta harremanok hasi badira egutegiko urtearen lehenengo egunaren ondoren.

Ez dira kontuan hartuko atxikipena egin behar den zergaldian 30 urte baino gehiago beteko dituzten ondorengoak, salbu eta ondorengook Zergaren Foru Arauaren 82. artikuluan aipatutako kenketa egiteko eskubidea sortzen dutenean.

2. Taula aplikatzen denean kontuan hartu behar den ordainsari bolumena hartukizun osoaren arabera zehaztuko da, zergadunak, kontratuko arau edo hizpaketa aplikagarriak eta aurreikus daitezkeen gainerako inguruabarrak direla bide, egutegiko urtean hartuko bide dituen diruzko eta gauzazko ordainsariak kontuan harturik.

Urteko hartukizun osoan, hartu bide diren ordainsari finkoez gain aldakorrak ere sartuko dira.

(29) Ordainsari horietarikoren bati zergaren foru arauaren 19. edo 20. artikuluetako eta hogeita batgarren xedapen gehigarriko xedapenak aplikatu behar bazaizkio, ordainsariaren gaineko atxikipenaren ehunekoa kalkulatzeko, artikulu horietan eta xedapen gehigarri horretan adierazitako integrazio ehunekotik egokitzen dena aplikatuz ateratzen den kopurua zenbatuko da etekintzat.

3. (29) Horrela zehaztutako atxikipen ehunekoa ordaindutako ordainsari guztiei aplikatuko zaie. "Ordainsari horietarikoren bati zergaren foru arauaren 19. edo 20. artikuluetako eta hogeita batgarren xedapen gehigarriko xedapenak aplikatu behar bazaizkio, 19. eta 20. artikulu horietan eta xedapen gehigarri horretan adierazitako ehunekotik egokitzen dena aplikatuz ateratzen den etekinean aplikatuko da ordainsariaren gaineko atxikipenaren ehunekoa.

Urtean zehar diru edo gauza bidezko ordainketen kopurua aldatzen denean, beste portzentaje bat kalkulatuko da, aldaketak kontuan hartuta. Dena delako aldaketak gertatzen direnetik aurrera bakarrik aplikatuko da beste portzentaje hori.

Urtebete baino gutxiago dirauen kontratu edo harremanaren hasieran ezarritako iraunaldia amaitutakoan langileak enplegatzaile berari zerbitzuak egiten jarraitzen badu, edo egutegiko urtea amaitu aurretik berriro hasten bazaio zerbitzuak egiten, beste atxikipen portzentaje bat kalkulatuko da eta horretarako kontuan hartuko dira bai lehenago hartu dituen ordainsariak eta bai aurrerantzean hartuko bide dituenak, betiere egutegiko urte batean.

4. Aurreko paragrafoetan xedatutakoaren arabera ateratzen den atxikipen portzentajea, gutxienez, ehuneko 15 izango da etekinak mendetasunezko lan harreman berezietatik sortzen badira, eta, gutxienez, ehuneko 2, kontratu edo harremanak urtebete baino gutxiago irauten badu.

Alabaina, ez zaie aplikatuko aurreko paragrafoan aipatzen den ehuneko 15eko gutxieneko portzentaje hori espetxeratuek espetxean lortzen dituzten etekinei, ez eta ezinduek lan harreman berezietatik ateratzen dituzten etekinei ere.

**3.** Taula aplikatzeko arau berariazkoak.

1. Pentsioetan eta hartzeko pasiboetan, ondorengo bakarreko zergadunari dagokion taulako zutabeko atxikipen portzentajeak erabiliko dira.

Aplikatu beharreko atxikipen portzentajea zehaztearren bakar-bakarrik, bidezkoa izango da ekitaldian zehar pentsiodun edo hartzeko pasiboen titular izatera igaro direnek pentsioen edo hartzeko pasiboen zioz hartutako kopuruak urteari egokitzea.

Hala ere, zergadunak atxikipenen taula orokorra aplikatzea aukeratu ahal izango du, bere inguruabar pertsonalen arabera, eta hala egiten badu ez da bidezkoa izango hartutako kopuruak urteari egokitzea.

2. Enplegatzailearekin egunez eguneko harremana izan eta ordainsariak eguneko soldata gisa jasotzen dituzten eskulangileen kasuan, taula aplikatzeko kontuan hartu beharreko ordainsarien zenbatekoa kalkulatzeko, eguneko soldata bider 100 egingo da.

3. Lanaren etekinen jasotzaileak, epailearen ebazpena dela bide, konpentsazio pentsioa eman behar badio bere ezkontideari edo izatezko bikotekideari, horren zenbatekoa atxikipen portzentajea kalkulatzeko kontuan hartu beharreko ordainsarien zenbatekoari kendu ahal izango zaio.

(29) Horretarako, zergadunak ordaintzaileari, arautegi honetako 85. artikuluan ezarritako moduan, inguruabar horren berri emango dio, pentsioa zehazten duen ebazpen judizialaren hitzezhitzeko lekukotasun agiria erantsita.

Erregela honetan ezarritako murrizketa aplika dadin, beharrezkoa izango da langileak kontratu mugagabea izatea. Gainera, epaileak pentsioa emateko agindu eta hurrengo zergalditik aurrera baino ezingo da eskatu murrizketa hori.

Erregela honetan aipatutako kasuetan, kalkulatzen den atxikipen portzentajea ehuneko 2 baino txikiagoa bada, ehuneko 2ko portzentajea aplikatuko da.

**4.** (12) (20) (23) (25) (26) (31) Desgaitasuna duten langile aktiboak.

Desgaitasuna duten langile aktiboei artikulu honen 1. apartatuan aipatutako atxikipen ehunekoen taula orokorra aplikatuko zaie. Taula orokorra aplikatzetik ateratzen den atxikipen ehuneko horri eskala honetan ezarritako puntuak kenduko zaizkio, langilearen egoeraren arabera:

a) Ehuneko 33ko edo hortik gorako eta ehuneko 65etik beherako desgaitasun maila duen langile aktiboa bada.

b) Ehuneko 33 edo gehiagoko eta ehuneko 65 baino gutxiagoko desgaitasun maila duten langile aktiboak, mugikortasun urriko gabezia egoeran daudenak, halakotzat hartuta urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuaren (desgaitasun maila aitortzeko, adierazteko eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duena) Mugikortasun Jardueren Mugen (BLAM) azpibaremoan ehuneko 25eko edo gehiagoko azken mugikortasun muga lortzea.

c) Ehuneko 65eko edo hortik gorako desgaitasun maila duen langile aktiboa bada.

| **Urteko etekinaren zenbatekoa (€)** | | **Desgaitasun gradua** | |
|---|---|---|---|
| **Gutxienez** | **Gehienez** | **4.a) apartatua** | **4.b) apartatua eta 4.c) apartatua** |
| **0,00** | **24.970,00** | 9 | 12 |
| **24.970,01** | **32.010,00** | 7 | 12 |
| **32.010,01** | **46.980,00** | 6 | 10 |
| **46.980,01** | **55.350,00** | 5 | 10 |
| **55.350,01** | **78.390,00** | 4 | 8 |
| **78.390,01** | **118.780,00** | 3 | 6 |
| **118.780,01** | **185.460,00** | 2 | 5 |
| **185.460,01** | **Hortik gora** | 1 | 3 |

**85. artikulua. Lanaren errenten hartzaileak datuak jakinaraztea ordaintzaileari.**

**1.** Zergadunek ordaintzaileari jakinarazi behar diote zenbat ondorengo dituzten Zergaren Foru Arauaren 79. artikuluan ezarritako kenkarirako eskubidea dutenak, eta jakinarazi egin behar diote epailearen aginduz konpentsazio pentsioa ordaindu behar diotela ezkontideari edo izatezko bikotekideari, hala denean, horrela araudi honen 84. artikuluaren 1. paragrafoko taula aplikatu dakien.

(29) Era berean, langile aktibo desgaituek zergaren foru arauaren 23. artikuluko 3. Apartatuan aipatutako egoera jakinarazi eta egiaztatuko dute.

(29) Halaber, zergaren foru arauaren IV. tituluko VI bis kapituluan jasotako araubide berezia,lekualdatutako langileentzakoa, aplikatzeko aukera jakinarazi beharko dute.

**2.** Aurreko paragrafoan aipatutako datuak ordaintzaileari jakinarazi ezean, ordaintzaileak ez ditu kontuan hartuko atxikipen portzentajea aplikatzerakoan. Bestalde, datu horiek ez emateagatik edo gezurrezko datuak emateagatik zehapena ezarri ahal izango da, bidezkoa izanez gero.

**3.** Aurreko 1. paragrafoan aipatutako datuak egutegiko urtearen lehen egunaren aurretik edo harremana hasten den unean jakinaraziko dira.

Ez da beharrezkoa izango datuak ordaintzaileari urtero jakinaraztea, zergadunak azkenengoz jakinarazi zituenetik aldatu ez badira.

**4.** Zergadunek ordaintzaileei edonoiz eskatu ahal izango diete araudi honetan ezarritakoaren arabera ateratzen diren atxikipen portzentajeak baino handiagoak aplikatu ditzatela, honako arau hauei jarraituz:

a) Idatzizko eskaera aurkeztuko zaie ordaintzaileei, eta hauek nahitaez egingo dute eskatutakoa, nominak egin aurretik, behar beste denbora lehenago.

b) Eskaera aurkezten denetik urtea amaitu arte, eskatutako atxikipen portzentaje berria ezin izango da aldatu, araudi honen 84. artikuluaren 2. paragrafoaren 3. erregelan azaltzen diren kasuetan izan ezik, eta portzentaje hori hurrengo ekitaldietan aplikatuko zaio zergadunari, ez baldin badio idatziz uko egiten edo atxikipen portzentaje handiagoa eskatzen eta inguruabarren aldaketaren batek atxikipen portzentajea handitzen ez badu, atxikipen portzentajeen taulen arabera.

**5.** Pentsiodunek, atxikipen portzentajeen taula orokorra aukeratzen badute, hala adieraziko diote idatziz ordaintzaileari edo erakunde kudeatzaileari abenduan, urtero, edo pentsioduna nahiz hartzeko pasiboaren titularra izatera igaro aurreko urtean.

**6.** Ordaintzaileak gorde egin behar ditu zergadunak aurkeztutako egiaztagiri edo jakinarazpenak eta Zerga Administrazioaren esku jarri behar ditu hala eskatuz gero.

**86. artikulua. Egoitza aldatzen denean lanaren etekinen gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak zehazteko prozedura berezia.**

**1.** Besteren konturako langile batek, zerga honen kargapeko ez denak, egoitza Espainiako lurraldera aldatu eta ondorioz Zergaren kargapean geratzekoa bada, horren berri eman ahal izango dio Zerga Administrazioari Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak onartzen duen ereduaren bidez; hain zuzen ere,

foru diputatu horrek adieraziko du eredua nola, non eta noiz aurkeztu behar den, bai eta zein agiri aurkeztu behar diren ere.

Berriematean langilearen eta lanaren etekinen ordaintzailearen identifikazioak agertuko dira, langilea noiz sartu den Espainiako lurraldean eta ordaintzaile horrentzat noiz hasi den lanean adierazi behar da, eta zehaztu behar da lan harreman horretan ba ote dagoen daturik pentsarazten duenik harreman horren ondorioz langilea egoitza aldaketa gertatzen den egutegiko urtean, edo hurrengoan bestela, Espainiako lurraldean lanean ehun eta laurogeita hiru egun baino gehiago, Espainiako lurraldean hasten denetik zenbatuta, egongo dela.

**2.** Zerga Administrazioak, berriematea eta berarekin aurkeztutako agiriak aztertu ondoren, zerga honen ziozko atxikipenak zein egunetan hasiko zaizkio egiten adierazten duen frogagiria bidaliko dio langileari, bidezkoa bada, eta bidali ere berriematea aurkeztu eta hamar egun baliodun igaro baino lehen.

**3.** Langileak lanaren etekinen ordaintzaileari Zerga Administrazioak emandako agiriaren ale bat emango dio, atxikipenak aplikatzean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergaduntzat har dezan bertan adierazitako egunetik aurrera.

**4.** Agiri hori jasotakoan, eta bertan adierazitako egunetik aurrera, atxikitzaileak zerga honi buruzko araudian ezarritakoaren arabera aplikatuko ditu atxikipenak.

**5.** Interesatua egoitza aldatzen duen urtean zerga honen zergadun bihurtzen ez bada, zerga honen kontura aplikatutako atxikipenak kendu ahal izango ditu Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioan.

Halaber, apirilaren 19ko 7/1999 Foru Arauaren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarenaren, 32. artikuluan ezarritakoa aplikatu behar bada eta langilea egoitza atzerrira aldatzen duen urtean ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren kargapeko zergadun bihurtzen ez bada, zerga horren zioz aplikatzen diren atxikipenak eta konturako sarrerak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren konturako ordainketatzat hartuko dira.

## Bigarren atala
## Kapital higikorraren etekinak

### 87. artikulua. Higigarrien kapitalaren etekinen gaineko atxikipenen zenbatekoa. (1) (3) (17)

1. (18) Kapital higigarriaren etekinetan egin beharreko atxikipenaren zenbatekoa atxikipen oinarriaren ehuneko 19 izango da. Jabetza intelektualaren ondoriozko kapital higigarriaren etekinetan egin beharreko atxikipena, zergaduna egilea ez bada, atxikipen oinarriaren ehuneko 15 izango da.

2. Arautegi honetako 77. artikuluko 3. apartatuan aipatzen diren higigarrien kapitalaren etekin positiboetan egin beharreko atxikipena edo konturako ordainketa kalkulatzeko, atxikipen oinarriari ehuneko 19 aplikatuko zaio.

**88. artikulua. Finantza aktiboen kontzeptua eta sailkapena.**

**1.** Finantza aktiboak dira besteren kapitalen erakarpen eta erabileraren ordezkagarri diren balore negoziagarriak, haiek dokumentatzeko modua gorabehera.

**2.** Finantza aktiboek etekin inplizitua dutela ulertuko da haiek jaulkitzean, lehenengoz kokatzean edo endosatzean ordaindutako zenbatekoaren eta mugaegunean itzuli beharrekoaren arteko diferentziaren bidez sortzen badute etekina, besteren baliabideak erakartzeko erabiltzen diren balore higigarrien bitartez osorik edo zati batean eta inplizituki finkatutako etekina duten eragiketetan.

Jaulkipen, amortizazio edo itzulketa primak etekin inplizituetan sartuko dira.

Ez dira etekin inplizituetan sartuko kokapen primak edo hobariak, jaulkipen prezioaren gainekoak, baldin eta merkatuko praktiken barruan kobratzen badira eta xedapen honetan aipatutako finantza aktiboak jaulkitzen eta zirkulazioan jartzen dituen finantza bitartekari edo kokatzailearentzako diru sarrerak badira oso-osorik.

Etekin inplizitua duen finantza aktibotzat joko da igorpena egiteko edozein tresna, bai eta merkataritzako eragiketetan endosua edo eskualdaketa egiten den uneaz gero sorrarazitakoak ere, salbu eta endosu edo lagapena hornitzaileentzako kreditu baten ordain gisa egiten denean.

**3.** Etekin esplizitua duten finantza aktibotzat hartuko dira aldian-aldian korrituak sortzen dituztenak, bai eta hirugarrenei norberaren kapitalak lagatzearen truke ituntzen den beste edozein ordain ere, baldin eta ez bada etekin inplizituen kontzeptuan egokitzen, aurreko paragrafoan azaldutakoaren arabera.

**4.** Etekin mistoa duten finantza aktiboak etekin esplizitua duten finantza aktiboen araubideari lotuko zaizkio urtean sortzen duten benetako etekin esplizitua jaulkipenean indarrean egon den erreferentzia tasaren bestekoa edo gehiago denean, nahiz eta jaulkipen, amortizazio edo itzulketaren baldintzetan modu inplizituan beste etekin batzuk ere finkatu. Erreferentziako tasa hori, egutegiko hiruhileko bakoitzean, aurreko hiruhilekoan Estatuaren hiru urterako bonuen azken enkantean atera den batez besteko prezio ponderatu eta biribilduari dagokion tasa efektiboaren ehuneko 80 izango da, finantza aktiboek, gehienez, lau urteko epea badute; finantza aktiboek lau urtetik gorako eta, gehienez, zazpi urteko epea badute, berriz, Estatuaren bost urterako bonuen enkantearen emaitza hartuko da kontuan, eta finantza aktiboek epe luzeagoa badute, Estatuaren hamar, hamabost edo hogeita hamar urterako obligazioen enkantearen emaitza. Eperen baterako erreferentzia tasa zehaztu ezin bada, prestatutako jaulkipenaren epetik hurbileneko epea aplikatuko da.

Etekin aldakor edo flotatzailea duten finantza aktiboen jaulkipenak direla eta paragrafo honetan xedatutakoari dagokionez, eragiketaren korritu efektibo gisa barne etekinaren tasa hartuko da, eta etekin esplizitu eta kalkulatua duten etekinak bakarrik hartuko dira kontuan, halakorik bada, sorrarazitako etekinen behin betiko zenbatekoa aldian-aldian finkatzeko erabiltzen den parametroaren hasierako balorazioaren arabera.

Aurrekoa gorabehera, etekin mistoko zor publikoa bada eta haren kupoiak eta amortizazio zenbatekoa kontsumo prezioen indizearen arabera kalkulatzen bada, lehen paragrafoko portzentajea ehuneko 40 izango da.

**89. artikulua. Finantza aktiboak eskualdatu, itzuli eta amortizatzeko zerga baldintzak.**

**1.** Etekin inplizitua duten finantza aktibo edo tituluak eta etekin esplizitua duten finantza aktiboak, eskualdatu, amortizatu edo itzultzen direnean atxikipena egin behar zaienak, besterentzeko edo horien itzulketa lortzeko, frogatu egin behar da aurretik horiek eskuratu direla atxikipena egin behar duten fede emaile edo finantza erakundeek esku hartuta, bai eta eragiketaren prezioa ere.

Igorpen tresna bat zirkulazioan jarri eta gero finantza aktibo bihurtzen bada, jada lehenengo endosu edo lagapena fede emaile publiko edo finantza erakunderen baten bitartez egingo da, salbu eta endosu hartzaile edo eskuratzailea bera finantza erakundea denean. Fede emaileak edo finantza erakundeak agirian agerraraziko du finantza aktiboa dela, eta lehenengo eskuratzaile edo edukitzailearen identifikazioa jarriko du.

**2.** Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, pertsona edo erakunde jaulkitzaileak, horren kontura diharduen finantza erakundeak, fede emaile publikoak edo eskuratzailearen nahiz gordailugilearen kontura jardun edo esku hartzen duen finantza erakundeak ziurtagiria emango du, honako datu hauek dituena:

a) Eragiketaren data eta aktiboaren identifikazioa.

b) Eskuratzailearen izena.

c) Eskuratzaile edo gordailugilearen identifikazio fiskaleko zenbakia.

d) Eskuratze prezioa.

Ziurtagiri horren hiru ale egingo dira, bi eskuratzailearentzat eta bat ziurtagiria ematen duen pertsona edo entitatearentzat.

**3.** Finantza erakundeek edo fede emaile publikoek ez dute esku hartuko aktibo horien eskualdaketan, eskualdatzaileak ez badu artikulu honetan xedatutako moduan frogatzen haiek eskuratu izana.

**4.** Artikulu honetan aipatutako finantza aktiboak jaulkitzen dituzten pertsona edo erakundeek ezin izango dute horien itzulketa onartu edukitzaileak ez badu frogatzen aldez aurretik horiek eskuratu izana, aurreko 2. paragrafoan adierazitako moduan egindako ziurtagiriaren bitartez.

Jaulkitzaileak edo eragiketaz arduratzen diren finantza erakundeek, aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera ezin badiote itzulketa onartu titulu edo aktiboaren edukitzaileari, horren zenbatekoa gordailutu beharko dute eta agintari judizialaren esku jarri.

Berrerosketa, erreskatea, kitapena edo amortizazio aurreratua egin ahal izateko, finantza erakunde edo fede emaile publikoren batek esku hartu edo bitartekari jardun behar du, eta aktiboa jaulki duen erakundea edo pertsona, titulua berriro zirkulazioan jartzen badu, eskuratzaile hutsa izango da.

**5.** Tituluaren edukitzaileak, titulua eskuratu izanaren ziurtagiria galtzen badu, kopia eskatu ahalko dio ziurtagiria eman zuen pertsona edo erakundeari.

Pertsona edo erakunde horrek agiri horretan jarriko du kopia bat dela, eta zein egunetan eman duen.

**6.** Artikulu honen ondorioetarako, doako eskuratzeetan, hartzailea eskualdatzailearen eskuratze balioan subrogatu dela esan nahiko du, kostu hori behar adina frogatuta baldin badago.

**90. artikulua. Higigarrien kapitalaren etekinen gaineko atxikipenaren oinarria.**

**1.** Higigarrien kapitalaren etekinen gaineko atxikipen oinarria, oro har, eska daitekeen edo ordaindu den kontraprestazio osoa izango da. Inoiz ez da kontuan hartuko, horri dagokionez, Zergaren Foru Arauaren 9. artikuluaren 24. zenbakian ageri den salbuespena.

**2.** Finantza aktiboak amortizatu, itzuli edo eskualdatzen direnean, atxikipenaren oinarria hau izango da: aktibo horien amortizazio, itzulketa edo eskualdatze balioaren eta eskuratze edo harpidetza balioaren arteko diferentzia positiboa. Eskuratze baliotzat hartuko da eskuratzearen ziurtagirian ageri dena. Horri dagokionez ez dira kenduko eragiketaren gastu gehigarriak.

Eskualdatzaileari dagokion atxikipenaren kalterik gabe, finantza aktibo bat jaulki duen erakundeak aktibo hori eskuratzen badu, atxikipena eta sarrera egingo dira titulu horretatik aurrerantzean edozein modutan lortzen dituen etekinen gainean, amortizazioa salbu.

**3.** Atxikipena egin beharra araudi honen 78. artikuluaren f) idatz zatiaren azken lerroaldean xedatutakoaren ondorioz sortzen denean, prezioaren zati bat izango da atxikipen oinarria, hain zuzen ere eskualdatutako balorearen kupoi jarraituaren besteko zatia.

**4.** Zergaren Foru Arauaren 37. artikuluan arautzen diren etekinei 39.3 artikuluan aipatzen diren portzentajeak aplikatu behar bazaizkie, portzentaje horiek hartuko dira kontuan atxikipen oinarria kalkulatzeko.

**5.** Aseguru kontratuen bidez sortutako hartukizunetarako eta kapital ezarpenen bidez sortutako bizi arteko errenta eta aldi baterako beste errenta batzuetarako, bai eta araudi honen 78. artikuluaren i) idatz zatiaren bigarren eta hirugarren lerroaldeetan xedatutako sozietatearen kapital murrizketetan (ekarpenak itzuliz eta akzioen jaulkitze saria banatuz) ere, Zergaren Foru Arauan adierazten den bezala kalkulatutako zerga oinarrian sartu beharreko zenbatekoa izango da atxikipen oinarria.

**6.** (17) Bidezkoa denean zergaren foru arauaren Hogeita Hamabigarren Xedapen Gehigarriaren 6. apartatuan aurreikusitako konturako ordainketa bat egiteko betebeharra, horren oinarria izango da planaren indarraldian lortu diren higigarrien kapitalaren etekin positiboen zenbatekoa, baldin eta horiek aipatutako foru arauaren 9. artikuluko 37. zenbakian aurreikusitako salbuespena aplikatuta badute.

**91. artikulua. Higigarrien kapitalaren etekinen gainean atxikipena eta konturako sarrera egin beharra sortzea.**

**1.** Oro har, atxikipena eta konturako sarrera egin beharra sortuko da kapital higigarriaren diruzko edo gauzazko etekinak, atxikipenari edo konturako sarrerari

lotuak, hurrenez hurren, eska daitezkeen unean, edo haiek ordaintzen edo ematen diren unean, lehenagokoa bada.

Korrituak eska daitezke, zehazki, eskrituran edo kontratuan haiek likidatu edo kobratzeko ezarritako mugaegunak iristen direnean, edo beste moduren batean haiek kontuan aitortzen direnean, nahiz eta hartzaileak kobratzeko eskatu ez edo etekinak eragiketaren printzipalarekin metatu, eta dibidenduak eska daitezke haiek banatzeko erabakian ezarritako eguna iristen denean, edo erabaki hori hartu eta biharamunetik aurrera, egunik ezartzen ez bada.

**2.** Finantza aktiboen eskualdaketaren, amortizazioaren edo itzulketaren bidez kapital higigarritik sortzen diren etekinen kasuan, atxikipena egin beharra eskualdaketa, amortizazioa edo itzulketa egiten denean sortuko da.

Eskualdaketa formalizatzen den egunean egingo da atxikipena, kobratzeko itundutako baldintzak edozein direla ere.

**3.** (17) Foru arauaren Hogeita Hamabigarren Xedapen Gehigarriaren 6. apartatuan aipatzen den konturako ordainketa egiteko betebeharra, hala badagokio, sortuko da foru arau horretako 9. artikuluko 37. zenbakian aurreikusten den epea baino lehen emaitza den kapitala erabiltzen den unean edo xedapen gehigarriaren 1. apartatuko c) letran aurreikusten den ekarpenen muga betetzen ez den unean.

## Hirugarren atala
## Jarduera ekonomikoen etekinak

### 92. artikulua. Jarduera ekonomikoen etekinen gaineko atxikipenen zenbatekoa.

**1.** (6) (30) Etekinak lanbide jarduera baten kontraprestazioak direnean, ehuneko 15eko atxikipen tasa aplikatuko da ordaindutako diru sarrera osoen gainean.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, jarduera profesionalak egiten hasten diren zergadunen kasuan, atxikipen tasa ehuneko 7koa izango da jarduerak hasten diren zergaldian eta hurrengo bietan, baldin eta jarduerak hasi aurreko urtean inolako jarduera profesionalik egin ez badute.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako atxikipen tasa aplikatzeko, zergadunek egoera horren berri eman beharko diote etekinen ordaintzaileari, eta ordaintzailea behartuta egongo da jakinarazpena behar bezala sinatuta gordetzera.

Ehuneko 7ko atxikipen tasa aplikatuko zaie honako hauei ordaindutako etekinei:

- Udal zerga biltzaileei.

- Kanpoko laguntzaileen zerbitzuak erabiltzen dituzten aseguru bitartekariei.

- Estatuaren Loteria eta Apustuen Estatu Sozietatearen ordezkari komertzialei.

- Zergadunei, egoera hauetan: batetik, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifen bigarren ataleko 851, 852, 853, 861 eta 862 taldeetan eta hirugarren ataleko 01, 02, 03 eta 05 multzoetan sartutako jarduerak garatzen dituzten zergadunen etekinak

direnean. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Tarifak onetsi zituen uztailaren 23ko 573/1991 Araugintzako Foru Dekretuak onetsi zituen aipatutako tarifak eta haiek aplikatzeko jarraibideak; beste batetik, lanbide jarduera horren kontraprestazioa, bere izaeragatik, besteren kontura eginez gero, arte eszenikoetan, ikus-entzunezkoetan eta musikaletan diharduten artisten lan harreman bereziaren aplikazio eremuan sartuko litzatekeen zerbitzu-emate baten ondorio denean; eta, azkenik, jarduera hori garatzeko behar diren jarduera teknikoak edo osagarriak egiten dituzten pertsonen etekinak direnean, baina, beti ere, atal honetan aurreikusita dauden aurreko hiru egoeretako edozeinetan jarduera horien multzoak aurre-aurreko ekitaldian izan dituen etekin osoen bolumena 15.000 eurotik beherakoa baldin bada, eta zergadunak ekitaldi horretan lortutako jarduera ekonomikoen eta lanaren etekin osoen baturaren ehuneko 75 baino gehiago. Atxikipen tasa hori aplikatzeko, zergadunek inguruabar horiek betetzen direla jakinarazi behar diote etekinen ordaintzaileari, eta ordaintzailea behartuta egongo da jakinarazpena behar bezala sinatuta gordetzera.

(32) Era berean, atxikipen-tasa ehuneko 7koa izango da, egile eskubideen ustiapenaren lagapenetik eratorritako konturako aurrerakinak direnean eta hainbat urtetan zehar sortuko direnean.

**2.** Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, honako hauek lanbide jardueren etekintzat hartuko dira:

a) Oro har, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifen bigarren eta hirugarren ataletan sailkatutako jardueren bidez lortzen direnak (tarifa horiek uztailaren 23ko 573/1991 Araugintzako Foru Dekretuak onartu zituen).

b) Batez ere, jarraian aipatzen diren pertsonek lortzen dituzten etekinak lanbide etekintzat joko dira:

c) 1. Obren egile edo itzultzaileak, jabetza intelektual edo industrialetik etekinak ateratzen dituztenean. Egile edo itzultzaileek berek argitaratzen badituzte beren obrak, etekinak enpresa jardueren etekintzat hartuko dira.

   2. Komisiodunak. Komisioduntzat hartuko dira alde interesdunak kontratua egiteko elkarrenganatzen dituztenak.

   Aitzitik, komisiodunei dagozkien eragiketak bakarrik egiten ez dituztela usteko da, haiek, aurreko lerroaldean deskribatutako eginkizunaz gain, merkataritzako eragiketa horien arriskua eta zoria berenganatzen dutenean. Horrelakoetan, etekina enpresa jarduerei dagozkienen artean egongo da.

   3. Beren egoitzetan, etxe partikularretan nahiz akademia edo establezimendu irekietan diharduten irakasleak, irakaskuntza mota edozein izanda ere. Norberaren akademian edo establezimenduan irakastea enpresa jardueratzat hartuko da.

   4. Hitzaldiak, mintegi edo ikastaroetako txostenak eta antzeko jarduerak, lan harremanetatik kanpo egiten direnean.

**3.** Ez dira hartuko lanbide jardueren etekintzat enpresa baten eginkizun batzuen trukean soldata jasotzen dutelarik elkargo jakin batean inskribatu behar duten pertsonek jasotzen dituzten kopuruak, ez eta, oro har, lan harremanen edo mendekotasun harremanen ondoriozkoak ere. Kopuru horiek lanaren etekinak izango dira.

**4.** Etekinak nekazaritza edo abeltzaintzako jardueraren baten kontraprestazioak direnean, atxikipen portzentaje hauek aplikatuko dira:

- Txerriak gizentzeko abeltzaintzako jarduerak eta hegazti hazkuntza: ehuneko 1.

- Gainerako kasuetan: ehuneko 2.

Ehuneko horiek ordaindutako sarrera osoei aplikatuko zaizkie, dirulaguntza arruntei, kapital dirulaguntzei eta kalte-ordainei izan ezik.

Ondorio horietarako, nekazaritzako edo abeltzaintzako jardueratzat hartuko dira ustiategietatik zuzenean landare edo animalia produktu naturalak lortzeko jarduerak, eraldatze, lantze edo manufaktura prozesurik gabekoak.

Eraldatze, lantze edo manufaktura prozesutzat hartuko dira Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren tarifetan industria jarduerei dagokien epigraferen batean alta emanda egon behar diren jarduera guztiak.

Honako hauek nekazaritzako edo abeltzaintzako jardueratzat hartuko dira:

a) Abeltzaintza lokabea.

b) Nekazariek edo abeltzainek nekazaritzako edo abeltzaintzako lan edo zerbitzu osagarriak egitea, haien ustiategietan erabili ohi diren bitartekoekin.

c) Ganadua hazi, zaindu eta gizentzeko zerbitzuak.

**5.** Etekinak basogintzako jardueren kontraprestazioak direnean, ehuneko 2ko atxikipen tasa aplikatuko zaie ordaindutako sarrera osoei, salbu eta dirulaguntza arruntei, kapital dirulaguntzei eta kalte-ordainei.

**6.** 1. Etekinak badira zenbatespen objektiboko metodoaren arabera etekin garbia zehazten duen jarduera ekonomikoaren kontraprestazioak, ehuneko 1eko atxikipen tasa aplikatuko da ordaindutako diru sarrera osoen gainean.

2. Paragrafo honetan xedatutakoa aplikagarria izango da jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifetako lehen ataleko multzo eta epigrafe hauetan sailkatutako jardueretarako:

| JEZen taldea edo epigrafea | Jarduera ekonomikoa |
|---|---|
| 314 eta 315 | Metalezko arotzeria eta metalezko egitura eta galdaren fabrikazioa. |
| 316.2,3,4 eta 9 | Burdineria, sarrailagintza, torlojogintzako gaien fabrikazioa, eta burdin hariaren eratorri, tresneria eta beste ataletan ez dauden metalezko gaien fabrikazioa. |
| 453 | Janzkiak eta beraien osagarriak saldoka egitea, salbu eta horiek guztiak gehienbat beste batzuei aginduta egiten direnean. |

| | |
|---|---|
| 453 | Janzkiak eta beraien osagarriak saldoka egitea, enpresak berak eginda, baldin eta beste batzuentzat eta agindupean egiten badira. |
| 463 | Arotzeriako piezak, parketa eta eraikuntzarako zurezko egiturak saldoka egitea. |
| 468 | Zurezko altzarien industria. |
| 474.1 | Testuak edo irudiak inprimatzea. |
| 501.3 | Igeltsero lanak eta eraikuntzako orotariko lan txikiak. |
| 504.1 | Instalazio eta muntaketak (iturgintza, hotz eta bero instalazioak eta airea girotzekoak izan ezik). |
| 504.2 eta 3 | Iturgintza, hotz eta bero instalazioak eta airea girotzekoak. |
| 504.4, 5, 6, 7 eta 8 | Tximistorratzak eta antzekoak instalatzea. Mota guztietako sukaldeak muntatzea eta instalatzea beren osagarri guztiekin. Mota guztietako goragailuen muntaketa eta instalazioa. Edozein motatako eraikinetan telefonoa, telegrafoa, haririk gabeko telegrafoa eta telebista instalatzea. Metalezko muntaketak eta industria instalazioak osorik egitea instalazio edo muntaketarako makinak eta osagaiak saldu edo jarri gabe. |
| 505.1, 2, 3 eta 4 | Estaldurak, zolak eta zoladurak, eta isolamenduak instalatzea. |
| 505.5 | Arotzeria eta sarrailagintza. |
| 505.6 | Mota guztietako pintura, paper, ehun edo plastikozko estaldurak, eta eraikinak eta lokalak bukatu eta apaintzea. |
| 505.7 | Pintura, igeltsu eta eskaiolazko lanak, eta eraikin eta lokalen dekorazioa. |
| 722 | Salgaiak errepidez garraiatzea |
| 757 | Etxe aldaketak egiteko zerbitzua. |

3. Ezin izango da paragrafo honetan ezarritako salbuespena egin baldin eta, Zergaren Foru Arauaren 107.5 artikuluan xedatutakoari jarraituz, jarduera ekonomikoa egiten duen zergadunak ordaintzaileari jakinarazten badio zuzeneko zenbatespeneko metodoaren edozein modalitate erabiltzen duela jardueraren etekin garbia zehazteko. Jakinarazpen horietan datu hauek jarriko ditu:

a) Jakinarazlearen izen-deiturak, zerga egoitza eta identifikazio fiskaleko zenbakia. Jarduera ekonomikoa errenten egozketaren araubideko erakunderen baten bitartez

egiten badu, aurreko datuez gainera, erakunde horren izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia ere jarri behar ditu, eta haren ordezkaria dela adierazi.

b) Aurreko 2. zenbakian aurreikusten diren jardueretatik zein egiten duen eta jarduera ekonomikoen gaineko zergaren zein epigrafetan dagoen.

c) Jarduera horren etekin garbia zuzeneko zenbatespeneko metodoaren edozein modalitateren bidez zehazten duela.

d) Data eta jakinarazlearen sinadura.

e) Jakinarazpena hartu behar duen pertsona edo erakundearen identifikazioa.

Geroago zergadunak berriro zehazten baditu jarduera horren etekinak zenbatespen objektiboko metodoaren bidez, ordaintzaileari jakinaraziko dio, aurreko a), b), d) eta e) idatz zatietako datuak erantsiz, atxiki beharra sortu baino lehen.

Betiere, ordaintzaileak datuen jakinarazpenak gorde behar ditu, behar bezala sinatuta.

4. Aurreko 3. zenbakian aipatutako datuak behar bezala jakinarazteko eginbeharra betetzen ez bada, Zergaren Foru Arauaren 118. artikuluan xedatutakoaren ondorio fiskalak sortuko dira.

5. Apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuaren, balio erantsiaren gaineko zergari buruzko Araudia onartzen duenaren, 33.2 artikuluaren hirugarren lerroaldean adierazitako moduan egiten bazaio uko zenbatespen objektiboko metodoari, usteko da zergadunak bere jarduera ekonomikoaren etekin garbia zuzeneko zenbatespeneko metodoaren bidez zehazten duela balio erantsiaren gaineko zergaren autolikidazioa edo zatikako ordainketa aurkezten den egunetik aurrera.

## Laugarren atala
## Ondare irabaziak

**93. artikulua. Talde inbertsioko erakundeetako partaidetza edo akzioak itzuliz edo eskualdatuz lortutako ondare irabazien gaineko atxikipenen zenbatekoa.** (1) (3)

Talde inbertsioko erakundeen akzioak eta partaidetzak eskualdatuz edo itzuliz lortutako ondare irabazien gaineko atxikipenaren zenbatekoa kalkulatzeko, atxikipenaren oinarriari ehuneko 19ko portzentajea aplikatu behar zaio.

**94. artikulua. Talde inbertsioko erakundeetako partaidetza edo akzioak itzuliz edo eskualdatuz lortutako ondare irabazien gaineko atxikipenen oinarria.**

**1.** Talde inbertsioko erakundeen akzio eta partaidetzak eskualdatu edo itzultzean lortzen diren ondare irabazien gaineko atxikipenaren oinarria hauxe izango da: pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko arauei jarraituz kalkulatutako zerga oinarrian sartu beharreko zenbatekoa.

**2.** Dena den, azaroaren 4ko 35/2003 Legeak, talde inbertsioko erakundeenak, arautako inbertsio funtsetako partaidetzak itzultzean, atxikipen oinarria honakoen arteko aldea izango da: eskualdatze balioaren eta dirua itzultzen zaion erakundeko

partaidetzen erregistroan jasota dauden partaidetzen eroste prezioaren artean. Horretarako, erregistro horretan daudenen artean, hartu behar da lehenengo erositakoak itzuli zirela. Guri dagozkigun partaidetza horiek honakoek itzuli dituzte: aldi berean izan dituztenek itzuli beharreko partaidetzak eta beste erakunde batean partaidetza homogeneo erregistratuak, bai eta itzuli beharreko partaidetzak beste partaidetza edo akzio batzuk ordaindu edo eskualdatzeren ondorio badira ere. Azken horiei azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarenaren, 48.1 artikuluan xedatutako geroratze araubidea aplikatu zaie, baldin eta ordainketa edo eskualdaketa horietakoren bat aldi berean gertatu bada ordaindutako edo eskualdatutako partaidetza eta akzioei dagokienean. Erregistro horretan geroratze araubidea aplikatzeari darizkion partaidetzak badaude, eskualdaketa eragiketan jakinarazitako eroste balio fiskala eta eroste data hartuko dira aintzat.

Aurreko lerroaldean zehaztutako inguruabarrak gertatzen direnean, partaidetzadunak idatziz edo jasota geratuko den beste zernahi bidez jakinaraziko dio atxikipena edo konturako diru sarrera egitera behartuta dagoen erakundeari, itzultzen zaionari, nahiz eta itzulketa horrek ez sortu atxikipen oinarririk. Horrelakoetan, azken erakunde horrek jakinarazpen hori zerga administrazioaren eskueran izango du zergadunaren izenean itzulitakoaren partaidetza homogeneoak dituen bitartean eta, gutxienez, preskripzio epeak dirauen bitartean.

Lerroalde horretan xedatutakoa aplikatuko da egoitza atzerrian duten talde inbertsioko erakundeetan diren partaidetza edo akzioak itzultzen edo eskualdatzen direnean, baldin eta horiek Espainian merkaturatu, saldu edo banatu badira, bai eta 35/2003 Legeak araututako inbertsio sozietateen akzioak eskualdatzean ere.

**95. artikulua. (10) (16) Atxiki beharraren sortzea.**

Atxiki beharra sortuko da talde-inbertsioko erakundeen akzio edo partaidetzeneskualdatzea edo itzulketa eta harpidetza eskubideen eskualdatzeaformalizatzen denean, edozein izanda ere kobrantzarako itundutako baldintzak.

Harpidetza-eskubideak eskualdatzean, erakunde gordailuzainari badagokio betebehar hori, eskualdatzearen zenbatekoa zergadunari helarazteko jasotzen duen egunean aplikatuko du atxikipena edo konturako sarrera.

**95 bis artikulua. (10) (16) Harpidetza eskubideak eskualdatuta lortzen diren ondare irabazien gaineko atxikipenen zenbatekoa.**

Harpidetza-eskubideak eskualdatuta lortzen diren ondare-irabazien gaineko atxikipena eragiketan lortutako zenbatekoaren ehuneko 19koa izango da edo, atxikipenaaplikatzera behartutakoa erakunde gordailuzaina izanez gero, hark jasotako eta zergadunari helarazi beharreko zenbatekoari aplikatutakoa.

**96. artikulua. Sarien gaineko atxikipenen zenbatekoa. (1) (3)**

Diruzko sarien gainean egin beharreko atxikipena haien zenbatekoaren ehuneko 19 izango da, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren hemezortzigarren xedapen gehigarrian xedaturikoa salbu.

## Bosgarren atala
## Beste errenta batzuk

**97. artikulua. Higiezinen errentamendu eta azpierrentamenduen gaineko atxikipenen zenbatekoa. (1) (3)**

Hiri higiezinen errentamenduetatik eta azpierrentamenduetatik datozen etekinen gainean egin beharreko atxikipena, haien kalifikazioa edozein delarik ere, errentatzaileari ordaintzen zaizkion kontzeptu guztien gainean ehuneko 19ko portzentajea aplikatzetik ateratzen dena izango da. Balio Erantsiaren gaineko Zerga hortik kanpo dago.

**98. artikulua. Beste errenta batzuen gaineko atxikipenen zenbatekoa.**

**1.** Araudi honen 77.2.b) artikuluan aipatzen den moduan irudia ustiatzeko eskubideak lagata lortzen diren etekinen gainean egin beharreko atxikipena kalkulatzeko, haren kalifikazioa gorabehera, ehuneko 24ko atxikipen tasa aplikatuko zaie ordaindutako sarrera osoei.

**2.** (30) Erregelamendu honen 77. artikuluaren 2. paragrafoaren b) letran aurreikusitako gainerako kontzeptuen etekinen gainean egin beharreko atxikipena, haien kalifikazioa edozein dela ere, ordaindutako diru sarrera osoei ehuneko 19ko atxikipen tasa aplikatzearen emaitza izango da, jabetza intelektualetik datozen etekinetan izan ezik. (1) (3)

**3.** (30) Zergaren Foru Arauaren 37. artikuluan aipatzen diren jabetza intelektualetik datozen etekinen gaineko atxikipena ehuneko 15ekoa izango da.

Aitzitik, ehuneko 7koa izango da hainbat urtetan zehar sortuko diren egile eskubideen ustiapenaren lagapenetik datozen konturako aurrerakinak direnean.

## III. KAPITULUA
## KONTURAKO SARRERAK

**99. artikulua. Lanaren gauzazko ordainsarien gaineko konturako sarrerak.**

**1.** Gauzazko ordainsariengatik egin beharreko konturako sarreraren zenbatekoa kalkulatzeko, haien balioa zehaztuko da Zergaren Foru Arauaren 60. artikuluaren erregelak erabiliz, eta araudi honen aurreko kapituluan aurreikusitako portzentajeetatik dagokiona aplikatuko zaio balio horri.

**2.** Ez da konturako sarrerarik egin beharko borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeetako bazkide babesleek, pentsio planen sustatzaileek eta enpresen gizarte aurreikuspeneko planetako hartzaileek ordaintzen dituzten ekarpenengatik, ez eta enplegatzaileek gizarte aurreikuspeneko mutualitateei egindakoengatik ere, baldin eta horiek zergadunaren zerga oinarri orokorra txikitzen badute Zergaren Foru Arauaren 71.1 artikuluan ezarritakoa ordaindutako ekarpenei aplikatuz gehienez ateratzen den mugaraino.

(29) Halaber, ez dira atxikipen oinarrian sartuko langile autonomoen araubide bereziko Gizarte Segurantzako kotizazioen kontzeptuan kooperatibek, arau xedapenak betez,

bazkide langileen edo lan bazkideen gizarte eta laguntza estaldurarako ordaintzen dituzten zenbatekoak, ezta Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuek aldi baterako ezintasuneko egoeran dauden langile autonomoei dagokienez ordaintzen dituztenak ere.

**100. artikulua. Higigarrien kapitalaren gauzazko ordainketen gaineko konturako sarrerak.**

Gauzen bidezko ordainketengatik egin beharreko konturako sarreraren zenbatekoa kalkulatzeko, eskuratze balioa edo ordaintzailearentzako kostua ehuneko 20 handituko da, eta horrela ateratzen den balioari araudi honen aurreko kapituluaren bigarren atalean ezarritako portzentajea aplikatuko zaio.

**101. artikulua. Jarduera ekonomikoen gauzazko ordainketen gaineko konturako sarrerak.**

Gauzazko ordainketengatik egin beharreko konturako sarreraren zenbatekoa kalkulatzeko, haien merkatuko balioari araudi honen VII. tituluaren II. kapituluaren hirugarren atalean xedatutakoaren arabera ateratzen den portzentajea aplikatuko zaio.

**101 bis artikulua. (10) Harpidetza eskubideak eskualdatuta lortzen diren gauzazko ondare irabazien konturako sarrerak.**

Harpidetza eskubideak eskualdatuta lortzen diren gauzazko ondare irabazien kontura egin beharreko sarrerak kalkulatzeko arautegi honetako 95 bis artikuluan ezartzen den ehunekoa aplikatuko zaio haien merkatuko balioari.

**102. artikulua. Sarien gaineko konturako sarrerak.**

Gauzazko sariengatik egin beharreko konturako sarreraren zenbatekoa kalkulatzeko, sari horiek ondare irabaziak direnean, eskuratze balioa edo ordaintzailearentzako kostua ehuneko 20 handituko da, eta horrela ateratzen den balioari araudi honen 96. artikuluan ezarritako portzentajea aplikatuko zaio.

**103. artikulua. Beste errenta batzuen gaineko konturako sarrera.**

Araudi honen 97. eta 98. artikuluetan aipatzen diren gauzazko errenten gaineko konturako sarreraren zenbatekoa kalkulatzeko, haien merkatuko balioari artikulu horietan ezarritako portzentajea aplikatuko zaio.

## IV. KAPITULUA
## ATXIKITZAILEAREN, KONTURAKO SARRERAK EGIN BEHAR DITUENAREN ETA ATXIKIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

**104. artikulua. Atxikitzailearen eta konturako sarrera egin behar duenaren betebehar formalak.**

**1.** (28) Atxikipenak eta konturako sarrerak egin behar dituen subjektuak apirilaren, uztailaren eta urriaren lehenengo hogeita bost egunetan aurkeztuko du aurre-aurreko hiruhileko naturalarengatik beharrezko diren atxikipenen eta konturako sarreren aitorpena, eta haien zenbatekoa Arabako Foru Aldundian sartuko du. Aitzitik, atxikitako kopuruen eta konturako sarreren aitorpena, urteko azken hiruhileko naturalari dagokiona, hurrengo urteko urtarrilean aurkeztu beharko da.

(28) Hala ere, aurreko paragrafoan aipatzen den aitorpena eta diru sarrera hilabete bakoitzaren lehenengo hogeita bost egun naturalen barruan egingo da, atxikitako kopuruei eta aurreko hilabeteari dagozkion konturako sarrerei dagokienez, baldin eta atxikitzaileak edo zergapekoak badira eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudia onesten duen apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuaren 71. artikuluaren 3. apartatuko 1. eta 2. zenbakietan aipatzen diren inguruabarrak gertatzen badira.

Salbuespen gisa, aurreko paragrafoko aitorpena eta diru sarrera honako epe hauetan egingo da:

- Uztailari dagokiona abuztuan eta hurrengo iraileko lehenengo hamar egun naturaletan egingo da.

- Abenduari dagokiona hurrengo urteko urtarrilean egingo da.

(28) Aurreko bi paragrafoetan xedatutakoa berdin aplikatuko da administrazio publikotzathartzen diren atxikitzaileak edo konturako diru sarrerak egitera behartutako zergapekoak direnean, Gizarte Segurantza barne, baldin eta haien urteko azken aurrekontua, ekitaldia hasi aurretik onetsia, 6 milioi eurotik gorakoa bada, araudi honen 77. artikuluaren 1. apartatuaren a) eta c) letretan eta 2. apartatuaren c) letran aipatzen diren errentei dagozkien atxikitako zenbatekoei eta konturako sarrerei dagokienez. Hala ere, kasuan kasuko atxikipena eta diru sarrera zuzenean egingo da etekinaren erakunde ordaintzailea Arabako Foru Aldundia denean.

Paragrafo honi dagozkionetan, errenta horien zenbatekoa dela eta, atxikitzaileak edo konturako sarrera egin behar duenak aitorpen negatiboa aurkeztuko du baldin eta, atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako errentak ordaindu arren, inolako atxikipenik edo konturako sarrerarik egin ez badu, bai eta hark ez baditu horiek ordaindu atxikipen edo konturako diru sarrerapeko errenten aitorpen garaian ere.

**2.** (28) Atxikitzaileak edo konturako sarrera egitera behartuta dagoenak aurreko urtean egindako atxikipenen eta konturako sarreren laburpena aurkeztu behar du urtero urtarrilean.

Laburpen horretan, bere identifikazio datuez gainera, hartzaileen izen zerrenda jar dezan eskatu ahal izango zaio, honako datu hauek izango dituena:

a) Izen-abizenak.

b) Identifikazio fiskaleko zenbakia.

c) Zerga egoitza edo ohiko egoitza, hartzailea zer den: erakundea edo pertsona fisikoa, bazkidea, partaidea edo onuraduna.

d) Lortutako errenta, kontzeptuen identifikazioa, deskripzioa eta izaera, eta errenta hori sortu den ekitaldia, beren zenbatekoagatik atxikipen edo konturako sarrerarik egin behar ez zaien errentak barne, bai eta errenta salbuetsiak eta bidaien gastuetarako eta kargarik gabeko mantenu eta egonaldi gastu arruntetarako dietak eta diru izendapenak ere.

e) (11) Zergaren Foru Arauaren 19. eta 20. artikuluetan, 25. artikuluko 4. zenbakian, 30. artikuluko 3. zenbakian, 39. artikuluko 3. zenbakian edo hogeita batgarren

xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren arabera aplikatutako integrazio ehunekoak.

f) Ordaintzaileak atxikipen portzentajea aplikatzerakoan kontuan hartu dituen inguruabar pertsonalak eta familiarenak.

g) Egindako atxikipena edo konturako sarrera.

h) Aurreko ekitaldietan sortutako errentetatik ordaintzaileari itzuli zaizkion kopuruak.

i) Gastu kengarriak: Gizarte Segurantzari edo funtzionarioen derrigorrezko mutualitate orokorrei egindako kotizazioak, eskubide pasiboen murrizketak eta umezurtzen ikastetxe edo antzeko erakundeei egindako kotizazioak, bai eta zergadunek erakunde edo instituzioei ordaindutako zenbatekoak ere, horiek, indarrean dagoen araudiarekin bat, Gizarte Segurantzari dagokion zenbait kontingentziaren prestazioak bereganatu badituzte, baldin eta etekinen ordaintzaileak horiek kendu baditu.

Zerrenda ordenagailuz zuzenean irakur daitekeen euskarrian aurkezten bada, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak foru agindu baten bidez ezartzen duen epean aurkeztuko da.

Aurreko paragrafoetan ezarritako betebehar horiek eurak bete beharko dituzte Espainian egoitza edo ordezkaritza duten erakundeek, atxikipenari lotutako errentak besteren kontura ordaintzen badituzte edo baloreen errenten kobrantza kudeatzen badute edo haien gordailuzainak badira.

**3.** Atxikipena edo konturako sarrera egin behar dutenek zergadunarentzako agiria emango du, hain zuzen ere egindako atxikipen edo konturako sarrerak frogatzen dituena, bai eta aurreko paragrafoan aipatutako urteko laburpenean subjektu pasiboari buruz agerrarazi beharreko gainerako datuak ere.

Zerga honen autolikidazioa egiteko epea hasi aurretik jarri behar da ziurtagiri hori zergadunaren eskura.

Aurreko paragrafoetan ezarritako betebehar horiek eurak bete beharko dituzte Espainian egoitza edo ordezkaritza duten erakundeek, atxikipenari lotutako errentak besteren kontura ordaintzen badituzte edo baloreen errenten kobrantza kudeatzen badute edo haien gordailuzainak badira.

**4.** Ordaintzaileek errentak ordaintzen dituzten unean subjektu pasiboei jakinaraziko diete egindako atxikipena edo konturako sarrera, eta aplikatu duten portzentajea adierazi beharko diete.

**5.** Artikulu honetan aipatutako aitorpen eta ziurtagiriak Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezartzen dituen ereduetan egingo dira. Foru diputatuak berak zehaztu ahal izango du aurreko 2. paragrafoan aipatutako datuetatik zeintzuk jarri behar diren aitorpenetan, eta atxikitzaileak edo konturako sarrera egin behar duenak datu horiek guztiak jarriko ditu bere aitorpenetan.

**6.** Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezartzen dituen modu, leku eta epeetan egingo dira aitorpena eta sarrera.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak, halaber, artikulu honetan aipatzen diren aitorpen eta ziurtagiriak bide telematikoetatik aurkezteko kasuak, baldintzak, modua, lekua eta epeak ezarri ahal izango ditu.

## V. KAPITULUA
## ZATIKAKO ORDAINKETAK

### 105. artikulua. Zatikako ordainketa egin behar dutenak.

Jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunek artikulu hauetan ezarritakoa aplikatuz ateratzen den kopurua ordaindu behar diote Foru Ogasunari, eta bidezkoa denean autolikidatu ere bai, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren konturako ordainketa gisa.

### 106. artikulua. Zatikako ordainketen zenbatekoa.

**1.** Aurreko artikuluan aipatutako zergadunek kopuru hauek ordainduko dituzte epe bakoitzean:

a) Oro har, zatikako ordainketari dagokion urtearen azken-aurreko urtean lortutako jarduera ekonomikoaren etekin garbiaren ehuneko 5, etekin garbia zehazteko metodoa zernahi dela ere.

b) Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza edo arrantza jarduerak egiten dituzten zergadunek, zatikako ordainketen aurreko urtean ez, horren aurrekoan beren jarduera ekonomikoen etekinak nekazaritza, abeltzaintza, basogintza edo arrantza jardueretatik bakarrik atera badituzte, sei hilean behin ordaindu behar dute zatikako ordainketen aurreko urtean ez, horren aurrekoan jardueren bidez lortutako etekin garbien ehuneko 6.

**2.** Foru Aldundiak ofizioz likidatuko ditu zatikako ordainketak eta zergadunari jakinaraziko dizkio, behar beste denbora emanez mugaegunean ordaindu ahal izan ditzan.

**3.** Aurreko 1. paragrafoan xedatutakoa aplikatuz ateratzen den kopurutik, zatikako ordainketen aurreko urtean ez, horren aurrekoan jarduera ekonomikoetatik ateratako etekinen gainean egin diren atxikipenen eta konturako sarreren laurdena kenduko da, edo erdia, aurreko 1. paragrafoaren b) idatz zatian azaltzen den kasuan.

**4.** Jarduera ekonomikoan hasten diren zergadunek hasierako urtean zatikako ordainketen autolikidazioa egingo dute eta epe bakoitzean kopuru hauek ordainduko dituzte:

a) Oro har, zatikako ordainketa dagokion hiruhilekoan jardueratik ateratako etekin garbien ehuneko 5.

b) Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza edo arrantza jarduerak bakarrik egiten dituzten zergadunek, zatikako ordainketa dagokion seihilekoan jarduera horietatik ateratako etekin garbien ehuneko 6.

Paragrafo honen a) edo b) idatz zatian xedatutakoa aplikatuz ateratzen den kopurutik, a) eta b) idatz zati horietan aipatutako etekin garbia zehazteko kontuan hartu diren etekinen gainean egindako atxikipen eta konturako sarreren zenbatekoa kenduko da, halakorik egin bada.

Jarduera hasi eta hurrengo urtean, Foru Aldundiak zatikako ordainketen likidazioa egingo du ofizioz. Ordainketa horien zenbatekoa kalkulatzeko, Foru Aldundiak erreferentzia gisa hartuko du hasierako urtean egin zaizkion zatikako ordainketa guztien zenbatekoa, eta urteari egokituko dio.

Hurrengo urteetan, artikulu honen goragoko paragrafoetan xedatutakoa aplikatuko da.

**5.** Zergaduna aparteko egoeran badago, esate baterako Zergaren Foru Arauaren 25.4 artikuluan aipatzen diren etekinak lortzen baditu, merkatuko eskaintza eta eskariaren arauek horretan zerikusirik izan gabe, eta uste izaten badu zatikako ordainketak ez datozela bat ordainketa horiei dagokien zergaldiko etekinekin, haien berrikuspena eskatu ahal izango dio arloko organo kudeatzaileari. Organo horrek, eskaerari egokia irizten badio, zatikako ordainketa kalkulatzeko oinarria zehaztuko du, zergen ikuskatzailetzak esku hartu eta gero.

Eskaera hori ekitaldi bakar baterako egingo da eta hura aurkezte hutsak ez du salbuetsiko dena delako epeari dagokion zatikako ordainketa egin beharretik. Eskaera horrek ez du eraginik izango Foru Aldundiak dagoeneko likidatutako zatikako ordainketetan.

Organo kudeatzaileak, 5. paragrafo honetan xedatutako moduan, zatikako ordainketaren zenbatekoa aldatzea erabakitzen badu, ekitaldi berean ondoren egiten diren zatikako ordainketekin behar den konpentsazioa egingo du, edo egoki den jarduketa egingo du.

**106.bis. artikulua. (15) (29)**

**107. artikulua. Aitorpena eta sarrera.**

**1.** Jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunek, hiru hilean behin, aurreko artikuluan xedatzen den moduan zehaztutako kopuruak ordaindu behar dituzte Foru Aldundian, eta aurreko artikuluaren 4. paragrafoan aipatutako kasuetan ordaindu ez ezik aitortu ere egin behar dute. Horretarako epeak apirilaren, uztailaren, urriaren eta urtarrilaren batean hasi eta hurrengo hilaren hamarrean amaituko dira.

Hori gorabehera, aurreko artikuluaren 1. paragrafoaren b) idatz zatian aipatutako kasuetan zergadunek sei hilean behin ordaindu behar diote Arabako Foru Aldundiari, uztailaren eta urtarrilaren batetik hurrengo hilaren hamarrera bitarteko epeetan.

Aurreko artikuluaren 4. paragrafoan azaltzen den bezala jarduera ekonomikoa hasten den kasuetan, zergadunak autolikidazio bat aurkeztuko du egin behar duen zatikako ordainketa bakoitzeko, eta horretarako Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak berariaz ezartzen duen eredua erabili beharko du.

**2.** Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak artikulu honetan ezarritako epeak luzatu ahal izango ditu eta ordainketak sei hilean behin egin beharreko kasuak ezarri (hala gertatuz gero, aurreko artikuluko portzentajeak egokitu egingo dira).

**107.bis. artikulua. (15) (29)**

**108. artikulua. (9) Errenta egozketaren araubidean dauden erakundeak.**

Errenta egozketaren araubideko erakundeek jarduera ekonomikoen bidez lortzen dituzten etekinengatik, jaraunsle, bazkide, erkide edo partaideek banan egin behar dute zatikako ordainketa, bakoitzak erakundearen mozkinetan duen partaidetzaren proportzioan.

Ez da egin beharko sozietateen gaineko zergaren araubide orokorrean zergak ordaintzen dituzten sozietate zibiletako bazkideek lortutako jarduera ekonomikoen etekinei dagokien ordainketa zatikaturik.

## VIII. TITULUA
## BETEBEHAR FORMALAK, KONTABILITATEKOAK ETA ERREGISTROKOAK

### I. KAPITULUA
### ZERGADUNEN BETEBEHAR FORMALAK

**109. artikulua. Betebehar formalak, oro har.**

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunen betebeharra da, preskripzio eperik luzeenean edo berariaz adierazitako epean, eragiketa, errenta, gastu, sarrera, murrizketa eta kenkarien frogagiri eta egiaztagiriak gordetzea, agiri horiek zergadunen autolikidazioetan agertu behar badute; horrezaz gain, zergadunek agiriok aurkeztu behar dituzte autolikidazioekin batera, horrela ezartzen denean, eta erakutsi egingo dizkiete horiek Zerga Administrazioko organo eskudunei, horretarako errekerimendua jasoz gero.

### II. KAPITULUA
### KONTABILITATEKO ETA ERREGISTROKO BETEBEHARRAK

**110. artikulua. Lanbide jarduerak egiten dituzten zergadunen betebeharrak.**

Errenten egozketaren araubidea duten zergadun eta erakundeek, zuzeneko zenbatespeneko metodo arruntaren bidez zehazten badituzte beren jarduera ekonomikoen etekinak, Merkataritza Kodean xedatutakoarekin bat datorren kontabilitatea eduki beharko dute, bai eta Sozietateen gaineko Zergarako ezarrita dauden edo ezartzen diren erregistro osagarriak ere.

**111. artikulua. Zuzeneko zenbatespeneko metodo erraztua erabiltzen duten edo merkataritzaz kanpoko jarduera ekonomikoa duten zergadunen betebeharrak.**

Errenten egozketaren araubidea duten zergadun eta erakundeek, zuzeneko zenbatespeneko metodo erraztuaren bidez zehazten badituzte beren jarduera ekonomikoen etekinak, edo merkataritzaz kanpoko jarduera ekonomikoa badute, Merkataritza Kodearen arabera, erregistro liburu hauek eduki beharko dituzte:

a) Salmenta eta sarreren erregistro liburua. Bertan jasoko dituzte beren jardueraren ondorioz egiten dituzten salmentak eta sarrerak, datu hauek jarriz, gutxienez:

- Idazpenaren zenbakia.
- Salmenta edo sarrera bakoitzaren sortzapen eguna, denbora egozketarako erabiltzen den irizpidearen arabera.
- Salmenta edo sarrera agertzen den fakturaren edo agiri baliokide edo ordezkoaren zenbakia. Fakturarik edo fakturazio agiririk eman beharrik ez dagoenean, salmenta eta sarrerei hurrenez hurreneko zenbakiak jarriko zaizkie, eta erregistro liburuan kasuan kasuko zenbakia idatziko da.
- Kontzeptu edo zergatikoa.
- Zenbatekoa, sortutako balio erantsiaren gaineko zerga bereizita.

b) Erosketa eta gastuen erregistro liburua. Bertan jasoko dituzte beren jardueraren ondorioz egiten dituzten erosketak eta gastuak, datu hauek jarriz, gutxienez:

- Idazpenaren zenbakia.
- Erosketa edo gastu bakoitzaren eguna, denbora egozketarako erabiltzen den irizpidearen arabera.
- Emailearen izen-deiturak edo izen soziala.
- Gastua eragin duen kontzeptua, behar bezala xehakatuta.
- Zenbatekoa, jasandako balio erantsiaren gaineko zerga bereizita.

c) Inbertsio ondasunen erregistro liburua. Liburu horretan banan-banan erregistratuko dira, erosketa eta gastuen erregistro liburuan ere inskribatu diren ala ez kontuan hartu gabe, zergadunaren jarduerari loturik dauden ibilgetu materialeko edo immaterialeko elementuak. Gutxienez datu hauek jarriko dira:

   Ibilgetu materialari dagokionez, eta ondasun bakoitzeko:

   - Idazpenaren zenbakia.
   - Ondasunaren deskripzioa, erabat identifikatzea ahalbidetzen duten datu guztiekin.
   - Eskuraketa balioa.
   - Erabiltzen hasi ziren eguna.
   - Dagokien amortizazio kuota eta, kasua bada, itzulketa funtserako dotazioa.

   Ibilgetu immaterialari dagokionez, eta ondasun bakoitzeko:

   - Idazpenaren zenbakia.

- Elementuaren deskripzioa, erabat identifikatzea ahalbidetzen duten datu guztiekin.

- Eskuraketa balioa.

- Eskuratu zen eguna.

- Dagokion amortizazio kuota, halakorik badago.

Bai ibilgetu materialari bai ibilgetu immaterialari dagokionez, ondasun edo eskubidearen baja ere agerraraziko da eta horren data eta arrazoia azalduko dira.

**112. artikulua. Lanbide jarduerak egiten dituzten zergadunen betebeharrak.**

**1.** Errenten egozketaren araubidean lanbide jarduerak egiten dituzten zergadun eta erakundeek sarreren erregistro liburua, gastuen erregistro liburua eta inbertsio ondasunen erregistro liburua eduki behar dituzte, eta aurreko artikuluan dauden arauak bete.

**2.** Halaber, errenten egozketaren araubidean lanbide jarduerak egiten dituzten zergadun eta erakundeek funts horniduren eta aurrerakinen erregistro liburua eduki beharko dute eta bertan honako datuak jarriko dituzte:

- Idazpenaren zenbakia.

- Eragiketa mota (hornidura edo aurrerakina).

- Hornidurak edo aurrerakinak noiz egin edo ordaindu diren.

- Funts horniduren eta aurrerakinen zenbatekoa.

- Hornidura ordaindu edo aurrerakina jaso duenaren izen-deiturak edo izen soziala.

- Eragiketa agertzen den fakturaren edo agiri baliokide edo ordezkoaren zenbakia. Fakturarik edo agiri baliokide edo ordezkorik eman beharrik ez dagoenean, funts eta aurrerakinei hurrenez hurreneko zenbakiak jarriko zaizkie, eta erregistro liburuan kasuan kasuko zenbakia idatziko da.

## III. KAPITULUA
## ARAU ESPEZIFIKOAK

**113. artikulua. (13) Testamentu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahalduna baliatzearen zain dauden jaraunspenak eta errenta eratxikipeneko araubidea duten erakundeak.**

**1.** Errenta eratxikipeneko araubidea duten erakundeek, jarduera ekonomikoak egiten badituzte, egindako jarduerari dagozkion liburuak soilik eraman behar dituzte, beren bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideei egin behar dieten etekin eratxikipenaren kalterik gabe.

**2.** Artikulu honetako aurreko idatz zatian ezarritako arau bera aplikatuko zaie testamentu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahalduna baliatzearen zain dauden jaraunspenei, edo jarduera horien etekinak egozten dituztenei, jarduera ekonomikoren bat egiten badute, horrelakoen etekinen eratxikipenari buruz Foru Dekretu honen 55. artikuluan ezarritako arauak gorabehera.

**114. artikulua. Erregistro liburuak eduki beharretik salbuetsita daudenak.**

Beren kontabilitatea Merkataritza Kodean ezarritako moduan daramaten zergadunak ez daude behartuta kapitulu honetako aurreko artikuluetan aipatutako erregistro liburuak edukitzera.

## IV. KAPITULUA
## ERREGISTRO LIBURUAK ERAMATEKO ERA

**115. artikulua. Baliabide informatikoen bitartez eramatea.**

Zerga kontuetarako eskatzen diren liburuak, fakturazioa edo erregistroak baliabide informatikoen bitartez eramaten badira, fitxategi informatiko hauek gordeko dira:

a) Diligentziatu beharreko liburuak egiteko erabilitako datuen fitxategiak, bai historikoak eta bai aplikazio informatikoek sortutako fitxategi nagusiak ere.

b) Programen fitxategiak, horien bidez aurreko fitxategiak prozesatu ahal baitira.

**116. artikulua. Liburuetako idazpenak.**

**1.** Baliozkoa izango da orrietan idazpenak egitea edozein prozedura egokiren bidez; gero orriak ordenatuta azaleztatu behar dira nahitaezko erregistro liburuak osatzeko.

**2.** Titulu honetan aipatutako erregistro liburuetan idazpenak daten araberako hurrenkeran egingo dira, zuriune, interpolazio, urratze edo karrakatze markarik gabe, eta betiere hiruhileko eta urte naturaletako guztizko zenbatekoak jarriko dira. Egindako idazpenetan aurkitzen diren akats edo hutsegite guztiak jarraian konpondu behar dira, haietaz ohartu eta berehala.

**3.** Baldin eta, enpresaburu eta profesionalen faktura jaulki eta eman beharrari buruzko araudian ezarritakoaren arabera, faktura edo agiri baliokide edo ordezkorik eman beharrik ez badago, egunero laburpen idazpen bat egin ahalko da, fakturazio agiririk eman gabe egin diren eragiketa guztiak jasotzeko.

Idazpen horretan, gutxienez honako datu hauek azalduko dira:

- Idazpenaren zenbakia.

- Idazpenaren eguna.

- Fakturarik jaulki ez den eragiketen laburpen idazpena dela azaltzen duen erreferentzia.

- Zenbatekoa, sortutako balio erantsiaren gaineko zerga bereizita.

**4.** Egun berean jaulkitako fakturak eta agiri baliokide edo ordezkoak laburpen idazpen orokor batean jaso ahal izango dira, horien guztizko zenbatekoa, balio erantsiaren gaineko zerga kontuan hartu gabe, 6.000 eurotik gorakoa ez bada. Idazpen horretan datu hauek jarriko dira: fakturen datak, zenbakiak, zerga oinarri osoa, zerga tasa eta kuota osoa.

**5.** Egun berean jasotako fakturak laburpen idazpen orokor batean jaso ahal izango dira. Lapurpen idazpen horretan honako hauek idatziko dira: jasotako fakturei hartzaileak emandako zenbakiak; zerga oinarriaren guztizko orokorra eta jasandako balio erantsiaren gaineko zergaren kuota osoa, baldin eta guztizko zenbateko orokorra, balio erantsiaren gaineko zerga sartu gabe, 6.000 euro baino gehiagokoa ez bada, eta baldin eta faktura bakoitzean dokumentatzen den eragiketa 500 euro baino gehiagokoa ez bada, balio erantsiaren gaineko zerga sartu gabe.

**117. artikulua. Erregistro idazpenetarako epeak.**

Erregistro idazpenetan jaso behar diren eragiketak erregistro liburuetan jasorik egon behar dira araudi honetan aipatzen diren zatikako ordainketak egiteko eta/edo aitorpena egiteko epea amaitu baino lehen.

Hala ere, zergadunak fakturarik egin gabe edo agiri baliokide nahiz ordezkoak eginez egindako eragiketak zazpi egunen epean idatziko dira, eragiketak hasi edo agiriak egin diren unetik hasita, baldin eta epe hori aurreko lerroaldean aipatutakoa baino laburragoa bada.

**118. artikulua. Jarduera independenteak.**

Errenten egozketaren araubidean hainbat jarduera egiten dituzten zergadun eta erakundeek liburu bat eramango dute haietariko bakoitzeko, eta lehenengo folioan jarriko dute liburu bakoitza zein jarduerari dagokion.

**119. artikulua. Beste liburu batzuekiko bateragarritasuna.**

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kargapeko zergadunek eta errenten egozketaren araubideko erakundeek balio erantsiaren gaineko zergari dagozkion erregistro edo kontabilitate betebeharrak betetzeko eduki behar dituzten liburu edo erregistroak honako zerga honetarako erabili ahalko dira, titulu honetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

## V. KAPITULUA
## ERREGISTRO LIBURUEN EGINBIDEAK EGITEKO ERA

**120. artikulua. Eginbideak egin beharra betetzea.**

Erregistro liburuak eginbideetarako aurkeztu beharra bete ordez, Foru Aldundiari zenbait datu jakinarazi ahal izango zaizkio, liburu horietan jasotakoak edo jaso beharrekoak.

**121. artikulua. Datuen jakinarazpena.**

Foru Aldundiari jakinarazi beharreko datuak honakoak dira, liburu motaren eta jarduera ekonomikoaren arabera:

a) Liburukien kopurua.

b) Erabilitako folioen kopurua.

c) Zergaldian egindako idazpenen kopurua.

d) Egindako azken idazpenaren data.

**122. artikulua. Datuen jakinarazpena non egin.**

Aurreko artikuluan aipatutako datu jakinarazpena pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autolikidazioan egingo da.

Horri dagokionez, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autolikidazioaren ereduak atal berezi bat izango du, zergadunak atal hori erabil dezan araudi honen 120. artikuluan aipatutako eginbeharra betetzat emateko.

## VI. KAPITULUA
## INFORMAZIOA EMATEKO BESTE BETEBEHAR FORMAL BATZUK

**123. artikulua. Informazioa emateko beste betebehar formal batzuk.**

**1.** (28) Etxebizitzak erosteko maileguak ematen dituzten erakundeek mailegu horien urteko informazio aitorpena aurkeztu beharko dute hurrengo urteko urtarrilean. Bertan, honako hauek jasoko dira: mailegu hartzaileen izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia, maileguaren zenbateko osoa, mailegu hartzaile horiek ekitaldian kapitalaren interesengatik eta amortizazioagatik ordaindu dituzten zenbatekoak, eta mailegua eratu zen urtea eta maileguaren iraupena.

**2.** (28) Zerga honengatik kenkarirako eskubidea ematen duten dohaintzakjasotzen dituzten entitateek dohaintzen urteko informazio aitorpena aurkeztu beharko dute hurrengo urteko urtarrilean, Irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauan xedatutakoaren arabera.

**3.** (28) Inbertsio kolektiboko erakundeen sozietate kudeatzaileek, inbertsio-sozietateek (sozietate kudeatzailerik izendatu ez badute), atzerrianegoitza duten inbertsio kolektiboko erakundeen erakunde merkaturatzaileek eta Espainian zerbitzuak libreki emateko araubidean jarduten duten sozietate kudeatzaileen ordezkariek, hurrengo urteko urtarrilean, bazkideek edo partaideek egindako akzioen edo partaidetzen besterentzeen urteko informazio aitorpena aurkeztu beharko dute, eta bertan honako datu hauek jasoko dira:

a) Bazkidearen eta partaideen izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Akzioak edo partaidetzakeskuratzeko eta besterentzeko balioa.

c) Bazkidearen esku dauden akzioek edo partaideek zenbat denbora iraun duten.

Betebehar hori betetzat joko da Kapital errentetan eta ondare irabazi jakin batzuetanatxikipenak edo konturako sarrerak egitera behartuta dauden pertsonek eta entitateek aplikatu beharreko araudia onesten duen urtarrilaren 26ko 6/1999 Foru Dekretuak 33.2 artikuluan aipatzen duen urteko aitorpena aurkeztuz gero, baldin eta aurreko letretan eskatzen den informazioa jasotzen bada dekretuan.

**4.** (14) (28) Kreditu erakundeek honako hauek aurkeztu beharko dituzte hurrengo urteko urtarrilean:

a) Etxebizitza kontuen urteko informazio aitorpena, honako datu hauek jasoko dituena:

a´) Etxebizitza kontuaren titularren izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b´) Zergadun bakoitzaketxebizitza kontuan duen titulartasunaren ehunekoa.

c´) Etxebizitza kontua ireki zen eguna.

d´) Etxebizitza kontuaren hasierako eta amaierako saldoa ekitaldi bakoitzean.

e´) Horretarako onesten den inprimakian agertzen diren beste datu batzuk.

b) Berrikuntzasustatzeko Europako funtsakeskuratzeko gordailuen urteko informazio aitorpena, honako datu hauek jasoko dituena:

a´) Gordailuaren titularren izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b´) Zergadun bakoitzak gordailuan duen titulartasunaren ehunekoa.

c´) Gordailua ireki zen eguna.

d´) Zergadunek zergaren foru arauaren 90.ter artikuluaren 3. apartatuan ezarritako mantentze-epea amaitu aurretik kendutako zenbatekoak.

e´) Horretarako onesten den inprimakian agertzen diren beste datu batzuk.

Kreditu erakundeek b) letra honetan xedatutakoaren arabera eman behar duten informazioaz gain, kreditu erakundeak berrikuntza sustatzeko Europako funtsetan eskuratutako partaidetzen zerrenda aurkeztu beharko dute, bertan gordailututako zenbatekoen multzoa funts horietara bideratu denean, bai eta funts horietan izandako partaidetzen zerrenda ere, baldin eta partaidetza horiek aurreko d) letran aipatutako mantentze-epea amaitu aurretik eskualdatu edo itzuli badira. a Bi kasuetan, funts horiei berrikuntza sustatzeko Europako funts izaera aitortzen dizkien Ogasuneko zuzendariaren ebazpenei buruzko aipamena egin beharko da.

**5.** (28) Banku edo kreditu trafikoan aritzen diren bankuek, aurrezki kutxek, kreditu kooperatibek eta pertsona fisiko edo juridiko guztiek, indarrean dagoen araudiaren arabera, urteko informazio aitorpena aurkeztu beharko dute hurrengo urteko urtarrilean. Aitorpen horretan, erakunde horietan irekitako kontu guztiak identifikatuko dira, baldin eta kontu horien titulartasuna pertsona fisikoen

errentaren gaineko zergaren zergadunei, sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboei edo establezimendu iraunkorra duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunei badagozkie, nahiz eta ordainsaririk, atxikipenik edo konturako sarrerarik ez egon.

Jakinarazi beharreko informazioak kontuaren eta pertsona edo erakunde titularren, baimendunen edo onuradunen identifikazio zehatza jasoko du, baita Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak horretarako ezartzen duen beste edozein datu garrantzitsu ere.

**6.** Zergaren Foru Arauaren 70. artikuluaren 1. paragrafoaren 5. eta 7. lerroaldeetan aipatzen diren aurreikuspen plan aseguratuak eta mendekotasun aseguruak merkaturatzen dituzten erakunde aseguratzaileek informazio aitorpena aurkeztu behar dute hurrengo urteko urtarrilean, datu hauek emateko:

a) Hartzaileen izen-deiturak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Hartzaileek ordaindutako sarien zenbatekoa.

**7.** Zergaren Foru Arauaren 70. artikuluaren 1. paragrafoaren 6. lerroaldean aipatzen diren enpresen gizarte aurreikuspeneko planak merkaturatzen dituzten erakunde aseguratzaileek informazio aitorpena aurkeztu behar dute hurrengo urteko urtarrilean, datu hauek emateko:

a) Hartzaileen eta aseguratuen izen-deiturak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Aseguratuek egindako ekarpenen zenbatekoa eta hartzaileek aseguratu bakoitzarentzat egindako ekarpenak.

**8.** Gizarte Segurantzaren kudeaketa organoek edo erakundeek eta mutualitateek hileko eta urteko informazioa emango dute Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezartzen duen epean; bertan datu hauek adierazi behar dira:

a) Izen-deiturak, identifikazio fiskaleko zenbakia eta afiliazio-zenbakia.

b) Kotizazio araubidea eta afiliatuta egondako aldia.

c) Ordaindutako kotizazioak eta kuotak, guztira.

**9.** Erregistro Zibilean jaiotzez, adopzioez eta heriotzez dauden datuak Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezartzen dituen tokian, moduan, epeetan eta maiztasunarekin eman behar dira; datu hauek eskatu ahal izango ditu:

a) Pertsonaren izena, deiturak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Amaren izena, deiturak eta identifikazio fiskaleko zenbakia, eta behar denean aitarenak ere bai, adingabekoen jaiotza, adopzio eta heriotzei dagokienez.

**10.** Zergaren Foru Arauaren laugarren xedapen gehigarrian aipatzen diren aurrezpen sistematikorako banakako planak merkaturatzen dituzten erakunde aseguratzaileek informazio aitorpena aurkeztu behar dute hurrengo urteko urtarrilean, datu hauek emateko:

a) Hartzaileen izen-deiturak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Hartzaileek ordaindutako sarien zenbateko osoa, eta lehenengo saria zein egunetan ordaindu duten.

c) Eskubide ekonomikoak osorik edo zati batean aurreratzen badira, bizi arteko errenta eratzeko unean jakinarazitako errenta salbuetsiaren zenbatekoa.

d) Bizi aseguruaren kontratua aurrezpen sistematikorako banakako plan bihurtzen bada, Zergaren Foru Arauaren hamalaugarren xedapen iragankorrean ezarritakoari jarraituz, aurreko a) eta b) idatz zatietan eskatzen diren datuak, eta ordaindutako sarien urteko zenbatekoa xedapen horretan ezarritako muga gainditzen ez duelako adierazpena.

**11.** (28) Langileen sindikatuek urteko informazio aitorpena aurkeztu beharko dute hurrengo urteko urtarrilean, honako datu hauekin:

a) Afiliatuen izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Ordaindutako urteko kuota sindikalaren zenbatekoa.

Informazio aitorpen horretan sartzeko, afiliatuen baimena beharko da.

Zergaren Foru Arauaren 93.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, paragrafo honetan aipatzen den informazio ereduan sartuta dauden zergadunek bakarrik aplikatu ahal izango dute langileen sindikatuei ordaindutako kuoten ziozko kenkaria.

**12.** (28) Alderdi politikoek urteko informazio aitorpena aurkeztu beharko dute hurrengo urteko urtarrilean, honako datu hauekin:

a) Afiliazio kuotak ordaindu dituzten edo erakunde politikoari nahitaezko edo borondatezko ekarpenak egin dizkioten pertsona fisikoen izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Ordaindutako afiliazio kuotaren eta/edo egindako ekarpenaren zenbatekoa.

Aitorpen informatiboa sartzeko, ekarpen egilearen baimena beharko da.

Zergari buruzko Foru Arauaren 22.b) eta 93.3 artikuluetan xedatutakoaren arabera, laneko etekinen gastu kengarriak edo kuotaren kenkariak bakarrik aplikatu ahal izango zaizkie paragrafo honetan aipatzen den informazio ereduan sartuta dauden zergadunei.

**13.** Zergaren Foru Arauaren 90. artikuluan aipatzen diren erakundeek hurrengo urteko urtarrilaren 1a eta 31 bitartean aurkeztuko dute 90.5 artikuluan xedatutakoaren arabera egindako ziurtagiriei buruzko informazio aitorpena. Aitorpen horretan beren identifikazio datuez, eratze dataz eta funts propioen zenbatekoaz gain, akzio eta partaidetzak erosi dituztenen hauek ere jakinaraziko dira:

a) Izen-abizenak.

b) Identifikazio fiskaleko zenbakia.

c) Eskuraketaren zenbatekoa.

d) Eskuraketa data.

e) Partaidetzaren portzentajea.

**14.** Lurraldeetako herri administrazioek, hurrengo urteko urtarrilaren 1a eta 31 bitartean, berek edo haien erakunde autonomoek edo mendekoek emandako laguntza publiko, prestazio, dirulaguntza eta kalte-ordain guztiei buruzko informazio aitorpena aurkeztuko dute, Zergaren Foru Arauaren 116.k) artikuluan xedatutakoaren arabera, salbu eta honakoak: hirugarrenekin egindako eragiketen urteko aitorpenean sartutakoak eta nekazaritza, abeltzaintza edo basogintzari darizkien dirulaguntza edo kalte-ordainei buruzko urteko aitorpenean sartutakoak.

Aitorpenean, aitorlearen identifikaziorako datuez eta, aitorpenean sartutako laguntza, prestazio, dirulaguntza edo kalte-ordainei dagokienez, esku hartzearen izaeraz gain, honakoak jasoko dira: hartzaileen zerrenda izenduna eta dagokion eredua onartzen duen foru arauan eskatutako informazioa.

**15.** (11) (28) Araudi honen 46 bis artikuluan aipatutako biziarteko errentak merkaturatzen dituzten aseguru entitateek urteko informazio aitorpena aurkeztu beharko dute hurrengo urteko urtarrilean. Aitorpen horretan, identifikazio datuez gain, biziarteko errenten titularrei buruzko informazio hau ere jasoko dute:

a) Izena, abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Biziarteko errentaren identifikazioa, eratze data eta emandako prima.

c) Eratutako biziarteko errentatik datozen eskubide ekonomikoak osorik edo partzialki aurreratuz gero, aurreratze data.

**16.** (11) (16) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauan (sozietateen edo erakundeen funts propioetako partaidetza ordezkatzen duten finantza-tresnen merkatuei buruzkoa) definitutako balore-merkatu arautuetako batean negoziaziora onartzen ez diren baloreei dagokien jaulkipen-sariaren banaketa eragiketak eta ekarpenak itzulita kapitala murrizteko eragiketak egiten dituzten erakundeek informazio-aitorpena aurkeztu beharko dute pertsona fisikoen alde egin diren eragiketa horiei buruz, baldin eta arautegi honen 78. artikuluko i) letran xedatutakoaren arabera atxikipenei lotuta ez badaude. Informazio-aitorpenek datu hauek izan beharko dituzte:

Eragiketa horien ondorioz edozein zenbateko, ondasunak edo eskubideak jaso dituzten bazkide edo partaideen informazio guztia, identifikazio fiskaleko zenbakia eta erakunde aitorlean duten partaidetza ehunekoa barne.

Murrizketak eragindako edo, jaulkipen-prima banatuz gero, aitortutako pertsonak dauzkan akzioen edo partaidetzen identifikazio osoa, mota, zenbakia, balio nominala eta, kasuan kasu, identifikazio-kodea barne.

c) Eragiketan jasotako ondasunak, eskubideak edo zenbatekoa eta data.

d) Kapital-murrizketak eragindako edo, jaulkipen-prima banatuz gero, aitortutako pertsonak dauzkan akzio edo partaidetzei dagozkien funts propioen zenbatekoa, kapital murrizketa edo jaulkipen-primaren banaketa egunaren aurretik itxitako azken ekitaldiari dagokiona, kenduta funts propio horietako erreserbetatik etorrita eragiketa egunaren aurretik banatutako etekinen zenbatekoa eta funts propio horietan legez eskuraezin diren erreserben zenbatekoa.

Aurreko paragrafoetan aipatu bezala erakundeek aurkeztu behar duten informazio-aitorpenaz gain, abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretuaren (kontuei, eragiketei eta finantza-aktiboei buruz, baita atzerriko ondasun eta eskubideei buruz ere, informatzeko betebeharra arautzen duena) 7. artikuluak aipatzen duen informazio-aitorpena aurkezteko betebeharra duten eta ekarpenen itzulketa bidezko kapital-murrizketa eragiketetan edota jaulkipen-primen banaketa eragiketetan parte hartzen duten subjektuek informazio-aitorpenean jaso beharko dituzte eragiketa horiek gauzatu dituzten erakundeen identifikazio-datuak eta horiek noiz egin diren.

**17.** (17) (28) Epe luzerako aurrezki planak merkaturatzen dituzten aseguru entitateek urteko informazio aitorpena aurkeztu beharko dute hurrengo urteko urtarrilean. Aitorpen horretan, identifikazio datuez gain, epe luzerako aurrezki planen titularrei buruzko informazio hau ere jasoko dute:

a) Izena, abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Titulartasunean duen epe luzerako aurrezki planaren identifikazioa.

c) Epe luzerako aurrezki planaren irekitze data.Planaren baliabideak mobilizatu badira, jatorrizko data hartuko da, hau da, planari ekarpenak egiteko erabili zen lehenengo aseguruari ordaindu zitzaion lehenengo primaren data izango da erreferentziazko data.

d) Epe luzerako aurrezki planari ekitaldian egindako ekarpenak, barnean sartuta, hala badagokio, planaren mobilizazioaren aurrekoak.

e) Ekitaldian kapital higigarritik lortutako etekin positiboak eta negatiboak.

f) Epe luzerako aurrezki plana iraungitzen bada, iraungitze data, plana ireki zenetik lortutako kapital higigarriaren etekin positibo eta negatibo guztiak eta, hala badagokio, egin beharreko konturako ordainketaren oinarria adieraziko dira.

**18**. (11) (17) Honen aurreko idatz zatietan adierazi diren informazioa emateko aitorpenak Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak adieraziko dituen eran eta tokian egingo dira; diputatu horrek aurkezpen horren prozedura eta baldintzak ezar ditzake eta zuzenean ordenadorez irakurtzeko euskarrian egin behar diren edota bitarteko telematikoak erabiliz.

**124. artikulua. Errenten egozketaren araubideko erakundeek informazioa eman beharra.**

**1.** Jarduera ekonomikoa egiteko bitartekari diren errenta egozketaren araubideko erakundeek, edo urteko errentak 3.000 eurotik gorakoak dituztenek, urteko aitorpen informatiboa aurkeztuko dute; bertan beren identifikazio datuak eta, behar denean, beren ordezkarienak adieraziko dira, eta horiez gainera datu hauek ere bai:

a) Bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideen (Espainiako lurraldeko egoiliar izan zein ez) identifikazioa, zerga egoitza eta identifikazio fiskaleko zenbakia; zergaldian erakundearen osaeran izan diren aldaketen berri ere eman behar da.

   Baldin eta erakundeko kideren bat ez bada Espainiako lurraldeko egoiliarra, Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari buruzko Foru Arauaren 10. artikuluan ezarritakoaren arabera haren zerga ordezkaritza duenaren identifikazioa.

   Atzerrian eraturiko errenta egozketaren araubideko erakundeek zerga honen kargapean dauden edo sozietateen gaineko zergaren subjektu pasibo diren kideak identifikatu behar dituzte, bai eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren kargapeko kideak ere zerga horren kargapeko errentei dagokienez.

b) Erakundeak lortutako errenta guztien zenbatekoa eta kide bakoitzari egotz dakiokeen errentarena; datu hauek zehaztu behar dira, kasuan kasukoa:

   1. Errenta iturri bakoitzaren sarrera osoak eta gastu kengarriak.

   2. Atzerriko errenten zenbatekoa; herrialdea zehaztu behar da eta etekin osoak eta gastuak adierazi.

   3. Errenta egozketaren araubideko erakunde bateko kideak sozietateen gaineko zergaren subjektu pasibo eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren (establezimendu iraunkorra) zergadun badira eta hark talde inbertsioko erakunde baten akzioak edo partaidetzak eskuratzen baditu, talde inbertsioko erakundea identifikatu behar du, akzio edo partaidetzen eskuraketa edo harpidetza eguna eta eskuraketa edo harpidetza balioa zehaztu behar ditu, eta norberaren kapitalak laga dituen pertsona edo erakundea (egoiliarra zein ez-egoiliarra) identifikatu behar du.

c) Kenkarien oinarriak.

d) Erakundeak jasandako atxikipenen eta konturako sarreren zenbatekoa eta kide bakoitzari egotzi beharrekoena.

e) Negozioen urteko kopuruaren zenbateko garbia, azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako Kontabilitate Plan Orokorraren araberakoa, edo eragiketen bolumenaren zenbatekoa.

**2.** Errenten egozketaren araubidean dauden erakundeek idatziz jakinarazi behar diete beren kideei aurreko paragrafoaren b), c) eta d) idatz zatietan aipatutako informazioa. Honen aurreko 1. paragrafoan aipatutako aitorpena aurkezteko epea amaitu eta hilabete igaro baino lehen heldu behar zaie jakinarazpena erakundeko kideei.

**3.** Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezarriko ditu artikulu honetan aipatutako informazio aitorpena aurkezteko eredua, epea, tokia eta modua.

**125. artikulua. Babespeko ondareen jabe diren zergadunek informazioa eman beharra.**

Azaroaren 18ko 41/2003 Legean (ezgaitasunen bat duten pertsonen ondarea babestu eta Kode Zibila aldatzen duena), Prozedura zibilari buruzko Legean eta zerga araudian araututa dauden ondare babestuen titularrak diren zergadunek eta, horiek gaitasunik izan ezean, ondareen administratzaileek, informazio aitorpena igorri behar dute urte

natural bakoitzean jasotako ekarpenei eta egindako xedapenei buruz. Aitorpen horretan, beren identifikazio datuez gain, informazio hauek jarriko dituzte:

a) Ekarpenak egin dituztenen izen-deiturak eta identifikazio fiskaleko zenbakiak, eta egindako xedapenen onuradunenak.

b) Jasotako ekarpenen eta egindako xedapenen mota, zenbatekoa eta identifikazioa.

(28) Informazio aitorpen hori urtarrilean aurkeztuko da urtero, aurreko urtean egindako ekarpen eta xedapenei dagokienez.

Aurkezten den lehenengo informazio aitorpenarekin batera, babespeko ondarea eratzeko eskritura publikoaren kopia soila aurkeztu behar da. Bertan ageriko dira hasierako ondarea osatzen zuten ondasun eta eskubideen zerrenda eta babespeko ondarea eratu zen egunetik lehenengo aitorpen hori aurkezten den egunera arte jasotako ekarpenen eta egindako xedapenen zerrenda zehatza.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezarriko ditu artikulu honetan aipatutako informazio aitorpena aurkezteko eredua, modua eta lekua eta berak erabakiko du zein kasutan aurkeztuko den ordenagailuz irakur daitekeen euskarrian edo bide telematikoetatik.

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

### Lehena. Izatezko bikoteak.

Araudi honek izatezko bikoteak aipatzen dituenean ulertu behar da Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak, izatezko bikoteak arautzen dituenak, xedatutakoaren arabera eratutako bikoteez ari dela.

### Bigarrena. (5) Inbertsio funts kotizatuetako partaidetzak eta kapital aldakorreko inbertsioko indize sozietate kotizatuen akzioak.

Zergaren Foru Arauko 48. artikuluko 1. idatz zatian ezartzen den geroramendua ezin aplikatu izango da kotizatzen duten inbertsio funtsetako partaidetzak edo mota bereko sozietateen akzioak itzultzen edo eskualdatzen direnean, ez eta harpidetzen edo eskuratzen direnean ere (funts eta sozietate horiek uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuak onartutako azaroaren 4ko 35/2012 Legearen, talde inbertsioko erakundeei buruzkoaren, arautegiko 79. artikuluan arautzen dira).

### Hirugarrena. Aurrezpen sistematikorako banakako planen arteko mobilizazioa.

Aurrezpen plan sistematiko baten hornidura matematikoa osorik edo zati batean beste batera aldatzen denean, araudi honen 57. artikuluaren 3. paragrafoan aurreikuspen plan aseguratuez xedatutakoari jarraituko zaio, aplikagarria den neurrian.

### Laugarrena. Aurrezkiaren errenta, eta kapital propioak erakunde lotuei lagaz ateratako etekinak.

Azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzkoaren, 63.b) artikuluan ezarritakoari dagokionez, zergadunarekin lotura duten erakundeei kapital propioak lagaz higigarrien kapitaletik ateratzen diren etekinak

aurrezkiaren errentan sartuko dira, baldin eta finantza erakundeengandik jasotako etekinak badira eta erakunde ordaintzaileari lotutzat jotzen diren pertsonen antzeko ezaugarriak dituzten beste kolektibo batzuei eskainitakoen desberdinak ez badira.

**Bosgarrena. (7) Atxikipenen eta konturako ordainketen tasak, 2015. urtean inbertsio kolektiboko erakundeetako akzio edo partizipazioen eskualdaketa edo ordainketen ondoriozko ondare irabazien gainean eta higiezinen akuratze eta berrakuratzeen gainean aplikatzekoak.**

Atxikipenen eta konturako ordainketen ehunekoak, erregelamendu honen 93. eta 97. artikuluetan aurreikusiak, ehuneko 20 izango dira atxikipena edo konturako ordainketa egiteko betebeharra 2015eko abuztuaren 1 baino lehen sortua bada. Atxikipena edo konturako ordainketa egiteko betebeharra data horren ostean sortua bada, atxikipenaren ehunekoa 19,5 izango da”.

**Seigarrena. (6) Atxikipen edo konturako sarrera tasa, 2015ean.**

2015eko urtarrilaren 1a eta 2015eko abenduaren 31 bitartean, bi horiek barne, atxikipen eta konturako sarrera tasa hauek aplikatuko dira:

a. Ehuneko 19 izango da uztailaren 12a baino lehen ordaindutako etekinei aplikagarri den araudi honen 92.1.1 artikuluan aipatutako atxikipen portzentajea. Dena den, portzentaje hori ehuneko 15 izango da honako hiru baldintza hauek betetzen direnean: jarduera horien etekin osoen bolumena, kasuan kasuko ekitaldiaren aurreko ekitaldiari dagokiona, 15.000 euro baino gutxiago bada, zergadunak ekitaldi horretan ekonomia jardueretatik eta lanetik eskuratutako etekin osoen baturaren ehunekoa 75 baino gehiago bada eta zergadunak etekinen ordaintzaileari jakinarazi badio inguruabar horiek ematen direla. Horrelakoetan, ordaintzailea behartuta dago jakinarazpen sinatu hori gordetzera. Ehuneko 15 izango da egun horretatik aurrera ordaintzen diren etekinei aplikagarri zaien atxikipen portzentajea.

b. Ehuneko 9 izango da uztailaren 12a baino lehen ordaindutako etekinei aplikagarri den atxikipen ehunekoa, araudi honen 92.1.2 eta 92.1.4 artikuluan araututakoa, foru dekretu honetan xedatutakoarekin bat etorriz. Ehuneko 7 izango da egun horretatik aurrera ordaintzen diren etekinei aplikagarri zaien atxikipen portzentajea.

c. Ehuneko 20 izango da 87., 96. eta 98.2 artikuluetan xedatutako atxikipenen portzentajea, baldin eta atxikitzeko beharra uztailaren 12a baino lehen sortu bada. Ehuneko 19,5 izango da atxikipen portzentajea, baldin eta atxikitzeko beharra uztailaren 12a eta gero sortu bada”.

**Zazpigarrena. (2) Indargabetua.**

**Zortzigarrena. (13) Testamendu ahalordea edo gozamen ahalduna baliatzearen zain dauden jaraunspenen araubidea.**

**Bat.** Ohiko etxebizitza zer den.

Zergaren Foru Arauaren hogeita hamargarren xedapen gehigarriaren bigarren zenbakiko 2. idatz zatiko bigarren lerroaldean ezarritakoaren ondoreetarako, ohiko etxebizitzakalifikatzeko Zergaren Foru Arauaren 87. artikuluko 8. idatz zatian eta Foru Dekretu honen 61. artikuluan jasotakoa beteko da.

**Bi.** Zerga oinarria zehaztea.

1. Testamentu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahalduna erabiltzearen zain dagoen jaraunspenari dagokion zergaren zerga oinarria zehazteko, jarduera ekonomikoen etekinak testamentu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahalduna baliatzearen zain dagoen jaraunspenaren bidez jasotzat joko dira, nahiz eta testamentu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahalduna baliatzearen zain dagoen jaraunspenak ez bete kasuan kasuko jarduera ekonomikoei atxikitako ekoizbideen eta giza baliabideen norberaren konturako antolamenduan zuzenean, pertsonalki eta maiztasunarekin parte hartzeko betekizuna.

2. Era berean, testamentu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahalduna baliatzearen zain dagoen jaraunspenari dagokion zerga oinarrian sartuko dira etekinak, ondare irabazi eta galerak, eta errenta egozketak, Zergaren Foru Arauan eta Foru Dekretu honetan ezarritakoaren arabera.

**Hiru.** Saldo negatiboen konpentsazioa.

1. Testamentu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahalduna baliatzearen zain dauden jaraunspenei dagozkien oinarri likidagarri negatiboak, jarduera ekonomikoen etekinen saldo negatiboak, oinarri likidakor orokorraren ondare galerak, eta kuota nahikoa ez izateagatik aplikatu ez diren kuotako kenkariak bakar-bakarrik konpentsatu daitezke, zerga araudiak baimentzen duenean, jaraunspen horiei dagozkien oinarri likidagarri positiboekin, jarduera ekonomikoen etekinetatik datozen saldo positiboekin, oinarri likidakor orokorraren ondare irabaziekin eta kuota positibo osoekin.

2. Beraz, testamendu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahalduna baliatzearen zain dagoen jaraunspena iraungitzen bada, dela ahal hori bete-betean baliatzeagatik, dela iraungipena dakarren beste kariren batengatik, jaraunspena iraungitzen den unean praktikatu gabeko kuota kenkariak, oinarri likidakor orokorreko ondare galerak, jarduera ekonomikoen ondoriozko etekinen saldo negatiboak eta oinarri likidakor negatiboak kausadunek ezin izango dituzte konpentsatu ez gauzatu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren banakako autolikidazioetan.

Kasu horietan, aipatu kontzeptu negatiboak konpentsatzeko eskubidea galduko da, eta egiteke geratuko dira, aipatu jaraunspenaren azken zergaldiari dagokion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioa gauzatutakoan.

**Lau.** Aitortu beharra.

1. Testamendu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahalduna baliatzearen zain dagoen jaraunspenak nahitaez aurkeztu beharko du Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioa. Bertan jaso beharko dira eragiten dioten datu guztiak.

2. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga ordaindu behar duten gainerako zergadunentzat Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak onetsitako ereduetan aurkeztuko da autolikidazio hori, eta zergadun guztientzat ezarritako arauak beteko dira.

3. Halaber, autolikidazioa aurkezteaz batera, zerga zorra zehaztu beharko dute, eta dena delako zergaldian Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak zergadun guztientzat ezarritako lekuan, eran eta epean ordaindu beharko dute.

4. Testamentu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahalduna baliatzearen zain dagoen jaraunspenari artikulu honetako aurreko idatz zatietan ezarri zaizkion betebeharrak betetzea jaraunspenaren administratzailearen edo gozamendun ahaldunaren ardura izango da. Hala bada, hark sinatuko du autolikidazioa, eta berak egingo du zerga zorraren sarrera.

5. Era berean, zerga ordaintzeko ardura izango du, ordezko gisa, administratzaileak, testamentu ahalordea baliatzearen zain dauden jaraunspenetan, edo gozamendun ahaldunak, gozamen ahalduna baliatzearen zain daudenetan.

**Bost.** Konturako ordainketak.

1. Testamentu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahalduna baliatzearen zain dagoen jaraunspenak bete egin beharko du Foru Dekretu honetan ezarritako ordainketa zatikatuen, konturako sarreren eta atxikipenen araubide orokorra, eratxiki behar zaizkion etekinekin lotuta.

2. Testamentu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahalduna baliatzearen zain dagoen jaraunspenari dagozkion ordainketa zatikatuak praktikatzean, aurreko ekitaldietako jarduera ekonomikoen etekintzat joko dira, beharrezkoa denean, jaraunspenaren kausatzaileak dagokion jarduera ekonomikoa gauzatzean eskuratu dituenak.

3. Foru Dekretu honen VII. tituluko II. kapituluko lehenengo sekzioan eta 83. artikuluan ezarritakoaren ondoreetarako, testamentu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahalduna baliatzearen zain dagoen jaraunspena ondorengorik gabeko zergadun bat dela ulertuko da.

4. Atxikipenak, konturako sarrerak eta ordainketa zatikatuak behartuta dauden aldetik, testamentu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahalduna baliatzearen zain dauden jaraunspenek beren gain hartuko dute diru sarrera Arabako Foru Aldundiari egiteko obligazioa, eta beste obligazio hori ez betetzeak ez ditu salbuetsiko diru sarrera egiteko betebehar honetatik.

Ondore horietarako, aipatu betebeharrak betetzen direla zaintzeko ardura testamentu ahalordea baliatzearen zain dagoen jaraunspenaren administratzailearena edo gozamendun ahaldunarena izango da, eta bera arduratuko da dagozkion zenbatekoak Foru Aldundian sartzeaz, ordezko gisa.

**Bederatzigarrena. (17) Epe luzerako aurrezki planen arteko mobilizazioa.**

Foru arauaren Hogeita Hamahirugarren Xedapen Gehigarriaren 5. Apartatuarekin bat etorriz, epe luzerako aurrezki plan baten titularrak bere titulartasuneko beste epe luzerako aurrezki plan batera osorik mobilizatu ahal izango ditu epe luzerako aurrezki aseguru banakakoaren eskubide ekonomikoak eta epe luzerako aurrezki kontu banakakoan eratutako funtsak, eta horrek ez du ekarriko baliabideak erabili beharra, zergaren foru arauaren 9. artikuluko 37. zenbakian edo aipatutako xedapen

gehigarriaren 1. apartatuko b) letran xedatutakoaren ondorioetarako, honako egoeretan:

Ezin izango da mobilizaziorik egin enbargo, karga, pignorazio edo lege edo kontratu xedapeneko mugaren bat duten eskubide ekonomikoen edo funtsen kasuetan.

Mobilizazioa egiteko, epe luzerako aurrezki planaren titularrak xede aseguru edo kreditu erakundera joko du, bere eskaeraz gain mobilizazioaren abiapuntu izango den epe luzerako aurrezki plan jatorrizkoaren identifikazioa eta jatorrizko erakundearen identifikazioa aurkeztuta. Eskaerak jatorrizko erakundeari zuzendutako jakinarazpen jasoko du, horrek intsuldaketa agin dezan, eta, horrez gainera, epe luzerako aurrezki planaren titularraren baimen bat izango du, bere izenean, jatorrizko erakundeari mobilizazioa eta intsuldaketa egiteko behar den finantza eta zerga arloko informazioa eskatu ahal izateko. Zehazki, jatorrizko erakundeak honakoak jakinarazi behar ditu: epe luzerako aurrezki planaren irekitze data, urtean egindako ekarpenen zenbatekoak eta, banan-banan, plana ireki zenetik lortutako higigarrien kapitalaren etekin positiboak eta negatiboen guztirako zenbatekoa, mobilizazioaren ondorioz lortu litezkeenak barne.

Xede erakundeak berariaz eta argi eta garbi adierazi behar dio zergadunari mobilizazioaren zenbatekoa txikiagoa izan daitekeela jatorrizko erakundeak bermatutako zenbatekoa baino, epe luzerako aurrezki aseguru banakakoa edo epe luzerako aurrezki kontu banakakoa eratzeko aseguru, gordailu edo finantza kontratuaren baldintza espezifikoen arabera.

Mobilizazio eskaerak bitartekoen bidez edo beste erakunde batzuenmerkataritzako sareen bitartez kudeatzeaahalbideratzen duen hitzarmenik edo kontraturik egonez gero, eskaera hauetako bati aurkeztea xede erakundeari aurkeztea bezala izango da.

Xede erakundeak gehienez ere bost egun baliodun izango ditu, beharrezko dokumentazio guztia duenetik hasita, mobilizazio horretarako arauz ezarrita dauden baldintzak bete direla egiaztatzeaz gain jatorrizko erakundeari eskaeraren berri emateko, gutxienez, honakoak adierazita: xedeko epe luzerako aurrezki plana, xede erakundea eta transferentziaren xede kontuaren datuak.

Eskaera, behar den dokumentazioarekin, jasotzen duenetik hamar egun baliodun igaro baino lehen, jatorrizko erakundeak banku transferentzia aginduko du eta xede erakundeari behar den finantzen eta zergen arloetako informazio guztia bidali behar dio.

Mobilizazio zenbatekoari ez zaio funtsenintsuldaketaren ondorioz sortu den ez zehapenik, ez gasturik, ez deskonturik aplikatuko. Horretarako, epe luzerako aurrezki aseguru indibidual bat denez, eskubide ekonomikoak hornidura matematikoaren zenbatekoaren edo esleitutako aktiboen merkatuko balioaren arabera balioetsiko dira.

Xedapen Gehigarri honetan aipatzen diren mobilizazioen prozeduretan baimena ematen da erakunde partaideen arteko intsuldaketa eskaeraren igorpena, eskudiruaren transferentzia eta informazio igorpena Konpentsazio Elektronikoko Sistema Nazionalaren bidez egiteko, sistema horretan egoera horietarako gaitzen diren eragiketen bidez.

## XEDAPEN IRAGANKORRAK

**Lehenengoa. 1994ko abenduaren 31 baino lehen eskuratu eta jarduera ekonomikoren bati lotuta egon diren elementuetatik ateratako ondare irabaziak.**

Ondare elementuak eskualdatzen direnean, elementu horiek eskualdatu aurretik desafektatu egin badira, Zergaren Foru Arauaren 27. artikuluan ezarritako moduan, eta 1994ko abenduaren 31 baino lehen eskuratuak badira, ondare irabaziak murriztu egingo dira Zergaren Foru Arauaren lehen xedapen iragankorraren lehenengo paragrafoan ezarritakoaren arabera, elementu horiek zein egunetan eskuratu ziren kontuan izanik.

Alabaina, aurreko paragrafoan xedatutakoa ez zaie aplikatuko Zergaren Foru Arauaren lehen xedapen iragankorreko bigarren paragrafoan aipatzen diren eskualdaketei.

**Bigarrena. Higigarrien kapitalaren etekinen gaineko eta ondare irabazien gaineko atxikipenak direla eta egin diren aldaketen araubide iragankorra.**

**1.** Etekin esplizitua duten finantza aktiboak eskualdatu, amortizatu edo itzultzen direnean atxikipena egin beharra 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera formalizatutako eragiketei aplikatuko zaie.

Etekin esplizitua duten finantza aktiboak 1999ko urtarrilaren 1a baino lehen jaulkitakoak izanez gero, horiek eskualdatzen direnean eskuratze prezioa frogatzen ez bada, aktiboaren jaulkipen balioaren eta eskualdatze prezioaren arteko diferentziaren gainean egingo da atxikipena.

1999ko urtarrilaren 1a baino lehen jaulkitako zor publikoko baloreak eskualdatuz, trukatuz edo amortizatuz lortzen diren etekinei ez zaie atxikipenik aplikatuko, egun horren aurretik atxikipenik aplikatu behar ez bazitzaien.

**2.** 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera lortutako etekin esplizituak direla eta, likidazio aldia hamabi hilabetetik gorakoa izateagatik konturako sarrerak egin izan badira, etekinak eskatu ahal izan ziren unean indarra zuen tasaren arabera egingo da behin betiko atxikipena, eta kontura egindako sarreren arabera erregularizatuko da.

**Hirugarrena.** (11)

**Laugarrena. Salgaiak errepidez garraiatzeko jarduerari aplikagarri zaion zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztuaren aukera.**

Salgaiak errepidez garraiatzen diharduten zergadunek berariaz aukeratu ahal izango dute zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztua, araudi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo hiru hilabeteen barruan, baldin eta etekin garbia zehazteko xedatutako betekizun orokorrak betetzen badituzte.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

**Lehena. Indargabetzea.**

Foru dekretu hau indarrean jartzen denean indarrik gabe geratuko dira haren maila berekoak edo apalagokoak izan eta aurka egiten dioten xedapen guztiak, bereziki

abenduaren 11ko 76/2007 Foru Dekretua, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko araudia onartzen duena.

**Bigarrena. Erregelamenduzko beste arau batzuen indarra.**

Abenduaren 11ko 76/2007 Foru Dekretua, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko araudia onartzen duena, indargabetu arren, hura garatzeko eman diren erregelamenduzko arauek indarrean iraungo dute, foru dekretu honek onartutako araudian ezarritakoaren aurka ez dauden neurrian, onartutako araudia garatzeko eman daitezkeen erregelamenduzko arauak indarrean jarri arte.

## AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa. Indarrean jartzea.**

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2014ko urtarrilaren 1az geroztik hasitako zergaldiei aplikatuko zaie. Indarrean sartzen den eguna zeinahi dela ere, zazpigarren xedapen gehigarriak 2014ko uztailaren 5etik aurrera izango ditu ondorioak.

**Bigarrena. Arau aipamenak.**

Abenduaren 11ko 76/2007 Foru Dekretuaren bidez onartutako pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko araudiaz foru arauetan dauden aipamen guztiak honako foru dekretu honek onartutako araudiari dagozkiola ulertuko da aurrerantzean.

**Hirugarrena. Garapena.**

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren foru agindu bidez zehaztuko dira, oro har, araudi hau aplikarazteko eta garatzeko beharrezko alderdi guztiak.

## OHARRAK

(1) Ikusi arautegi honetako bosgarren xedapen gehigarria; abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuaren bidez onartu zen.
(ALHAO, 89. zk., 14-8-8koa).

(2) 63/2014 Foru Dekretua, abenduaren 16koa.
(ALHAO, 146. zk., 14-12-24koa).

(3) Ikusi arautegi honetako bosgarren xedapen gehigarria; abenduaren 16ko 63/2014 Foru Dekretuaren bidez aldatu zen.
(ALHAO, 146. zk., 14-12-24koa).

(4) Ikusi arautegi honetako seigarren xedapen gehigarria; abenduaren 16ko 63/2014 Foru Dekretuaren bidez aldatu zen.
(ALHAO, 146. zk., 14-12-24koa).

(5) 9/2015 Foru Dekretua, martxoaren 10ekoa.
(ALHAO, 33. zk., 15-3-18koa).

(6) 41/2015 Foru Dekretua, uztailaren 21ekoa.
(ALHAO, 90. zk., 15-07-31koa).

(7) 48/2015 Foru Dekretua, abuztuaren 4koa.
(ALHAO, 98. zk., 15-08-21ekoa).

(8) 23/2016 Foru Dekretua, martxoaren 1ekoa.
(ALHAO, 29. zk., 16-3-11koa).

(9) 65/2016 Foru Dekretua, urriaren 4koa.
(ALHAO, 114. zk., 16-10-14koa).

(10) 3/2017 Foru Dekretua, otsailaren 14koa.
(ALHAO, 22. zk., 17-02-22koa).

(11) 27/2017 Foru Dekretua, maiatzaren 9koa.
(ALHAO, 55. zk., 17-05-17koa).

(12) 62/2017 Foru Dekretua, abenduaren 29koa.
(ALHAO, 3. zk., 18-01-8koa).

(13) 41/2018 Foru Dekretua, abuztuaren 3koa.
(ALHAO, 92. zk., 18-08-10ekoa).

(14) 60/2018 Foru Dekretua, abenduaren 11koa.
(ALHAO, 146. zk., 18-12-19koa).

(15) 64/2018 Foru Dekretua, abenduaren 18koa.
(ALHAO, 148. zk., 18-12-26koa).

(16) 1/2019 Foru Dekretua, urtarrilaren 15ekoa.
(ALHAO, 10. zk., 19-01-23koa).

(17) 2/2019 Foru Dekretua, urtarrilaren 15ekoa.
(ALHAO, 10. zk., 19-01-23koa).

(18) 13/2019 Foru Dekretua, martxoaren 21ekoa.
(ALHAO, 10. zk., 19-03-29koa).

(19) 51/2019 Foru Dekretua, azaroaren 19koa.
(ALHAO, 137. zk., 19-11-27koa).

(20) 58/2019 Foru Dekretua, abenduaren 27koa.
(ALHAO, 1. zk., 20-01-03koa).

(21) 14/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abenduaren 1ekoa.
(ALHAO, 140. zk., 20-12-9koa).

(22) 39/2020 Foru Dekretua, abenduaren 30ekoa.
(ALHAO, 148. zk., 20-12-30ekoa).

(23) 56/2021 Foru Dekretua, abenduaren 30ekoa.
(ALHAO, 146. zk., 21-12-29koa).

(24) 5/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, apirilaren 5ekoa.
(ALHAO, 44. zk., 22-04-13koa).

(25) 36/2022 Foru Dekretua, abuztuaren 2koa.
(ALHAO, 90. zk., 22-08-2koa).

(26) 51/2022 Foru Dekretua, abenduaren 27koa.
(ALHAO, 150. zk., 22-12-30ekoa).

(27) 24/2022 Foru Araua, abenduaren 23koa.
(ALHAO, 150. zk, 22-12-30ekoa).

(28) 2/2023 Foru Dekretua, urtarrilaren 24koa.
(ALHAO, 11. zk., 23-1-27koa).

(29) 17/2023 Foru Dekretua, maiatzaren 9koa.
(ALHAO, 57. zk., 23-5-17koa).

(30) 22/2023 Foru Dekretua, maiatzaren 30ekoa.
(ALHAO, 66. zk., 23-6-7koa).

(31) 50/2023 Foru Dekretua, abenduaren 26koa.
(ALHAO, 150. zk., 23-12-29koa).

(32) 7/2024 Foru Dekretua, maiatzaren 7koa.
(ALHAO, 55. zk., 24-5-17koa).